
# BIRMOLDATZEKO ETA BIRRINDUSTRIALTZEKO POLITIKA

## (Espainia eta Euskal Komunitate Autonomoaren Kasuak)



MIKEL NAVARRO

udako euskal unibertsitatea

IRUÑEA 1984

# BIRMOLDATZEKO ETA BIRRINDUSTRIALTZEKO POLITIKA:

# ESPAINIA ETA EUSKAL HERRIKO KOMUNITATE

# AUTONOMOAREN KASUAK.

MIKEL NAVARRO ARANTZEGI

Donostia, Maiatzak 20, 1984

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAZ

Jabegoa: U.E.U.ko EKONOMIA Saila
Lege-gordailua: BI-1548-84
ISBN: 84-398-2633-8
Imprimategia: BOAN S.A.

## AINTZINSOLASA

Liburutxo hau aurten ESTEn gai honetaz zuzendu dudan minte girako prestatuz joan nintzen apunteen bilduma da. Horietan industri eta birmoldaketa-politikari buruz ideia teoriko xume batzu ez-ezik,Espainian eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaz osaturiko euskal Komunitate Autonomoan politika hauetaz egin den baliakuntza agertzen saiatzen naiz. Mintegi hori Maiatzean bukatu zen, eta hil horretan bertan bukatu zen apunteen idazketa ere.

Baina horrelako gaietan ohi denez, honi buruzko albiste eta idazlan berriak argitaratzen, edo lehen nik ez erabilitako batzu nire eskuetara iristen, jarraitu dira. Ezin, ordea, nik apunteak behin eta berriro osatuz ibili eta zeuden zeudenean uztea erabaki dut.

Albiste berrien artean garrantzitsuenetako bat -aipatzeke utzi ezin duguna- joan den urtearen azkenaldian onartu zen Birmoldatzeko eta Birrindustrialtzeko lege-dekretua hil honetan, Maiatzean alegia, lege bihurtzeko jarraitzen den eztabaidatze--prozesuan jasaten ari den aldaketa da nire eritziz. Aldakuntza honi esker, Komunitate Autonomoei lehen baino eskuhartze handiagoa ematen zaie industri eta birmoldaketa-politiken elaborapen eta garapenean.

Idazlanaren gaurkotasun-galtze hau nolabait konpontzeko asmoz, azken egunetan ikuskaturiko idazlan batzu bibliografia osagarri gisa eskaintzea erabaki dut, horrela gai honetan interesaturik dagoenak liburu honetan dauden hutsune eta ezaskitasunak bere aldetik osa ditzan.

Bukatzeko eta azken ohar gisa, liburutxo hau burutu dudan aldian nire doktoradutzako tesirako eusko Jaurlaritzak emandako ikasketa-laguntzaz baliatu ahal izan naizela aitortu beharrean nago. Bego, hemen, harentzat nire eskerrik beroena.

Mikel Navarro

(1984/V/20)

Or.

1. SARRERA..... 11
1.1. 1929ko ETA 1974eko KRISIEN IZAERA DESBERDINA..... 11
1.2. GOBERNUAREN JARRERA KRISIAREKIKO..... 13
1.3. EKONOMI POLITIKAK: ESKARI-POLITIKA ETA ESKAINTZ POLITIKA..... 16
1.4. INDUSTRI POLITIKA..... 17
2. ESPAINIAR BIRMOLDAKETA-POLITIKA..... 23
2.1. ENPRESAZ-ENPRESA ERAMANDAKO BIRMOLDAKETA-POLITIKA 23
2.1.1. Ekonomi hazkundea eta industri politika 1977 arte..... 23
2.1.2. Enpresaz-enpresa buruturiko birmoldaketa.. 27
2.1.3. Nervacero-ren kasua..... 31
2.2. BIRMOLDAKETA-POLITIKA SEKTORIALA..... 39
2.2.1. Birmoldaketa-legea: sorrera eta edukina... 39
2.2.2. Birmoldaketa-legea: aplikaturiko sektoreak 45
2.2.3. Sektoreka eramandako birmoldaketari buruzko datuak..... 48
2.2.4. UCDk sektoreka eramandako birmoldaketa-politikaren balorapena..... 55
2.2.4. A Birmoldaketa-politikako ingumariaren akatsak..... 55
2.2.4. B Birmoldaketa-politikaren beraren akatsak..... 57
2.2.4.B.1 Aplikatu diren sektoreak..... 57
2.2.4.B.2 Emandako laguntzen hainbatekoa eta egokitasuna 58
2.2.4.B.3 Planen azterketak..... 60
2.2.4.B.4 Emateko diren laguntzen erabakia..... 61
2.2.4.B.5 Emandako laguntzen izapidatze administratiboa... 62
2.2.4.B.6 Laguntzen gestioa, kontrola eta jarraipena..... 62
2.2.4. D Ondorioak..... 64
2.3. PSOEren BIRMOLDAKETA-POLITIKA SEKTORIALA..... 65
2.3.1. Politika ekonomikoaren, industrialaren eta birmoldatzailearen arteko jostura..... 65
2.3.2. Birrindustrialkuntza: birmoldaketa eta industri promozioko estrategia..... 68

Or.

2.3.3. Liburu Zuriaren birmoldaketa-politika..... 71
2.3.3.1. Birmoldaketa-politikak gerizaturiko sektoreak..... 72
2.3.3.2. Birmoldaketarako lagunbideak..... 73
2.3.3.3. Sektorea birmoldaketan aldarrikatzea eta haren planaren elaborapen eta onarpena..... 75
2.3.3.4. Birmoldaketa-planaren garapena:egipidea eta jarraipena..... 76
2.3.4. Liburu Zurian oinarrituriko birrindustrialkuntz projektuak jasotako kritika eta aldaketak..... 78
2.3.4.1. Laguntz neurriei buruzko kritikak. 79
2.3.4.1.a Finantz neurriei egindako kritikak eta irazkinak. 79
2.3.4.1.b Gizarte eta lan-neurriei egindako kritikak eta irazkinak 81
2.3.4.1.d Neurri fiskalei egindako kritika eta irazkinak..... 84
2.3.4.1.e Beste zenbait neurri.... 86
2.3.4.2. Sektorea birmoldaketan aldarrikatzeari eta haren planaren elaborabide eta onarpideari buruzko kritikak eta irazkinak..... 86
2.3.4.3. Birmoldaketa-planaren egipide eta jarraibideari buruzko kritikak eta irazkinak..... 87
2.3.4.4. Birmoldaketa eta birrindustrialkuntzako projektuaren onarkera: Lege-Dekretua..... 90
2.3.4.5. Sozialisten birmoldaketa eta birrindustrialtzeko politikaren beste zenbait puntu..... 91
2.3.4.5.a Birmoldaketaren kostu eta finantzapena..... 91

Or.

2.3.4.5.b Birmoldatuko diren sektoreak 93
2.3.4.5.e Sozialisten birmoldaketa-politika eta Komunitate Autonomoak..... 98
3. BIRMOLDAKETA-POLITIKA EUSKAL HERRIAN..... 99
3.1. INDUSTRI POLITIKARI BURUZKO AHALMEN-BANAKETA ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN ETA EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAREN ARTEAN..... 99
3.2. ADMINISTRAZIO ZENTRALAK ONARTURIKO BIRMOLDAKETA-PLANEN ERAGINA EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAN... 104
3.3. EUSKO JAURLARITZAREN INDUSTRI POLITIKA OROKORRA 110
3.4. EUSKO JAURLARITZAREN INDUSTRI POLITIKA SEKTORIALAK..... 114
3.5. FORU-ALDUNDIEN INDUSTRI POLITIKA..... 121
4. ERABILITAKO IDAZLANAK..... 123
BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA..... 130
HIZTEGIA..... 133

# 1. SARRERA

## 1.1. 1929ko ETA 1974eko KRISIEN IZAERA DESBERDINA.

Mende honetako bi krisi handietan fenomeno antzeko batzu (lan gabezia...) agertzen badira ere, bataren eta bestearen sorreran zio eta zergati desberdinak izan dira. Hori ez ikustekotan krisi honetatik ateratzen lagunduko lukeen politika ekonomikoa aukeratzen huts egingo genuke.

Ekonomia ofizialean ondoko arrazoiak erabili izan dira 1927-ko krisia explikatzeko(1):

1.- Burtsaren amiltzea Goibeheraldi Handia baino lehenagokoa izan zen eta lehenengotasun hori ez zen kasuala izan.

2.- Irabaziak eta ekoizkortasuna larregi hazi ziren gastu nazionalean alokairuen kaltetan.

3.- Mozkinen puzte horrek ekoizpen-ahalmena kontsumo-premiak baino azkarrago haztea erakarri zuen. Ondorioa: ekoizten zena ezin zen saldu.

4.- Amerikar banku-egitura guztiz desegokia zen: bankuetxeen kopurua neurrizgainekoa zen, maileguak era zuhurgabean ematen ziren, ez zegoen finantzetxeen zailtasunen edo kinka larrien kontra inolako neurririk gerturik...

5.- Amerikar nekazaritzaren krisia zela bide, nekazarien errentak urritu ziren eta, hori zela eta, kontsumo-ahalmena gutxitu.

6.- Politika monetario eta fiskala ondagarri eta galgarriak izan ziren. Krisia konpentsatu zukeen moneta-politika hartu ordez goibeheraldiko lehenengo lau urteetan moneta-eskaintza % 27 murriztu zen. Estatuaren aurrekontuak ere, aurrekontuko orekaren dogma klasikoari atxekita, ez zuen konpentsatu eralgipen pribatuaren eroraldia.

7.- EEBBek goibeheraldi handia mundu osora hedarazi zuten beren merkatua babeskuntza edo protekzionismo biziaz gorde nahi izatean eta beste herrialdeek behar zituzten epe luzeko kredituak emateari uko egitean.

---

(1) Izengabea 1; 14-16 orr.

Ekonomilari marxisten artean (hasi Baran eta Sweezy-rengandik, Aglietta, Arrighi, Boyer eta abarrenganaino) goiko bigarren eta hirugarren puntuak azpimarratu izan dituzte batik-bat, orduko krisiaren erakarle nagusitzat. Hots, ekonomia marxistan "azpikontsumoaren arazoa" izendatu ohi den sistema kapitalistaren kontraesanean ipini izan da 1929ko krisiaren kari nagusia.

Alde batera utziz politika ekonomiko egokia hartu izan balitz krisi hura erraz gainditu zatekeen ala ez eztabaida, ezin uka daiteke eralgipen eta eskari efektiboari eragin zieketen programa monetario eta fiskalak orduko krisiaren larritasuna gutxitu zuketenik. Hain zuzen ere, Keynesek teoria ekonomikoaren arlora eskainitako ekarpena horixe izan zen.

Keynesek erakutsi ziguna zera izan zen:nola eta zergatik ez duen funtzionatzen sistema kapitalistak, bere barruan daramatzan indarren berezko jokabidearen pean lagatzen baldin bada. Garai hartan, 30 urteetan alegia, ugari eta merke ziren baliabide erabilgarrien ahalezko produktua errealezko bihur zezakeen eskaririk ez zegoen. Nahikoa zen, orduan, neurri fiskal eta monetarioen bidez nazio-gastuari eragitea, ahalezkoa zen produkzioa errealezko bihurtzeko behar zen eskaria erdiesteko. Bestela esanda, krisiari aurre egiteko eskari-politikak on ziren.

1974ean agerira jalgi zen ekonomi krisia, ordea, 1929koa bezalakoa ez da.

Hazkunde ekonomiko oro produkzio-egituraren bilakaeraz lagundua joan ohi da. Bilakaera horren eragileak anizkunak izaten dira: eskariaren osakuntzaren aldaketak (a.b., moda aldatu delako), aurreramendu teknologikoarenak, nazioarteko lan-zatiketarenak, produkzio-faktoreenak...(1). Aldakuntza horiek direla medio, produktu eta faktoreen prezio erlatiboek ere aldatu behar izaten dute eta, haien arabera, industri produkzioak ere doitu eta egokitu beharrean aurkitzen dira. Hau honela dela, 50 eta 60 urteetan eskaintzaren artean nolabaiteko oreka gertatu zela eta birdoiketak ukaldi handirik gabe jazotzen zirela esan daiteke.

(1) Donges 1; 169-170 orr.

Baina pixkanaka-pixkanaka, aldaketen ziztua areagotuz joan zen (1). Era honetan, produkzio-faktoreen prezio erlatiboen eta kostu-egituraren erabateko aldakuntzak bestelakotu ditu herrialde ezberdinen abantail konparatiboak eta elkarganbioko erlazio errealak, eskariaren osaera eta maila, inbertsioaren errentagarritasuna eta ekipamendu produktibo erabilgarriaren baliakuntza (2).

Bestearen artean, ondoko aldaketa garrantzitsuak antzeman daitezke krisiaren sorreran (3).

1.- Energiaren prezioaren estanda eta gainerako lehengai eta elikagaien prezioen igoera (honek dakartza herrialde aurreratuen txirotzea, inflazioaren biziagotzea, eskari mundialaren eta produktuen kostu erlatiboen aldaketak..).
2.- Kostuen inflazioa, batez ere alokairu eta finantz kostuena.
3.- Nazioarteko Ordenu Ekonomikoaren krisi agiria.
4.- Garabidetango herrialdeen industriaren lehiagarritasuna zenbait adarretan.

Ekonomilari marxistak fenomeno hauen azpian beste arrazoi batzu bilatzen saiatu dira. Horrela, haien ustez, II. gerla mundialaren ondorengo hazialdia ahalbideratu duten erabide sozialak (fordismoa, hirugarren munduko ustiakuntza, naturaren erabilera basatia...), langile eta hirugarren munduko herrialdeen burrukak direla medio, krisian sartu direlako suertatu da krisi hau( 4).

## 1.2. GOBERNUAREN JARRERA KRISIAREKIKO.

Krisialdi honi aurre egiteko, eta gobernuen jarrerei dagokienez, hiru aukera agertzen dira:

A) Liberala: merkatu-indarren jokatze askean oinarritzen dena. Gobernuaren eskusartzeek, liberalen eritziz, ez dituzte mer-

(1) Solchaga 1; 43 or./ Donges 1; 175 or.
(2) Izengabea 2; VIII or.
(3) Izengabea 1; 18-20 orr.
(4) Ik. Navarro 2

katuen lege ekonomikoak hautsi behar. Horregatik, zalantzan jartzen dute Estatu-eskusartzeek gizartearentzat, azken finean eta orokorki, ondorio onik dakartzaketenik; aitzitik, administrazio publikoaren eskusartzea zarrastelkeria eskergen iturburua izaten da maiz asko (1).

Errealitatean jarrera hau ez dute inongo gobernuek hartzen hots ez da inon aurkitzen.

B) Ekonomi mixtoko eredua: jarrera hau aldezten duten ekonomilarien ustez, merkatua, funtzionatzekotan, edozein eskusartze publiko baino hobea da, baina eskusartze publikoa, ongi funtzionatzen ez duen merkatua baino hobea izan daiteke, eta azkeneko hau sarri asko agitzen da krisian dagoen egungo munduan(2). Segura-k, ekonomilari liberalak kritikatuz honela dio gai honi buruz:

"La segunda conclusión -que sólo el mercado asigna eficazmente y que es preciso restaurarlo en su mayor pureza- desconoce una buena parte de la literatura económica de los últimos veinte años. Está demostrado, y bien cientificamente por cierto,que el mercado no asigna eficientemente, ni ante la presencia de rendimientos crecientes, de otro tipo cualquiera de indivisibilidades, ni con efectos externos en el consumo y/o en la producción, ni en el caso de los bienes públicos... y un largo etcétera en el que se encuentran casi todas las actividades productivas modernas... Esto por lo que respecta al análisis económico.

"Por lo que se refiere al carácter de la crisis actual, parece aún más evidente que la misma que no puede superarse a través del mercado. La intensidad de los cambios requeridos, el carácter de crisis de composición de la oferta y de tipo de tecnología etc señalan por el contrario que sin una fuerte intervención del sector público su superación sería impensable" (3).

1929ko gertaerek erakusten digutenez, ekonomia merkatu-indarren jokatze askearen pean lagatzeak ez darama enplegu betera(4).

(1) Argandoña
(2) Fontela; 170 or.
(3) Segura 1; 330 or.
(4) Centeno; 188 or.

Gainera, gaurregun agente ekonomikoek ez dute jokatzen liberalek merkatuari egozten dizkieten jokatze-arauen arabera; monopolioak eta presio-taldeak nonnahi dira nagusi eta ekonomi errealak ez du eredu teorikoaren batere antzik(1).

Gainera, merkatu-indarren jokatze soilaz egungo krisiak gal datzen dituen egiturazko eraldakuntza eta birmoldaketa egingarri izan litekeela onartuko balitz ere, agerian da denboraldi luzeagoa eta kostu sozio-politiko handiagoak izango lituzkeela(2). Centeno-k Espainiarako kasuan eta Garaialde eta Llorens-ek Euskal Herrirakoan, biharko sistema produktiboaren birrantolaerari dagokionez, merkatu-indarren jokatze askearen aldean eskusartze publikoak litzakeen abantailak argi eta garbi erakutsi dituzte.

Ortun-ek dioenez, bestalde, hau izan da merkatuko ekonomia sozialeko herrialde gehienetan, Espainia barne, aukeratu izan den bidea. Dena den, merkatu eta Estatuaren ekintza erkidetu horretan, autore batzuengandik besteengana desberdina izan da Estatuaren eginbeharren hedapenaz dagoen ikuskera (a.b., Donges-ek aldezten duen jarreratik Garaialde eta Llorens-ek aldeztutakora alde galanta dago).

D) Hirugarren talde batean, doikuntzaren erantzunkizun eta lehenengotasuna Estatuaren eskuetan ezartzen dutenak daude. Hau izango litzateke sozialismoaren kasua, edo, gaurregun, ekonomia planifikatu eta erdiratua duten herrialdeena.

Alde batera utziz mendebaleko herrialdeetan ematen ez diren lehenengo eta hirugarren jarrerak, dakusagun nolakoa izan beharko lukeen Gobernuak krisiaren aurrean hartu beharko lukeen politika. Horretarako lehen mintzaturiko egungo krisiaren berezitasunari so egin behar diogu berriro ere, zeren eta krisien kari edo arrazoi ezberdinek ekonomi politika ezberdinak ere eskatzen bait dituzte.

---

(1) Galbraith; 378-380 orr.

(2) Gamir/S.E.B.B. 1; 7 or./ TRIKUHARRI...

## 1.3. EKONOMI POLITIKAK: ESKARI-POLITIKA ETA ESKAINTZ POLITIKA.

Has gaitzezen gertaera bat azaltzen: 1929ko krisitik irteten lagundu zuketen eskari-politikak egungo krisia gainditzearren erabili izan direnean, inflazioa areagotu besterik ez dute lortu (1). Izan ere, herrialde gehienen arazoak lehengai eta energi berrien garapenari, teknologi aurreramenduari, nazioarteko merkatuetan bere ekoizkinek duten lehiagarritasunari eta abarri loturik baldin badaude, gaitz dira hauek ebatziko moneta-politika eta gastu/sarrera publikoen bidez (2). Haatik, oraindik zuzena da merkatu-sistemaren egonkortasun-ezaz eta gobernuek egongaiztasun horrek eragipenak gutxitzeko duten erantzunkizunaz keynesiar filosofiak zuen eritzia. Hala ere, gobernuek ez dute hori erdietsiko egungo baldintzetan, 50 eta 60 urteetan hain erabili eta emankor izan ziren eskari-politikak bakarrik erabiltzen. Klein-ek azpimarratu duenez, eskari aldetiko politika eskaintz aldetikoaz osatu beharra dago. O.C.D.E. bera, 1977ko txostenean artean eskariaren zuzpertzearen premiaz iharduten zuela ere,konturatuz joan da ezin dela inflazioa bizkortzeke eskaria gehitu, baldin eta eskariaren kontrolean oinarritutako politikak osatzen ez badira eskaintz aldetik aritzen diren politikez, hots gastuaren berregituratze eta berresleitze-politikez(3).

Hau honela, eskari orokorreko erabileran datzan ohizko politikari moldatu edo integratu egin behar zaio krisi honetako arrazoei aurre ematea ahalbideratzen duen epe luzerako eskaintz estrategia. Ekonomi politikak bi arlo horietan hartu behar du oin. Izan ere politika makroekonomiko orok ditu epe laburreko ondorio industrial garrantzitsuak eta industri politika orok ditu epe luzeko ondorio makroekonomikoak (4). Azken aldi honetan ospaturiko zenbait ekonomilari-topaketatan, a.b. Valentzian bilduriko politika ekonomikoko unibertsital irakasleenean (5) edo Industri eta Energi ministraritzak, O.C.D.E.ren babespean, 1980ko maiatzean Madrilen antolaturiko industri politikei buruzko nazioarteko symposiumean (6) ondorio horretara iritsi da.

(1) Izengabea 1; 19 or.
(2) Garcia Valverde 1; 79 or.
(3) De la Poza; 80 or. / De la Dehesa 1; 210 or.
(4) De la Dehesa, G. eta García Valverde, J. ; 48 or.
(5) Gamir
(6) De la Dehesa, G. eta García Valverde, J. ; 48 or.

Hori bai, eskaintz politika hauek ez dute zaharkitu eta desegokiak diren produkzio-egitura industrialak babestera jo behar, baizik eta O.C.D.E.k izendatutako "doikuntza positiboko politikak" izan behar dute. (1).

Hau guztiau aintzakotzat hartuz, Papeles de Economía Española-ko ekonomilari-taldeak doikuntzako politika zuzenak ondoko arlo hauetaz osatuta egon behar duela uste du:

1.- Arian-arian eta mailaz-maila inflazioa gutxitzera zuzenduta dagoen moneta-politikaz.
2.- Aurrekontuaren egiturazko mentsa gutxitzera zuzenduriko aurrekontu-politikaz.
3.- Lan-merkatuaren malgutze-politikaz.
4.- Finantz sistemaren berriztapenaz.
5.- Industri doikuntzako politikaz (2).

Guk, ondoko lerroetan, arestian aipaturiko azken arloaz, hots industri politikaz, ihardungo dugu. Hala ere, beti gogoan izan behar dugu industri politika honek besteekin eduki behar duen lotura. Gorago azaldu dugunez, industri iharduerak industri politikaren ondorioak ez-ezik Gobernuak programaturiko eta buruturiko beste politiken eragipenak ere (monetarioarena, fiskalarena, lanekoarena...) jasango ditu. Eta gerta daiteke, zentzu hertsian industrial ez diren politika hauen eragipenak aintzakotzak hartu ez dituen industri politikak ustegabeki bere helburuak ezeztuak aurkitzea (3).

## 1.4. INDUSTRI POLITIKA.

Politika ekonomiko jakin baten barruan sektore publikoak industriaren gainean buruturiko jokaera-multzoa sartzen da "politika industrial" adigai edo kontzeptuaren baitan(4). Jokaera horiek politika ekonomikoko helburu batzu burutzera zuzenduta egoten direnez gero, agitz garrantzizko da jomuga nagusi horiek ongi zehaztea eta taiutzea. Izan ere, xedeak anizkunak izan daitezke:le

(1) García Valverde 1; 81 or.
(2) Izengabea 2 ; XXV eta XXVI orr.
(3) S.E.B.B. 1; 14 or.
(4) Lobo; 63 or.

hiagarritasunaren hobetzea, exportazioen gehitzea, enplegu betea lortzea, kanpoarekiko menpekotasuna gutxitzea, energi kontsumo eta kutsadura gutxi duten industriak ezartzea eta abar, eta xede edo jomuga horien artean epe luzera nolabaiteko osagarritasuna egon badaiteke ere, epe ertain eta laburrera behin baino gehiago tan kontraesanak agertu ohi dira (1). Hori dela eta,politika ekonomikoko arduradunek behartua ikusten dute beren burua helburu horien artean lehentasun-jerarkia bat ezartzera eta jerarkia horren helburu bakoitzari balorapen neurtua ematera, hori guztiori gizarte-paktu baten fruitua izatea komenigarria delarik. Adibidez, Garaialde eta Llorens-ek aukeraturiko helburu-zerrenda ondoko laukian ikus daiteke.

1. LAUKIA: HELBURUEN LABURPEN BALORATUA

| HELBURU-MOTA | ALDAGAIA | HARI EMANDAKO LEHENTASUNA EHUNEKOTAN |
|---|---|---|
| Enplegua | -Enplegu-sormen zuzena<br>-Enplegu-sormena zerbitzutan | 32'1 |
| Eraginkortasun edo efizientzia | -Eraginkortasun erlatiboa<br>-Atzerrian lehiagarri edo konpentitiboa izatea | 12'8<br>5'1 |
| Dinamismoa | -Eskariaren hazkundea<br>-Beste sektoreetatik tiratzeko ahalmena | 21'8<br>5'1 |
| Beste helburuak | -Energi kontsumoa<br>-Kapital-intentsitatea | 12'8<br>5'1 |

Helburuak behin finkatuz gero eta industri sektoreez dauden datu estatistikoak bilduz gero (a.b., sektore bakoitzean produzitutako mila pezetako zenbat orduz egiten duten lan langileek;zenbat energia gastatu den; zenbat exportatzen den...) programazio lineala erabiltzen bada, gizarte-akordio baten bitartez finkaturiko helburu-zerrenda ponderatuari dagokion industri sektoreen egitura ezinobea ondoriozta daitezke.

(1) S.E.B.B. 1; 14-15 orr. / Garaialde eta Llorens; 50 orr. / Trikuharri/...

Adibidez, Euskal Komunitate Autonomoan orain dagoen industri sektoreen egituratik abiatuz Garaialde eta Llorens-ek ezarritako helburuen zerrenda ponderatuen arabera industri adar bakoitza zer neurritan komenigarri den eta zer neurritan ez ondoko bigarren laukian ikus daiteke:

## 2. LAUKIA: LEHEN FINKATURIKO HELBURUAK LORTZEKO SEKTORE BAKOITZEKO EGOKITASUNA

A) Arras komenigarri diren sektoreak
- Plastikozko ekoizkinak
- Oinarrizko kimika
- Metal-landuketa.

B) Nahiko komenigarri diren sektoreak
- Makineria elektrikoa eta elektronika
- Eraldatu kimikoak.

D) Anbiguo diren sektoreak
- Kautxozko ekoizkinak
- Oinarrizko metal-industria.

E) Komenigarritasun gutxiko sektoreak
- Elikadura
- Edariak eta tabakoa
- Zura eta haltzariak
- Papera
- Lur-garraiorako material edo ekaiak
- Makinaria mekanikoa
- Itsas garraiorako ekaiak.

F) Komenigarri ez diren sektoreak
- Ohialgintza
- Larrua, oinetakoak eta jantzigintza
- Buztingintza, beira eta zementua.

Industriaren egitura sektoriala aldatzera zuzendutako egitarauak, ordea, ez dira eskuharki Garaialde eta Llorens-ek azaldutako moldearen arabera eraikiak izaten. Gehienetan industri poli

tika sistema produktiboaren lehiagarritasuna eta malgutasuna eta helburu puntual batzu lortzen saiatzen da baina inoiz jakin edo kalkulatu gabe helburu horien artean dauden kontrajarreren eremua.

Industri politikak besarkatzen dituen alorrak bi multzotan taldeka genitzake: izaera horizontaleko politikak eta izaera sektorialeko politikak. Lehenengoak, haren izaera dela medio, industri sektore denak edo gehienak jotzen dituzte, haien artean bereizketarik egin gabe. Bigarrenak berriz, politika bertikalek alegia, industri adar edo sektore berezi batzu bakarrik ukitzen dituzte. Bigarren talde honetan bi politika-mota bereizi ohi dira:

-Krisian dauden sektoreekiko politika (a.b., siderurgia eta abarrekiko birmoldaketa-politika).
-Erpin edo "punta"ko sektoreekiko politika (a.b., elektronika, informatika eta abar promozionatzeko politika sektoriala).

Lehenengo taldean sar litezkeen politikaz, ostera, ez dago adostasun handirik autoreen artean. Maizenik aipatu ohi direnak hauexek izaten dira:

- Enpresa txiki eta ertainekiko politika.
- Teknologi politika.
- Erregio-politika.
- Enplegu-politika.
- Inbertsio-politika.
- Exportatzailekiko politika.
- Enpresa-antolaera (minifundismoa, espezializazioa...) hobetzeko politika.

Horiez gainera, eta industriarekin duten lotura estuagatik, zenbait ekonomilarik, industri politika aztertzean, ondorengo bi hauek ere ukitu ohi ditu:

- Energi politika.
- Ingurugiroarekiko politika.

Orain arte aipaturiko alor hauek politika industrial positiboa osatzen dute. Baina Administrazioaren izaera positiboko eskusarrera edo interbentzio hauengatik ez-ezik, Europako Elkarte Ekonomikoan egiazta daitekeenez, Administrazioak merkantzien, kapitalen eta langileen higidurari eta ezarkuntzako askatasunari jar diezaiezkeen eragozpideengatik edota finkatzen duen lehiaketa-politikagatik, industriaren efizientzi mailan eragin dezake (1). "La stratégie industrielle de la Communauté Européenne" liburuan adierazten denez: "La constitution d'un cadre économique d'ensemble favorable au développement d'une industrie efficace et dynamique tel qu'il a été décrit précédement (hau da, lehen aipaturiko "lau askatasun"en, lehiaketa-politika egoki baten, eta abarren bidez osaturiko koadro ekonomikoa) est absolument fondamentale" (2).

Espainian ere, García Egocheaga-k, De la Dehesa-k eta bestek, eskusarrerazko iharduerekin batera joan beharko luketen jareintasunezko ihardueren premiaz behin baino gehiagotan mintzatu izan dira, jareintasunezko politika hau industriaren malgutasun, dinamikotasun eta sormenaren ezinbesteko baldintzatzat jotzen dutelarik.

Iharduera mota hauen adibideak, Espainiako kasuan, Industri ezarkuntza eta zabalkuntzarako legeen deuseztapena, enpresen bategite eta zatiketei buruzko araugintza eta abar izan litezke. Garcia Egocheaga-k gai honetaz zihardueIarik, honela laburbiltzen zuen arazoa: "Los problemas de ajuste o las políticas de ajuste del medio plazo requieren en nuestra opinión dos tipos de actuaciones. Unas son actuaciones de liberalización y otras son actuaciones de intervención. Las de liberalización consisten en la remoción de los obstáculos y en la ampliación de abanico de oportunidades y de alternativas que necesita la industria o, en otras palabras, la creación o el establecimiento del marco adecuado en el cual la empresa pueda desarrollar su actividad" (3).

---

(1) Documentación Europea; 15-22 eta 27-31 orr.

(2) Documentatión Européenne; 37 or.

(3) Garcia Egocheaga, Romeo eta Salaberri; 26 or.

Zer esanik ez, politika industrialeko alor hauek burutzeko Estatuak erabiliko duen tresneria anizkuna da. Batzuek gastu-aurrekontu publikoan isladapen zuzena dute: subentzioak, zergarinketak, kreditu pribilegiatuak, Gizarte-Segurantza eta Hazienda-rekiko zor-ordainketen luzapena...(1). Beste batzuek, berriz, ez: hor daude esaterako Gobernu batek araugintzarako,erakundeen garapenerako eta gestiorako duen ahalmena (a.b. Aurrezki-Kutxak arautzeko edo merkatu indarrak liberaltzeko dituen ahalmenak) (2). Politika industrialeko alor bakoitzean berari hobekien dihoazkion tresnak erabili beharko dira (a.b. erpineko sektoreak sustatzeko Gobernuaren erosketa publikoek txit aukerakoak dirudite) eta besteak baztertu edo neurri apalagoan erabili

Azken finean, industri politikan gaurregun bi alderdi edo ekitaldi bereiz daitezke: 1) hertsiki industri birmoldaketako politikatzat jo daitekeena, hots nazioarteko ekonomi ingurumaren baldintza berriei doitzeko krisitango sektoreen barne-berregituratzeko prozesua; eta 2) giza eta finantz baliabideen bideraketa etorkizuneko produkzio-hilara eta sektoreetarantz, zeinek produkzio-iharduera berrien eragintzarako estrategien harrera galdatzen bait du.

Bi alderdi hauek, alabaina, ez daude banandurik; haien artean lotura bat dute. Lehenengo alderdia, krisitango sektoreen barne-berregituraketa alegia, derrigorrezko baldintza da produkzio-iharduera berrien indartze eta garapena ahalbideratzeko behar diren baliabideak jaregin daitezen. Adibidez, egun eraginkorrak ez diren enpresak sostengatzera (Sagunto etab.) doazen finantz baliabide ugariak, birmoldaketa aurreratu-ahala, etorkizun argiago duten produkzio-hilarako inbertsio-projektuen eragintzarako erabilkizun geldituko lirateke; bestalde, krisitango sektoreen berregituratzeko prozesuak haien produkzio-aktiboak berri daitezen inbertsio-plan handiak eskatuko ditu, zeinek ekipamendu berrien sektore hornitzaileentzat eragin galanta izango bait dira. Gainera, iharduera produktibo berrien potentziatzea ez da mugatuko orokorki etorkizunekotzat jotzen diren sektoreetara bakarrik; birmoldatzen ari diren sektore batzuren produkzio-hilara batzuk (e.b. altzairu berezietan) etorkizun argia izan dezakete.

---

(1) S.E.B.B. 1; 14 or.
(2) Gallastegui eta Urrutia; 44-45 or.

Gorago azaldu dugunez, iharduera produktibo berrien eragintzarako politikak industri politikaren zedeak gainditzen ditu. Alde batetik iharduera produktibo berri batzu industri sektoretik at (hots, nekazaritzan,zerbitzuetan...) egon daitezkeelako; bestetik eragintza hori lortzeko politika industrialetik kanpo dauden ekintzak (finantz sistemaren berritzea, lan-kontratuen malgutzea ...) egin daitezkeelako(1). Orain arte, ordea, espainiar gobernuen ardura industri birmoldaketan jarrita egon da (beroni behar den bezala heldu ez badiote ere) eta bigarren alderdia,hots etorkizuneko produkzioetako sektoreetaranzko giza eta finantz baliabideen bideraketa ahaztuta samar egon da. Hori dela eta Espainian aplikaturiko birmoldaketa-politikaz ihardungo dugu nagusiki guk ere hurrengo orrialdeetan.

## 2. ESPAINIAR BIRMOLDAKETA-POLITIKA

### 2.1. ENPRESAZ-ENPRESA ERAMANDAKO BIRMOLDAKETA-POLITIKA

#### 2.1.1. Ekonomi hazkundea eta industri politika 1977 arte.

Frankismotik iritsi zaigun produkzio-egiturak 60 urteetako hazkunde-tasa distiratsuaren azpian desoreka eta arazo larriak gordetzen zituen:

1.- Lehen sektore (nekazaritza eta) ez zegoen nahiko garatu eta dibertsifikaturik.
2.- Industri sektoreak oso era desberdinean garaturik zeuden: azkeneko industriak erruz; baita zenbait oinarrizko ere; baina bitartekoak arras gutxi. Hortik, hain zuzen, bitarteko ekoizkin hauen inportazio larriak. Gainera espainiar ekonomia espezialdu zen adarrak kapital-intentsibokoak ziren (erlatiboki lanpostu gutxiren sortzaile), eta enpresa exportatzaileek, beren ekoizkinak produzitu ahal izateko, inportazio eskergak behar zituzten eta lanesku gutxi.
3.- Sektore publikoa guztiz txikia eta gaizki orekatua zen, batez ere zerbitzu kolektibo, ondasun publiko eta inber

(1) Ministerio de Industria y Energía; 223-226 orr.

tsio-gastuei zegokienean.

4.- Ez zegoen ez teknologi politika ez teknologi sektorerik.

5.- Energi kontsumoaren zarrastelkeria ikaragarria zen.

6.- Espainiar estatuko lurraldeen artean ezberdintasunak arrunt nabarmenak ziren .

7.- Enpresen tamaina, merkatua, finantzapena... txit desegokia zen (1).

Hala eta guztiz ere, metapen-prozesua bizi-bizi mantentzen zen zeren mundu eta barne-baldintzak guztiz aldekoak bait zituen. Hor zeuden akats horien konpentsatzailetzat turismoa, atzerri-inbertsioa, emigranteen diru-bidalketak...(2).

Estatuaren politikak, espainiar sistema produktiboaren ezpezialtzea areagotu besterik ez zuen egiten (3). Segura-k ongi dionez "la lógica de la intervención no responde a criterios de selectividad de sectores estratégicos para un desarrollo equilibrado ni tampoco a criterios de facilitar el ajuste a las condiciones internacionales a través del mercado" (4). Horregatik espainiar ekonomiaren hazkundea programatua eta sektore publikoak bereiziz gidatua denik ezin esan daiteke.

De la Dehesa-k ere honela dio: "Esta fuerte expansión se apoyó no tanto en una política industrial dirigida y articulada a estos efectos sino en la combinación temporal de una serie de factores impulsores y permisivos de caracter externo como interno (a.b. lehen aipaturiko emigranteen diru-bidalketak, atzerri-inbertsioak ...)... (eta beste orrialde batetan)... Tal vez no sea acertado hablar de la instrumentación de una nueva política industrial habida cuenta de que no es posible asegurar que existiese anteriormente una actuación coordinada y coherente, en cuanto estructurada en base a una jerarquización de fines objetivos e instrumentos que definen a una política industrial. Han existido evidentemente una serie de instrumentos y de acciones tendentes a la promoción sectorial o espacial de nuestro sector industrial pero que en modo alguno me atrevería a asegurar que constituyen una auténtica política industrial. La definición de la política industrial del

(1) Segura 2; 311 or./ Izengabea 1; 25 or.
(2) De la Dehesa 1; 209 or.
(3) Braña; 479 or.
(4) Segura 2; 306-307 orr.

país y los métodos de actuación al respecto seguramente ha correspondido más al ministerio de Industria con un caracter de policía y de control sectorialmente coordinado que como inspirador de una auténtica y definida política industrial" (1).

Industriari emandado laguntzak ugariak ziren. Honela sailka litezke programen arauera:

1) Ikerketa eta garapenerako sustapena
2) Industrien baimen-ematea, zabalkuntza eta lekualdatzeak
3) Lehentasunezko intereseko enpresak
4) Garapen-ardatzak
5) Lehentasunezko kokatze industrialeko lekuak
6) Lehentasunezko kokatze industrialeko poligonoak
7) Lurralde-programa bereziak
8) Ekintza Hitzartuko programak
9) Birtaiutze eta berregituratzeko programak
10) Enpresa-kontzentrazio eta elkartzea
11) Exportatzaile-gutuna(2).

Hala ere, arestian emandako arrazoiengatik, ezin esan daiteke politika industrial koherenterik zegoenik. Horren frogabidea 4, 5, 6 eta 7 politikek eskaintzen digute: horien aplikazio dela eta, espainiar estatuko edozein tokitan (Bizkaia, Gipuzkoa, Bartzelona eta Madrilen izan ezik) ezartzen den zeinnahi enpresari Estatuak mozkin batzu eskaintzen dizkio, horrela erregio-garapeneko politika honen eraginkortasunaren derrigorrezko baldintza (alegia, Estatuaren eskusartzea zentratu behar den eremu geografikoaren aukeratze zorrotza) eragozten delarik(3).

Beste aldetik, Bilboko Bankuaren azterketa-taldearen aburuz, orduko industri ekintza sektorialen eta oraingoen artean bi funtsezko desberdintasun dago: a) ekintza hitzartuak, ekonomi hazkunde bortitzak ekartzen zituen arazo eta galdakizunei aurre egitearren eratu ziren; aitzitik, zenbait sektoretan agertzen diren ekoitz ahalmeneko gehiegitzak dira birmoldaketa-politika sektoriala ezarritako denboraldiaren ezaugarri bereizgarria.

(1) De la Dehesa 1; 208 eta 212 orr.
(2) Braña; 298 or.
(3) S.E.B.B. 2; 43 or.

b) Bigarren desberdintasuna batzuetan eta besteetan erabili diren jokabide eta neurriei dagokie. Ekintza Hitzartuetan orduko finantz sistemaren ezaskitasuna dela bide, hitzarturiko sektoreetara bideratzen ziren baliabideak finantzbideko zirkuito pribilegiatuen bitartez joaten ziren; birmoldaketa-planetan, ostera, lehentasunezko finantzapenezko baliakuntza askoz txikiagoa da eta, oro har, korritu-tasa eta iraunepeak ez dira lehen bezain pribilegiatuak(3).

Estatu frankistaren politika industrialak ez ebatzitako produkzio-egituraren hutsunei eransten badizkiegu izaera instituzionalezko beste ezaskitasun batzu (esaterako: a) Estatuaren zein industriaren finantzapen makurra sistema fiskal eta finantzarioaren desegokitasuna dela kausa; b) enpresa publikoaren berregituratu beharra; d) gastu publikoaren kontrol eza; e) lan-erlaziozko lege-ingurumari aukerakoaren gabezia...) eta mundu-krisiaren faktore orokorrak (inportaturiko lehengaien garestitzeak erakarritako gure elkarganbio-erlazio errealaren aldaketa bizi eta iraunkorrak; nazioarteko kapital-merkatuen korritu-tasen igoera; garabidetango herrialdeen lehiaketa bortitza; kanpo-merkataritzako babeskuntzaren areagotzea; produktuen mundu-eskariaren egituraren aldaketa...) aisa ulertu ahal izango dugu espainiar ekonomiko krisiaren larritasuna.

Akats hauei aurpegi egitera zuzendutako politika ekonomikoaren premia ezin nabaria zen. 1977ko hauteskundeak arte,ordea,ekonomi agintariek ezin harrigarriagozko ezjakintasuna erakusten dute krisi sakon eta iraunkorraren izateaz (itsutasun horrekin zerikusia izan lezaketen arrazoi politikoez aparte). 1977ko Moncloako paktua arte itxoegin beharko da krisiaren kontrako lehenengo talka-tratamendua eman zedin. Hala ere, itun honetan errenta, moneta eta ganbio-politika zorrotzak martxan jarri baziren ere, ez ziren gauzatu beharrezko ziren beste berriztapen eta erreforma batzu (sistema fiskalarena, Gizarte-Segurantzarena, industri politikarena, lan-merkatuarena, energetikoa...), beste arrazoien artean, enpresari tradizionalen eta ahaltsuenak horiek eragoztea erabaki zutelako (2).

(1) S.E.B.B. 2; 43 or.
(2) Segura 2; 308 or.

Industri arloan krisiari nolabaiteko sakontasunez heltzeko egindako bigarren saioa industri birmoldaketarako politika da (1), eta honetaz arituko gara, batik-bat, hurrengo orrialdeetan.

## 2.1.2. Enpresaz-enpresa buruturiko birmoldaketa.

Berrikitan agertu dugunez, krisiaren kontrako neurriak Espainian berandu eta ikuspegi orokorrik gabe hartzen hasi ziren. Birmoldaketakoez beste horrenbeste esan dezakegu. Europako Elkarte Ekonomikoan untzigintza, siderurgia eta ohialgintza sektoreei buruzko neurriak hartzeari 1974 eta 1975ean ekin bazioten ere, Espainian izaera sektorialeko ingurumari orokor erregulatzailea 1981ekoa da (2). Data hau baino lehenago sektore batzutan zenbait laguntza emanak ziren (a.b. Siderurgia osatuari eta untzigintzari 1978an, siderurgia osagabeari 1980an) baina ez zuten hauek sektore horien birmoldaketa gogoan baizik eta sektore horietako berehalako porrotari itzuri egiteko hartutako neurriak ziren, petatxo hutsak alegia.

Egia esan birmoldaketak sektore oso bat har zezan ahalegin kontraesankorrak 1981 baino lehenagokoak dira. Adibidez UNESIDek 1978ko urteroko txostenean siderurgiari buruz egondako eginahal ofizial batzu aipatzen ditu: "urte horren bigarren erdia ezkeroztik berregituratze-plan baten posibilitateaz pentsatu zen, haren oinarrizko premisatzat enpresa integralen derrigorrezko osasunketa seinalatzen zelarik" (3). Halaber 1979ko abuztuan onarturiko (GEP) Gobernuaren Ekonomi Egitarauean, krisitango industri sektoreen osasunketa eta berregituraketa aipatzen ziren politika ekonomikoaren oinarrizko alderdien artean, eta honek, UNESIDen irudiz, "siderurgiarentzat berealdiko interesa zuen zeren eta GEPren ihardukiera sektore horretara eta untzigintzara bakarrik mugatzen bait zen" (4). 1979an zehar ere, hamaika estudio ondu zen sektore batzuren egoeraz eta berregituraketa burutzeko beharrezko baldintzez.

---

(1) MINER ; 20 or.
(2) MINER ; 39 or.
(3) UNESID ; 8 or.
(4) UNESID ; 7 or.

Dena dela, lehen idatzi dugunez, kontraesankorrak ziren aha legin hauek. Metales y Maquinas-en 620 zenbakiko asteroko gehigarrian Industri ministraritzak zailtasunetan murgildutako Enpresa -Salbamenturako Birmoldaketa Industrialeko Fondo baten sorrera aztertzen ari zela aditzera ematen zuen (hots, "enpresaz-enpresa" birmoldabidea zeukala gogoan, eta ez "sektorekakoa"). Era berean, eta siderurgiari dagokionez, astekari bereko 665 alean azaltzen zenez, Sektore Siderurgikoko Batzorde Sindikala (CCOO, UGT eta ELA-STVek osatua) bildurik zen orduko Industri ministraria zen Carlos Bustelo-rekin, eta Industria Sidero-Metalurgikoko Zuzendari Orokorra zen J. Garcia Egocheaga-rekin izandako elkarrizketak aztertzearren, eta bilera horretan erabaki zuten enpresaz-enpresako ingurumariaren barruan planteaturiko sektorearen arazoen negoziaketei uko egitea, zeren eta aldez aurretik sektore siderurgiko osorako ingurumari orokorra mugatu behar bait zen (alegia, sindikatuek sektore-mailako birmoldaketa nahi zuten bitartean,Gobernuak enpresa-mailakoa aldezten zuen). Eta eginahal horiek are kontraesankorragoak ziren eraman zen egintzari so egiten badiogu.

Izan ere, zenbait enpresatan Rodriguez Sahagun eta Abril Martorell-en eskuetatik eta Estatuaren laguntzaz, birmoldaketa-prozesu batzu burutu ziren. Kasu hauetan birmoldaketa-prozesua ez zen aplikatzen sektore-mailan, enpresa-mailan baizik (nahiz eta behin baino gehiagotan haiek sektore-mailan egin beharko zirela onartu, eta hau egin arteko zubi-laguntzatzat jo beharko zirela aitortu). Enpresa horiek ixteak garai nahasi haietan ekar zitzakeen gizarte-egongaiztasuna eta "igarobide"aren galerazpena izan ziren neurri horiek hartzera eraman zuten arrazoi handienetakoak Corcuera-k edo Alberdi-k aitortzen dutenez (1).

Eskuharki enpresa-birmoldaketa hauetan, Estatuak (KIB) Kreditu Industrialeko Bankuaren bidez ematen zituen oso baldintza oneko kreditu edo mailegu ezohizko batzuren truke (enpresaren biziraupenerako guztiz noraezekoak zirenak) enpresarekin zerikusia edo interesak zituzten indar sozial guztien artean (akziodunak, langileak, harduruak, hornitzaileak...) enpresaren bidegarritasunak berarekin zeraman sakrifizio-eskema (akzio zaharren galera eta kapital berrien ekarpena, alokairu-izozte eta plantilen erre

(1) Marzo(z); 27or. / Maneiro; 40 or.

gulazioa, mailegu eta zorren kitapen eta atzerapena...) eratu eta hitzartu behar zuten.

Birmoldabide honek Kreditu Ofizialari buruzko 13/71 Legeko 37 artikuluan du bere oinarri juridikoa (1) (Lege honetan, Gobernuak garrantzizko ekonomi edo gizarte-arrazoiengatik ematea erabakitzen zituen ezohizko kredituek bete behar dituzten arau eta baldintzak zehatzen dira). Izan ere, geroxeago Nervacero-ren kasuan ikusiko dugunez, KIBak enpresa horien etorkizuna argi ikusten ez bazuen, beste edozein finantzetxeren antzera, ez zen prest egoten mailegurik ematera eta Gobernuak kreditu edo mailegu hori berma zezala eskatzen zuen (hots, mailegua bere garaian itzultzen ez bazen, Gobernuak bere gain har zezala maileguaren kitapena).

Egia esan, ezohizko kredituen emate horrekin produkzio-ahalmenari eta kostu-egiturari zegozkien irtenbideak enpresekin eta langileekin negoziatuak izan ziren, aurreko garaietako nazionalizazio-politikarekin gertatzen ez zen bezala (2). Rodriguez Sahagun-ek, Industri ministrariak, 1978an El Correo Español/Pueblo Vasco egunkarian azalduriko elkarrikuste batean INIk "arrazoi estrategikoak agertzen dituzten enpresetan bakarrik parte hartuko duela, baina ez galeren sozializazioan edo gestio eta konjuntur arazoen ebazketan" zioen, aurreko garaietan eramandako nazionalizazio-politikari uko eginez (3), baina, halaz eta guztiz ere, enpresaka buruturiko birmoldaketa-politika honek akats ugari izan zituen:

- Hitzetik hortzera egin ziren maizenik, ikuspegi orokor eta koherentziarik gabe (4).
- Erizpide politikoz eta ez teknikoz burutuak izan ziren(5), horregatik alde interesatuei eskaturiko sakrifizioak ez ziren aski eta, are okerrago, batzuei eskaturikoa neurri gabea zen besteei eskaturikoaren aldean (6).

---

(1) Solchaga 1; 45 orr.
(2) Bayón; 23 or.
(3) Metales y Maquinas: suplemento semanal. 619 zb.
(4) S.E.B.B. 2; 72 or./CLP 1982; 72 or.
(5) MINER; 197 or./Maneiro; 40 or.
(6) Abad 1; 7 or.

- Berdintasunaren erizpidea hausten zuen (1), eta horregatik sektore bereko enpresa lagundugabeak aurka atera ohi ziren, horilehiaketa desleiala zela esanez (2).

- Enpresa handi eta txikien artean bereizketa eta diskriminazioak egon ziren (3).

- Emandako laguntzen jarraipen eta kontrolik ez zen egon(4).

Enpresakako birmoldaketa-politika honen kontra, kritikak gero eta maizago egiten ziren. Birmoldaketa-politikaren aplikazio--ingurumariak enpresatik sektorera igaro behar zuenik ez zuen ia inork zalantzan jartzen. Enpresakako birmoldaketa-politika aldezten zutenen eritziz Gobernuak birmoldabide horrekin enpresa horiekiko zuen kontrola zorrotzago zen. Ez ziren nonbait ohartzen kontrolaren prozesua beti enpresa-mailan eraman behar dela onura eta onuradunak mugatzeko erabilitako ikuskera zeinnahi delarik ere; aplikazio-ingurumaria sektoreak izan behar badu ere, planen kontrola enpresa-mailakoa dela (5).

Ondorioa ezin garbiago izan da: politika horren emaitzak txiturriak izan ziren. Gehienetan egoera luzarazi eta bake sozial apur bat lortu besterik ez zuten egin. Ia autore gehienengan denbora eta dirua alferrik eralgitako sendimendua aurki daiteke.

Hau honela, birmoldaketa-politika enpresa-mailan aplikatzetik sektore-mailan aplikatzera igaro zen. Hala ere ez erabat. Zen bait jenderen ustez (6) birmoldaketa-politika funtsean sektoreka aplikatzeko bada ere, salbuespenezko kasu batzutan, bai arrazoi sozialengatik bai enpresa baten berezitasun edo garrantziarengatik, sektore baten barruan (7) enpresa batekiko neurriak har litezke. Hori zela eta, 198letik aurrera nahiz eta legeak birmoldaketa sektore-mailan aplikatuko dela esan, "erreminta atipiko"

(1) Bayón; 22 or.
(2) MINER ; 197or./ S.E.B.B. 2; 28 or.
(3) Abad 1; 7 or.
(4) Abad 1; 7 or.
(5) Ortún eta Sanchez-Junco; 67 or.
(6) Garcia Egocheaga, Bayon, Abad, Alberdi...
(7) Fernandez

gisa zenbait enpresatan aplikatuz jarraitu da. Hor daude, adibidez, esandakoaren lekuko GEE,WESA, TALBOT, Real Compañía Austriana eta Standard Electrica-ren kasuak.

2.1.3. Nervaceroren kasua.

Nervaceroren birmoldabidearen azalpena egitean bilatzen duguna zera da: lehen agerturiko birmoldabidea argitu eta birmoldabide horren kritikaren zuzentasuna baloratzeko elementu batzu eskaini.

Nervacerorekin gertatutakoa hobeki ulertu ahal izateko, ordea, 1973 eta 1974ean jazorikoa ezagutu behar da.Garai hartan altzairuko eskaria berebizikoa zen eta Estatuak egindako aurrikustapenetan joera bera agertzen zen. Hori dela eta, 669/1974 Dekretuaren bidez bigarren Ekintza Hitzartuari ekin zitzaion: enpresek beren lantokien zabalpen eta berriztapen-planak Gobernuari erakusten zizkioten eta honek onestekotan, beste abantailen artean, haiek finantziatzeko kreditu bereziak ematen zizkien.

Garai hartantxe azaldutako krisi gogorraren aurrean nola Gobernua hala enpresa asko itsu samar agertu ziren. Banaka batzuk merkatuaren atzeraldia ikusita, Ekintza Hitzartuari aurkeztutako egitasmoei ezetsi edo uko egin zieten. Beste batzu, aldiz, horiekin aurrera jarraitzen saiatu ziren, hauen artean Nervacero zegoelarik. 1982ko azkenean Siderurgia osagabeko sektorearen ekoizpen-ahalmena 6 miloi toneladatakoa zen; ekoizkin luzeko espainiar merkatua, ostera, 3'2 miloitakoa. Ekoitzitakoa saltzeko, beraz, problema latzak zeuden.

Lehen aditzera emandakotik ondoriozta daitezkeenez, sektore honetako enpresen egoera ez zen kasu guztietan berdina.Inbertsio eta zabalkunde-planei ekin zietenak instalazio berriekin baina finantz egoera ezin txarrago batean aurkitzen ziren; besteak, aldiz, instalazio zaharkitu eta ezegokiez baina finantz arloa osasuntsu eta errentagarri izanez. Hona hemen sortzen den arazoa: zer egin behar du Estatua: sektorearen bilakaera merkatuaren es-

kuetan utzi (eta orduan instalazioak zaharkiturik baina baliabi de eta gordailu aski duten enpresak bakarrik salbatuko dira, on dorioz sektorearen epe luzeko etorkizuna hipotekatzen delarik) edo eskusartu eta sen gutxiko enpresei lagundu, zuhur izandakoen kaltetan?. Sektore-mailan oraindik ebatzi gabe dagoen arazo hau, Nervaceroren kasuan ere agertzen zen. Nervaceroren instalazioak arras modernoak ziren, baina bere finantz egoera guztiz hondaga rria.

1979an, Ekintza Hitzartua zela medio, eraikitako instalazio berriak funtzionatzen hasiko ziren Sidegasan,Nervaceron eta Torras-en, "borobil"en produkzioa handituz eta exportatzera behartuz. Nervacero, ordea, lehen esan dugunez, finantz alorrean kinka larriak igarotzen ari zen. Horrek eraman zuen Forjas Alavesas-ekin tratu bat egiten saiatzera: Nervacerok bere akzioeta tik % 50 emango zion Forjas Alavesas-i, eta honek, horren truke, zeuzkanetatik % 10 Nervacerori. Azkenean, horregatio, ez zen tratua zertu; Forjas Alavesas-ek projektuari uko egin zion 1979ko bukaeran (1979ko Azaroaren azkenaldian amaitzen zen Forjas Alavesas-ek erabaki hartzeko zuen epea) eta Nervacero finantz arazoek itota gelditu zen.

Nervacerok krisi-expedientea ireki, aparteko kreditu ofizia la eskatu eta lantegia 1979ko Abenduan itxi egin zuen.ASFIN kon tu-ikuskariak bidegarritasun-estudioa egiten du eta positiboa eman. Estudio horretan oinarriturik 1980ko Maiatzean hitzarmen batetara iritsi zen Enpresako Zuzendaritzaren, Akziodunen, Bankuen eta langileen artean, hitzarmen hori (KIB) Kreditu industrialeko Bankuaren 1050 miloi pezetako kreditu baten emateari baldintzapetua zegoelarik. Hitzarmen horretan, alde bakoitzaren sakrifizioak honoko hauek ziren:

- Hornitzaileek beren hartzekoak urtebete edo bi urte (zorraren tamainiaren arabera) atzeratuko zituzten.

- Finantzetxeek (Central, Hispano Americano, Bilbao eta Vizcaya Bankuak eta Bizkaiko Aurrezki-Kutxak) 1200 miloi emango zuten 1980an eta 500 miloi 1981ean.

- Akziodunek, akzioen "eskubide politiko"etatik % 51 profesionalez osaturiko kontseilu baten eskuetan lagako zuten eta akzioetatik % 35 Administrazioak sektore osorako burutu beharko zuen berregituratze-planaren arabera utziko zuten.

- Langileek % 8ko hazkundeko alokairu-izozketa onartzen zuten.

KIBaren kreditua eskuratzeko unean agertu ziren lehenengo zailtasunak. 1050 miloi horietatik 371 miloi Industri ministraritzak bigarren Ekintza Hitzartuaren barruan egindako inbertsioentzat irekitako kreditu-hilara berriaz finantziatu behar ziren baina lehenago Ministraritzak enpresak egindako inbertsioak onetsi behar zituen. Gainerako 679 miloiak KIBak eman behar zituen. Horietatik 200 Ekainean bertan eman zituen (Arbulu familiak enpresan zituen akzioetatik % 100 kontseilu berriari egin beharreko lagatze iraunkorrari baldintzapetua) eta gainerantzeko 479ak auditoria eta enpresako bidegarritasun-plana eginak izatean emango zituen.

479 miloitako bigarren kreditu hau, ordea, KIBak ukatu egin zion Nervacerori "berme eta arrisku-baldintzak ez betetzeagatik" eta enpresa honetarako proposaturiko salbamendu-plana bideragarritzat ez jotzeagatik; KIBren eritziz "horrekin ez zen deus ere ebazten eta dirua lurperatu egiten zen". KIBeko kontselariek adierazten zutenez, "arrazoi politikoengatik Gobernuak enpresa hauek lagundu nahi bazituen, 37 artikuluaren bidea erabil zezala, huraxe bait zen herstura-kasuetan enpresei laguntzeko eratutako sistema".

Izan ere, KIBak alde horretatik, kreditu-eskaera baten aurrean edozein finantzetxek bezala jokatzen du: enpresaren martxa eta etorkizuna argi ez dagoela ikusten badu, kreditua ukatu egiten du. 13/75 Legeko 37 artikuluaz baliatuz, Ministrari-Kontseiluak krisitango enpresa bati aparteko kreditua ematea erabakitzen badu (eta bermatzen badu), ordea, KIBak ez du eragozpenik jartzen hura emateko, zeren eta enpresak porrot eginik ere, dirua Aurrekontu Publikotik itzuliko zitzaiola bait daki.

Bi irtenbide zeuden orduan: edo ordainketa-etendura edo Gobernuaren erantzunkizun zuzenaren pean aparteko kreditua.

Bitartean Nervacero Gobernuarentzat arazo politiko bihurtua zen. Langileen ekintza errebindikatiboak gogorrak ziren:Urtarrilaren 16an Bilboko Burtsaz jabetu ziren; Martxoko 12an Bilboko Udaletxeaz, Ekaineko 26an Bizkaiko Foru-Aldundia hartu eta trafiko-etendura ugari egin zuten; Lan eta Industriako kontseilariak beren bulegoetan izan zituzten...

Azkenean Gobernuaren jarrera ondoko hau izan zen: Abril Martorellek aparteko kreditua eskaini zion enpresari, baina horren truke, langileen sakrifizioak areagotzen zituen. Plan horren arabera Nervaceroren ekoizpena handituko litzateke (helburu hau zenbait jakitunen irudiz guztiz utopikoa zen eta are gehiago merkatua orduan txartzen joateko hartzen ari zen itxura ikusita) laukian ohar daitekeenez; alokairuak jaitsi, 1978an kobratzen zirenen mailara, beste enpresetakoekin parekatzeko (Nervaceroren alokairuak batezbeste 1.600.000 pezetakoak ziren, sektoreko beste enpresetakoak 1.200.000 pezetakoak ziren bitartean); 1981 eta 1982an alokairuak % 4 igo; iraizpen gabeko lanpostu-malgutasuna (behin-behineko erregulazioak eta barne-higikortasuna); etab.

| | 1979 | Planean aurrikusia |
|---|---|---|
| Ekoizpena | 290.000 Tn. | |
| . Exportazioak | 160.000 Tn. | 190.000 Tn. |
| . Barne-merkatua | 130.000 Tn. | |
| . Barne-merkatuaren portzentaia | %14 | %18 |

Langileek, ostera A. MArtorellen plana errefusatu zuten. Haien nahierak zera ziren: orduko alokairuak mantendu;198lean % 4 igo eta enplegu-erregulazioetan seguruak % 95 ordaintzea.

Azkenean erdibideko plana onartu zen: 1980ko langile-alokairuak 1979koak izan ziren, 198lekoak %4 handiagoak, eta 1982koak

Mario Fernandez epailea izanik negoziatuko ziren; laugarren txanda onartzen zen; halaber plantilen doikuntza (hots, behin-behineko enplegu-erregulazio eta barne-higikortasuna); baita bake soziala, agintaritza eta ordena ere;... Eta horrekin batera Gobernuak bere burua lotzen zion KIBaren bidez 1050 miloitako aparteko kreditua emateari, enpresaren jabetzaren arazoa ebazteari eta Administrazioko berezilariek berek ondutako bidegarritasuneko planean beharrezkotzat jotzen ziren finantz laguntzak bankuekin zuzenean negoziatzeari (bidegarritasun-planaren arabera, paktatutako kreditua 4500 miloi pezetakoa zen).

KIBak 1980ko Abendurako Nervacerori 1100 miloi pezeta emanak zituen (ekainean 200; irailean 300; urrian 300; azaroan 250; eta abenduan 44) ondoko baldintzez: hiru urtez interes-ordainketaz gabetua, amortizazioa 10 urtetan, urteko korritu-tasa % 11, eta Ballonti eta Repelago lantegien gaineko hipoteka.Bankuetxeek, aldiz, ez zuten fitsik ere eman, eta Nervacero 198leko Martxorako berriro kinka larrian zegoen eta ordainketa-etenduraren zorian (ekoizpena 1980ko abendutik partzialki geldituta zegoen eta 1981-eko martxotik osotara).

Hau honela, Ekaineko 6an Espainiako Buletin Ofizialean Merkatal eta Ekonomi ministraritzaren agindu baten bidez, Nervacero ri emandako kreditu berezia zabaltzen da: kreditu osagarria 2000 miloi pezetakoa da. Zenbait jakitunen eritziz, alabaina, kreditu hura adabaki bat besterik ez zen: "eskariarekiko eskaintza handiegia baldin bada, irtenbidea krisitango enpresa batzuren behin-behineko ixtea da, Nervacero eta Sidegasa berak adibidez".

Nervacero enpresak A. Martorellekin negoziaturiko aurreko planaren helburuak lortzen ez zirela ikusiz, bidegarritasun-plan berri bat 198leko Irailean aurkezten du. Plan horren arabera,ekoitzitako produktu amaituak (300.000 Tn. borobil) exportatuko ziren eta lingotea (138.000 Tn. altzairu baliokide) Bizkaiko Labe Garaientzat (hauek, berriz, ez zituzten lingote horiek nahi eta are gutxiago Nervaceroren jabetza haien eskuetan hartu, Nervacerotik iradoki eta proposatzera iritsi zen bezala) eta bere talde

ko enpresentzat izango ziren. Era berean 198 lanpostu galduko ziren eta instalazio batzu betirako geldiaraziko lirateke. Horretarako Gobernuak eta Bankuek aurreko planean paktaturiko 4.500 miloi pezetaraino falta ziren kantitateak eman beharko zituzten.

Haatik, langileek ez zuten onartu iraizpenik berarekin zekarren bidegarritasun-planik.

Nervaceroren bidegarritasun-plan hori aurkeztu eta pixkat ondoren altzairu arrunteko siderurgia osagabeko enpresek Industria Sidero-Metalurgikoko Zuzendaritza Orokorrari erantzunik jaso ez zuen berregituratzeko plana aurkezten diote. Sektoreko enpresen ustez, enpresa indibidualeko laguntzetara jotzen duten irtenbide partzialak kaltegarriak dira.

1982ko Otsailaren 2an, Industri ministraritzak eskaturik, IDOM kontu-ikuskariari, Nervacerori buruzko txosten berriaren burutzapena enkargatzen zaio. IDOMen azterketaren arabera, "borobil"en ekoizpena 288.460 toneladakoa izango zen eta "palanki la"rena 133.383 (azken hau Bizkaiko Labe Garaientzat izango zen, horretarako honekin adostasunera iritsiz gero). Bidegarritasun--plan berri honetan, bestalde, langileekiko hiru aukera eskaintzen dira: lehenengoan 304 lanposturen galera proposatzen da (plantila 931koa zen); bigarrenean 424koa; eta hirugarrenean 417koa, IDOMek lehenbizikoari egokien deritzolarik.Instalazioei dagokienez, labe elektrikoetan inbertsio berriak aholkatzen baditu ere, Repelaga plantaren ixtearen alde agertzen da; haren irudiko, Ballonti planta bakarrik funtzionatzen jarri beharko zen. Enpresaren jabetzari buruz, IDOMen irudiz, behin Nervaceroren pasiboa osasunduz eta enpresa funtzionatzen jarriz gero,sektoreko beste enpresa baten edo batzuren eskuetara igaro behar zukeen horrela Nervaceroren ekoizkin merkatua dibertsifikatzeaz gainera, haren baliabide ekonomikoak handituko ziren, salmenta--sarea indartu eta sektoreko berrigituratzeko planetan, handik denbora laburrera eramatekoak, sartzeko errazago izango zen.Atzerritar talde baten eskuetan gelditzeko posibilitatea ere ez zen errefusatzen. Hornitzaileekiko, zorretatik % 50eko kitapena pro-

posatzen zuen eta gainerako % 50 bost urtetan ordaintzea interesik gabe. Banku pribatuek, era berean, 1000 miloitako kitapena egin beharko zuten.

Bidegarritasun-plan honen gainean Industri eta Energi ministraritzen eta sindikatuen artean elkarrizketatzeari ekin zioten atarramendu onik gabe. Bestalde, ministraritzaren asmoak argituz zihoan: Nervacero altzairu arrunteko birmoldaketa-planean sartzea (birmoldaketa-dekretua 1982ko Maiatzean argitaratzen da Buletinean) eta (UCEM) Union Cerrajera Nervaceroz jabetzea. UCEMek, horregatio, ekainean saloari uko egiten dio. Hala ere ministraritzak ez du etsitzen eta langileek eta enpresak bidegarritasun-plan berri bat burutzen duten bitartean (plan horretan langileen gehiegitza 234 lanpostukoa jotzen da -haiei neurri ez traumatikoak aplikatzea erabakitzen zelarik- eta ekoizpena 288.000 tn.borobil eta 126.000 tn. palankilakoa) Nervacero UCEMen eskuetara 1982ko Abenduan igaro dadin erdiesten du (UCEMek Nervacero erosten du "akzio bakoitzeko pezeta bat" prezio sinbolikoa ordainduz), elkarte hori ahalbideratzeko diru-mordoa eskaintzen duelarik.

Izan ere, altzairu arrunteko siderurgia osagabeko sektorea birmoldaketa-dekretuan azaltzen diren baliabide urrietatik gehienak UCEM eta Nervaceroren eskuetan ipintzen dira. Eta dekretuaren baliabideak gutxi jotzen direnez gero, hasierako kopuruak gehitzen dira UCEMen Nervaceroren jabetzea erraztearren (honez gainera, Nervacerok eta UCEMek Gizarte-Segurantzarekin zituzten zorren atzerapena eskaintzen zaie; 1980 eta 198lean Nervacerori emandako 3.100 miloitako kreditua aldatzen da -amortizazioa 20 urtetakoa bihurtuz, lehendabiziko zortziak gabetuak, eta korritua % lekoa- eta UCEMek ekintza hitzartuetan harturiko kredituen 1982, 1983, 1984 eta 1985eko mugaegunak 1991, 1992, 1993 eta 1994era igarotzen dira).

Siderurgia osagabeko sektorearen birmoldaketarako aurrikusitako laguntzen banakuntza

| | Aurrikusitako subentzioak | KIBaren kredituak |
|---|---|---|
| Nervacero | 1.600 | 2.500 |
| Unión Cerrajera | 500 | 1.000 |
| Sektoreko gainerako empresak | 2.400 | 6.700 |
| Sektoreko birmoldaketa-planean aurrikusitakoa | 4.500 | 10.200 |
| Nervaceroren erosketa errazteko | 1.850 | 3.000 |
| Sektoreari guztira emandako laguntzak | 6.350 | 11.350 |

Esan beharrik ez, beste enpresentzako birmoldaketa-baliabideak berehalaxe agortu zirela eta beren berregituraketa egin ahal izan gabe gelditu direla. Horrek eta Nervaceroren erosketa errazteaarren emandako laguntzak banakako neurriak izateak, hots sektore osorako eraturiko birmoldaketa-prozesutik at egoteak, beste zenbait enpresaren haserre bizia sorterazi zuen. SIDERINSA izeneko enpresa-elkartearen barruan dauden enpresek Zuzenbide Administratiboko katedratiko den Jesús Gonzalez Perez-i egindako kontsulta edo itaunketari honek emandako ihardespenari darionez, Gobernuaren Ordezko Batzordeak Nervacerori buruz harturiko erabakiak antikonstituzionalak (berdintasunaren eta objetibitatearen jomugak hausteagatik) eta legez kanpokoak (industri birmoldaketako mozkin emateari buruz indarrean dagoen araugintza ez betetzeagatik) dira, eta haien kontra errekurtsoak altza litezke.

Hau honela, 1983an Nervaceroko instalazio batzuk martxan jarri ziren berriro ere, 1981etik zetorren enpresaren erabateko geldialdiari bukaera ematen. Azken datuen arabera, badirudi ekoizpen-aurrikustapenak eta motz gelditu direla eta Iraileko uholdeak gorabehera (artezki ez, baina horniketen etenduraren bidez ekoizpena jo zutenak) produkzioa aurrikusitakoa baino % 15 handiagoa

izan dela. Salmentak ere, Otsailetik Abuztura 2.349 miloi pezetakoak izatea arrikusia bazegoen ere, 3.08lekoak izan dira (gehienak exportazioak). Egindako finantz aurrikustapen guztiak bete omen dira oraingoan. Langileen kopurua Otsailean 990ekoa baldin bazen (1982ko 934eko kopuruari, epai judiziala dela bide, Galindo Eraikuntzako 60 langileak erantsi zitzaizkion), boronda datezko murriztapenen bidez 800era jaitsi zen, eta hórietatik 200 enplegu-arauketan dago (bidegarritasun-planaren arabera orain dik 80 langileko gehiegitza dago). Era berean, UCEM eta Nervacero roren elkarte eta birmoldaketa-prozesuak zirela medio eskuratu ziren baliabideak banku eta hornitzaileen eskaeretatik babestearren burutu zen ordainketa-etendura altxatzekotan daude 1984ean eta horretarako batzuekin eta besteekin akordio batzutara iristekotan omen daude (datu hauek 1983ko irailekoak dira).

## 2.2. BIRMOLDAKETA-POLITIKA SEKTORIALA

### 2.2.1. Birmoldaketa-Legea: sorrera eta edukina.

Birmoldaketa sektoreka burutu behar zeneko ideia gero eta zabalduagoren gauzatze edo konkretizazioa 2200/80, 2206/80 eta 878/81 Errege-Dekretuetan kausi daiteke; Errege-Dekretu hauetan hilara zuriko elektratresnako sektorea, altzairu berezikoa, eta siderurgia osatukoa birmoldaketan aldarrikatzen dira. Edozein moduz ere, argi dagoenez, birmoldaketa-premia ez zen sektore hauetara soil-soilik mugatzen eta koherentzia, homogeneitate eta objetibitate apur batez jokatu nahi bazen, kasu guztietan jarraitzeko erreferentzi puntua finkatu beharra zegoen, hots, birmoldaketa-legea.

Calvo Sotelo Suarez-en tokian eta Bayón Abril Martorell-enean jarri ondoren hasten dira lehendabiziko ahalegin serioak birmoldaketa-prozesuari sektoreka, eta ez enpresaka, heltzeko (1). 198leko Martxoan Ministrari-Kontseiluak krisitango sektoreen industri birmoldaketa aztertzeko ministraritzarteko Batzorde baten sorrera onartzen du. Zegoeneko Industri ministraritzak krisitango sektoreen birrindustrialkuntzarako arau-aurreprojektua

(1) Fernandez, J.

ondua zuen. Lege-dekretuz onartu beharko zen aurreprojektu hau hiru atalburutan banatuta zegoen:

1.- sektoreen birmoldaketa eta berregituraketari zegokiena;
2.- enplegu eta inbertsio-sustaketarako neurriez ari zena;
3.- lehentasunezko izaera eta interes teknologikoko sektoren sustaketakoa.

1) Aurreprojektu honen arabera Estatuak krisitango sektoreen birmoldaketari ekin diezaioke. Sektoreen berregiturakuntzaren erabakia dekretuz hartuko da. Dekretu horretan, sektore horretako enpresen ekoizkortasun, ekoizpen eta erredimenduen baldintzak ezar daitezke. Halaber industri berregiturakuntza helburutzat duten elkarteak eraiki daitezke.

Berregiturakuntz elkarte hauen edo industri birmoldaketako prozesuaren pean sartzen diren enpresen alde, ondoko abantail eta neurriak egongo dira:

a) Zerga-hobari edota salbuespenak: lehentasunezko interesezko industri sektoreenak; berregiturapenerako beharrezko diren ondare-transmisio eta egintza juridiko agiridunen gaineko zergenak; enpresa-kontzentrazioen kasuan bategite, banaketa, elkarte edo taldetzeari buruzkoenak...

b) Neurri finantzarioak: Kreditu Ofizialeko Erakundeak 50.000 miloi pezetarainoko finantz baliabideak eskuratu ahal izango ditu merkatuan birmoldaketa-planetan barne dauden enpresei mailegu ak ematearren.

d) Langile-gehiegitzak: sektorea berregituratzen ari dela aldarrikatzea, lan-erlazioen aldaketa, etendura edo iraungipeneko ahalbidearen arrazoi teknologiko edo ekonomiko erabakitzailetzat jo daiteke. Kasu hauetan berregituraketa onartzen duen lege-dekretuak berak desenplegu-prestazioei eta aldez aurretiko jubilazioei buruzko baldintza bereziak arau ditzake.

2) Inbertsio eta enplegu-sustaketarako neurrien artean, sorturiko enpresa berri txiki eta ertainentzat eta hamar langile baino gehiagoko lantoki banandua sortzen duten enpresentzat, akziodunei korbonik banatzen ez bazaie, eta banatugabeko kantitate hori hurrengo seihilekoan kapital sozial gehitzera zuzentzen bada, sozietate-errentari buruzko zergan edota pertsona fisikoen errentari buruzkoan exentzio batzu eskaintzen dira.

Halaber, luzagarri edo hedagarri den lan-kontratu baten formula ezartzen da.

3) Lehentasunezko izaerako eta interes teknologikoko sektoreen sustaketa-neurrien artean zerga-exentzio garrantzitsuak aipatzen dira. Hiru ziren, birrindustrialtzeko planaren barruan aukeratuak zeuden sektoreak: energetikoa, nekazalelikagintza eta elektronika(1).

Ekonomi ministraritzak, ordea, aurreprojektu hau gogor kritikatzen zuen txostena prestatu zuen. Kritikaturiko puntuak honoko hauek ziren:

- Hizkera-mailan "berregiturakuntza" eta "birmoldaketa" era nahasian erabiltzen dira. Eta nahaste-borraste hori, gainera,"birrindustrialkuntza" berba eranstean areagotzen da.

Ekonomi ministraritzaren eritziz "birmoldaketa" berba "baldintza tekniko-ekonomiko berrietara produkzio-faktor batek duen doikuntzaz" ari garenean erabili ohi da. Sektore-mailan ere erabil daiteke, baldin eta aldaketa batekiko doikuntzaz ari bagara.

"Berregiturakuntza", bestalde, "enpresen produkzio-egitura eraldatzera zuzenduta dagoen, eta produkzio-faktoreen eskuhartzea ukitzen duen, ekintz multzoaz osatuta dago". Hau honela, hobe litzateke, Ekonomi ministraritzaren ustez, berregiturakuntza berba soil-soilik erabiltzea.

- Neurri fiskalei dagokienez, anitz eta konplikatuak direla uste du Ekonomi ministraritzak. Exentzioak neurrizgainetik era-

(1) Fernandez, J.

biltzen dira, eta horrek erreforma fiskala galerazteaz gainera, emandako laguntzen zenbatekoa jakitea eragozten du. Hobe da hobariak erabiltzea (hots, enpresek zerbait ordaintzea) eta izaera orokorreko neurri fiskalez baliatzea (horretarako subentzioak erabili beharko balira ere).

Bestalde kontutan hartu behar da neurri fiskalek konjuntur arazoetan eraginkortasun handiago erakusten badute ere, finantz neurriak egokiagoak direla egiturazkoetan. Hori dela eta, neurri finantzarioak hobetsi behar dira fiskalen kaltetan.

- Finantz neurrien kontuan (KOE) Kreditu Ofizialeko Erakundearen baliabideak bakarrik aipatzen dira. Ekonomi ministraritzaren irudiko, aldiz, banku pribatuen eta aurrezki-kutxen diruak ere erabili behar dira, zeren eta KOEaren 50.000 miloi pezetako kredituak ez lirateke aski izango. Hori lortzearren, finantzetxe hauen korritu-tasa aurrekontu-subentzio baten bidez konpentsa liteke.

Bestalde, krisitango sektoreei emandako mugagabeko euspenak, beste sektoreen etorkizuna, eta beste horrenbeste erdi eperako hazkundea, baldintzatu eta arriskutan jarri egin dezake.

- Lan-neurriez, orobat, Ekonomi ministraritzak ez zuen uste indarrean zeuden lan-arauek aldaketarik behar zutenik. Arau berezietara ere ez zegoen jo beharrik.

- Ekonomi ministraritzaren eritziz, ez da inon zehatz-mehatz esaten kreditu eta subentzioak, bidegarriak diren enpresei bakarrik emango zaienik.

- Ekonomi ministraritzak ez du inola ere ulertzen neurrien aplikapena 1981 eta 1982 urteetara bakarrik zedatzea, bi urte horietan krisitanto sektoreen arazoak ebaztea ezinezkoa izanik.

El País egunkariak zioenez, Ekonomi ministraritzaren "isilpeko" agiri hau ikusita bazirudien aipaturiko aurreprojektua, egina zegoen bezala, ez zela lege-dekretu sekula bihurtuko eta haren egileari itzuli egingo zitzaiola bere izena eta guzti alda ziezaion. Haatik, Zeregin Ekonomikoetarako Gobernuaren Batzorde Ordezkariaren barruan Industri ministraritza beste minis

traritzei nagusitu zitzaien eta aurreprojektua, aldaketa batzu gorabehera, aurrera jarraitu zen Ministrari-Kontseilura arte.

Ekonomi sektore liberalek ere bortizki eraso zuten aurreprojektua, zeren eta honetan, berregituratzen zuena Gobernua zela (eta ez enpresek) esaten bait zen. Puntu honetan, sektore liberal hauen ustez, projektu frankistatzat jo zitekeen aurreprojektua.

Gobernuaren Batzorde Ordezkarian aurreprojektuak izan zituen jorraldietan lehenengo artikuluaren idazkera hori apur bat aldatua izan zen eta honelaxe utzi zen: "Gobernuak, Hazienda, Lan, Osasun eta Gizarte-Segurantza, Ekonomi eta Merkatal ministraritzek aldez aurretik aztertu eta proposaturiko plana ikusita, eta sektoreko sindikatu eta enpresa-elkarte errepresentagarrienak adituak, industri sektoreko birmoldaketa errege-dekretuz erabaki ahal izango du". Dena dela, sindikatuak ez ziren ados gelditu idazketa horrekin ere eta haien presioagatik, lehen artikulu hori berriro ere aldatua izan zen: azken idazketaren arabera sindikatuak eta enpresa-elkarteak aditu izan beharrean, haiek berek negoziatuko zuten birmoldaketa-plana, Administrazioaren organo konpetentearekin batera.

Azkenean, eta hamaika aldaketatxo jaso ondoren, Industri Birmoldaketako Erret Lege-Dekretua 1981eko Ekainaren bostean Ministrari-Kontseiluan onartua izan zen. Erret lege-dekretu hau, ondoren arakatuko duguna, 21/82 Ekainaren 9ko legeaz ordezkatua izan zen. Azkenengo lege honetan, aurreko erret lege-dekretuaren arauteria guztia jasotzen zen, aldaketa bakarra birmoldaketako enpresen exportazioen garapenerako eta ikerketarako sustabideez dagoen aipamen soila zelarik. Lege honen iraunepea 1982ko Abenduaren 31 arte ezarri zen; horrek esan nahi du birmoldaketa-dekretuek egun hori baino lehen onartuak izan behar dutela, nahiz eta haietan aurrikusitako neurriak iraunepe luzeago izan.

Dakusagun zein zen 9/81eko Industri Birmoldaketako Erret Lege-Dekretuaren edukina (ohar daitekeenez, izen-aldaketa egon da: ez da orain birrindustrialtzeko lege-dekretua deitzen, au-

rreprojektuak ipintzen zuen bezala, industri birmoldaketako lege--dekretua baizik.

- Sektore jakin bat birmoldatzen ari den aldarrikapena Ministrari-Kontseiluak dekretuz egingo du. Aldez aurretik Enpresa-elkarte eta Sindikatu errepresentagarrienek eta Administrazioko organo konpetenteak iristeko diren helburuak (ekoizpena, errentagarritasuna, ekoizkortasuna, birmoldaketaren iraupena, hipotesi makroekonomiko eta sektorialak eta plantilen doikuntzak) negoziatuko dituzte (idazketa honetara heldu arte egon ziren tirabirak arestian azaldu ditugu).

Zirkunstantzia bereziak agertzen diren oinarrizko sektoretan (siderurgia osoaz eta untzigintzaz ari da hemen nonbait) (1) Birmoldaketa-planaren negoziaketa eta burutzapena lege-dekretua onartu zen egunetik hiru hiletara artean ez egitekotan (hots, 1981eko Irailaren 5a baino lehen), Gobernuak birmoldaketa-baldintzak artezki finkatu ahal izango ditu (hau berriz ez zen bete eta Gobernuak ez zuen deus egin).

- Birmoldaketa-eragiketetan artekari izan daitezkeen birmoldaketa-elkarteak eraiki ahal daitezke.

- Birmoldaketarako izaera fiskaleko laguntzak: birmoldaketa--prozesuak eskaturiko mailegu, jesapen, kapital-gehitze eta beste ekintzen gaineko ondare-transmisio eta egintza juridiko agiridunei buruzko zergetan garrantzizko hobariak eskaintzen dira (% 99-koak), eta beste horrenbeste Espainian ekoizten ez diren aktibo berrien inportanzioen gaineko aduana-eskubide eta beste kargetan eta Enpresa-trafikoaren gaineko zergan. Legeak, era berean, udal--zergetan hobariak eta Sozietate-zergan kenketak (aktibo material produktiboetan, ikerkuntz eta garapen-programetan eta exportazio--ihardueren eragintzan egindako inbertsioak direla bide) jasotzen ditu (ikus daitekeenez exentzioak desagertu dira; hobariak soil-soilik azaltzen dira).

Honez gainera, Gizarte-Segurantzarekiko eta Haziendarekiko zo

(1) S.E.B. Urquijo; 189 or.

rrak atzeratzeko edo zatikatzeko baldintza bereziak ezartzen dira.

- Birmoldaketarako finantz izaerako laguntzak: finantz osasuntzeari, aktibo finko berrietan egindako inbertsioei, ekoizkin eta prozesu industrialen ikerkuntza eta garapenari, eta komertzialpen-hobakuntza eta ezikugarrien finantzapenari begira, subentzioak eta Kreditu Ofizialeko kreditu eta abal-emateak ezartzen dira (aurreprojektuan azaltzen zen 50.000 miloi pezetako mugapena aienatu da).

- Birmoldaketarako izaera sozio-laboraleko laguntzak:birmoldaketa arrazoi teknikotzat jotzen da lan-erlazioak aldatu, eten edo iraungitzeko eta sektoreko enpresen arteko lan-higikortasun geografikorako. Gainera, aldez aurretiko jubilazioetarako laguntza eta gelditzeagatiko indemnizazio edo kalteordainen zatikatzea aurrikusten dira.

- Hitzartua ez betetzekotan enpresak mozkinak galduko ditu eta isundua izango da.

- Erret lege dekretua jadanik birmoldaketa-dekretua onartua zuten sektoreei ere aplikagarri zaie.

2.2.2. Birmoldaketa-legea aplikaturiko sektoreak.

Produkzio-egiturak beti aldatzen ari direla genioen bezala, sektore guztiak etengabe berregituratzen ari direla esan dezakegu. Berregiturakuntza hauek krisialdietan areagotu egiten dira eta sektore batzuetatik besteetara haien larritasuna ezberdina izaten da. Birmoldaketa hori merkatuaren eskuetan uztekotan, bai kostu ekonomiko bai kostu sozio-politikoak handi samar zirela idazten genuen, eta hortik ondorioztatzen genuen birmoldaketa-prozesuetan Estatuak eskusar dezan dagoen komenientzia.

Hala ere hori ez da beti jazotzen. Bi berregiturakuntz prozesu-mota dagoela esan daiteke:

1.- Merkatuaren eskuetan uzten dena;

2.- Berregituratzeko planez onura hatzen duena(1);

Beherago ikusiko dugunez, berregituratzeko planek joak izan diren enpresek langile anitz izaten dute eta haietan plantilen gutxitzeekiko, alokairu-murrizteekiko eta abarrekiko langile-mukertasuna oso handia izaten da. Arazo honekiko Estatuaren eginkizuna anizkuna izaten da: batzutan langileei plana ezartzera irits daitekeen indar-elementua da; (ik. Sagunto) besteetan gizarte-ateZuaren ezeztaile agertzen da (ik. Nervacero); edo baita ere, gizarte-kontzertapenaren eragile izan daiteke. Enpresa txikientzat horrexegatik ez dira planak egiten, ez du inork artekaritzat aritu behar, ezen langile-mukertasuna enpresa-ixtearekiko oso mugatua izaten bait da (2). Gu hemen, plan baten arabera birmoldatu diren sektoreez arituko gara.

Goraxeago agerturiko lege-dekretuaren inguruan birmoldaketa--politikaren bigarren ekitaldia, hots sektorekako birmoldaketa, eratu zen.Filosofia honen arabera ondoko sektoreen birmoldaketa arautu da:

- Hilara zuriko elektratresnak: 2200/1980ko Irailaren 26ko Erret Dekretua eta 198leko Irailaren 16ko ministraritz Agindua.

- Altzairu bereziak: 2206/1980ko Urriaren 3ko Erret Dekretua; 1445/198leko Ekainaren 19koa; eta 2046/1981eko Abuztuaren 3koa.

- Siderurgia Osatua: 878/1981eko Maiatzaren 8ko Erret Dekretua.

- Ohialgintza: 2010/1981eko Abuztuaren 3ko Erret Dekretua.

- Automozioko industriarako ekipamendu elektrikoa: 2793/1981-eko Urriaren 9ko Erret Dekretua.

- Untzigintza: 643/1982ko Otsailaren 28ko Erret Dekretua.

- Kobrezko erdieraldatuak: 608/1982ko Martxoaren 7eko Erret Dekretua.

- Osagai elektronikoak: 769/1982ko Martxoaren 26ko Erret Dekretua.

- Altzairu arrunta: 917/1982ko Martxoaren 26ko Erret Dekretua.

---

(1) Garcia Valverde 2; 46-47 orr./ Equipo de información ecca. 5 or.
(2) Equipo de información económica 7 or.

- Oinetakoak: 1002/1982ko Maiatzaren 14eko Erret Dekretua.

- Forja astuna: 1788/1982ko Ekainaren 18ko Erret Dekretua.

Birmoldaketa-planen babespean dauden sektoreak oso desberdinak dira elkarrekiko. Batzuek, bitarteko ondasunak ekoizten dituzte (siderurgia, kobrezko erdieraldatuak, forja astuna), beste batzuek inbertsio-ondasunak (untzigintza) edo kontsumobideak (elektratresnak, ohialgintza, oinetakoak). Batzuk arrunt kontzentratuak daude (siderurgia osatua, a.b.), beste batzuk, aldiz, erabat atomizatuak (a.b. ohialgintza eta oinetakoak). Batzuen enplegu-garrantzia txit handia da (a.b. siderurgia osatuan 40.000 langile), beste batzuena, berriz, txikia (forja astunean 100 langile inguru). Batzuetan enpresa publikoaren pisua berebizikoa da (a.b. siderurgia osatuan edo untzigintzan), besteetan, ostera, askoz apalagoa (1). Era berean haien birmoldaketa-plana onartzera eraman duten zergatiak eta haien birmoldaketa hartzen ari den forma praktikoa eta erabide juridiko-burokratikoak desberdinak dira geroxeago ikusi ahal izango dugunez(2).

Hala ere, sektore-birmoldaketa horien barruan dauden enpresek badute elkarren amankomunean ezaugarri batzu:

- Eskuharki enpresa horiek tamainia handikoak dira (ohialgintza, oinetakoak eta osagai elektronikoko sektoreen alderdi batzu izan ezik).

- Haien exportazio/ekoizpen erlazioa, estatuko sektore industrial osoko batezbestearekiko bi halakoa da.

- Haien inguruan duten eragina oso handia izaten da.

Eman ditzagun baieztapen hauen oinarrian dauden datu batzu:

Birmoldaketak, orain arte, 11 sektore eta 5 enpresa indibidual jo ditu, guztira, 350 enpresak beren plana onartua dutelarik (Hots, espainiar estatuan daudenetatik % 0'08). Haien ekoizpena, ostera, 1981ean, gaineratzeko enpresekiko % 6'6 da, haien inportazioak % 13'3, eta haien jendetza aktiboa % 8'1 (enpresa hauen enplegu-batezbestea 668 langilekoa da, hots, enpresa handi edo ertainak dira).

---

(1) MINER; 61 or.
(2) Ortún eta Sanchez-Junco; 68 or.

## 2.2.3.- Sektoreka eramandako birmoldaketari buruzko datuak.

Lehentxeago adierazi dugunez, sektore batetik bestera "birmoldaketak hartzen duen forma praktikoa eta erabide juridido burokratikoak desberdinak dira" (1). Birmoldaketa-plan sektorialetan neurri batzu modu orokor batetan aplikatzen badira ere,beste batzu bereziak dira eta sektore jakin batzuri bakarrik dagozkienak (adibidez, Garrio-ministraritzaren eraikuntz sariak untzigintzan) (2). Hemen ezinezko zaigu sektore guztien banan-banako azalpenari ekitea eta horregatik gerorako utziko dugun sektore guztien birmoldaketa-prozesuen balorapen kritikoa egitera laguntzearren, Liburu Zurian agertzen diren datu kuantitatibo batzu honera ekartzera mugatuko gara.

Datorren orriko laukian ikus daitekeenez, siderurgia osatuaren eta ohialgintzaren artean subentzio guztietatik % 80 eskuratzen dute, hau da, subentzioen banakuntza oso kontzentraturik dago bi sektore horietan (3). Dena dela, aurrikusitako subentzio guztiak ez dira beti erreal bihurtzen; adibidez 1982rako zenbait sektorek zuen aurrikusitako kopurua gutxitua izan zen hasieran aurrikusiak ez zeuden sektore eta enpresa batzuri balia bideak ematearren.

Hurrengo beste orrialde batetan Kreditu Ofizialeko Erakundeak birmoldaketarako emandako kreditu eta abalak agertzen ditugu. Hala ere, finantz laguntzak ez dira MINERen subentziotara eta KOEaren kreditu eta abaletara mugatzen. Horrez gainera dekretu batzutan, Lan eta beste zenbait ministraritzaren subentzioak, sariak etab. agertzen dira. Guk haien datu orokorrik ez izanik, ez ditugu hemen sartzen.

Beste orri batetan birmoldaketako sektoreetan aurrikusitako enplegu-bilakaerari buruzko datuak ematen ditugu. Ohar daitekeenez, ia sektore guztietan lanpostu-galerak agertzen dira. Haatik hor agertzen diren kopuruek ez dute egiazki galduko diren lanpostu guztiak jasotzen, zeren eta zeharkako lanpostu-galerak ez bait dira aintzakotzat hartzen (4).

---

(1) Ortun eta Sanchez-Junco; 68 or.
(2) Aranzadi, Fanjul eta Maravall; 322 or.
(3) Cala Laboral Popular 1982; 77 or.
(4) Gourc, G. eta Y.

INDUSTRI ETA ENERGI MINISTRARITZAREN SUBENTZIOAK

| | 1982 Aurrikusia | 1982 Erabilera erreala | 1983 Aurrikusia | 1984 Aurrikusia | 1985 Aurrikusia | 1986 Aurrikusia | Denera Aurrikusia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Elektratresnak | 2.200 | 1.683 | 800 | - | - | - | 3.000 |
| Altzairu bereziak | 2.000 | 2.000 | 2.000 | - | - | - | 4.000 |
| Siderurgia osatua | 10.000 | - | 10.000 | 10.000 | 10.000 | - | 40.000 |
| Automoziorako ek. elekt. | 730 | - | 960 | 280 | 160 | - | 2.130 |
| Untzigintza | 1.100 | 658 | 1.000 | - | - | - | 2.100 |
| Kobrea | 1.200 | 1.022 | - | - | - | - | 1.200 |
| Altzairu arrunta | 2.000 | 3.200 | 2.500 | - | - | - | 4.500 |
| Arozgintza astuna | 500 | 500 | 217 | 100 | - | - | 817 |
| Oihalgintza | 7.400 | 7.558 | 8.000 | 9.220 | 9.440 | 9.000 | 43.060 |
| Osagai elektronikoak | 600 | 453 | 500 | 760 | - | - | 1.860 |
| Oinetakoak | - | - | - | - | - | - | - |
| Asturiana del Zinc | 110 | 132'9 | 23 | 40 | - | - | 173 |
| WESA + GEE | 1.500 | 1.500 | - | - | - | - | 1.500 |
| GUZTIRA | 29.340 | 29.340 | 26.000 | 20.400 | 19.600 | 9.000 | 104.340 |

## KREDITU OFIZIALEKO ERAKUNDEAREN KREDITU ETA ABALAK

| | | 1982 | | | | 1983 | 1984 | 1985 | 1986 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Z.E.B.O.n erabakia | Emana | Instrumentatua | Burutu gabea | Z.E.B.O.ren aurrikustapenak | | | |
| Elektratresnak | A | 5.000 | 4.964 | 1.490 | 3.478'8 | 3.000 | - | - | - |
| Altzairu bereziak | A | 2.000 | 2.000 | - | 2.000'0 | 4.000 | - | - | - |
| Siderurgia Osatua | K | 5.000* | 5.000* | 5.000* | - | 2.500* | - | - | - |
| Autom. ek. elekt. | A | 2.715 | 2.246 | 1.300 | 946'0 | 2.855 | - | - | - |
| | K | | 1.156 | 800 | 356'0 | | | | |
| Untziginta | K | 2.000 | 1.200 | 200 | 900'0 | 2.000 | 300 | - | - |
| Kobrea | A | 4.000 | 3.800 | - | 3.800'0 | - | - | - | - |
| Altzairu arrunta | K | 5.000 | 5.300 | - | 5.300'0 | 5.200 | - | - | - |
| Arozgintza astuna | K | 1.250 | 1.250 | - | 1.250'0 | 450 | 300 | - | - |
| Oihalgintza | K | 6.000 | 10.601 | ? | ? | 6.000 | 600 | 600 | 600 |
| | A | | 1.788 | | | | | | |
| Osagai elektronik | K | 2.000 | 500 | 440 | 59'7 | 400 | 400 | - | - |
| | A | | 1.500 | ? | ? | | | | |
| Oinetakoak | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Banako enpresak** | K | 7.850 | ? | ? | ? | 4.700 | 1.950 | 1.900 | - |
| GUZTIRA | | 37.815 | | | | 28.605 | 3.550 | 2.500 | 600 |

A = Abala / K = Kreditua / Z.E.B.O. = Zeregin Ekonomikoetarako Batzorde Ordezkaria

* Ez dagozkio 21/1982 legearen 48. artikuluari, baizik eta Kreditu Ofizialari buruzko 13/1971 legeari

** Asturiana de Cinc, General Eléctrica Española, Westinghouse, Talbot, Grupo Standard

## ENPLEGU-BILAKAERA AURRIKUSIA

| | A<br>1981.12.31.ko enplegu osoa | B<br>1981-85 tarterako aurrikusitako enplegu-galerak | $\frac{B}{A}$ x 100 |
|---|---|---|---|
| Elektratresnak | 19.400 | 4.527 | 23'3 |
| Altzairu bereziak | 18.500 | 4.500 | 24'3 |
| Suderurgia osatua | 37.100 | 10.800 | 29'1 |
| Ohialgintza | 208.000 | 41.000 | 19'7 |
| Jantzigintza eta Zuntz kimikoak | 212.000 | (27.000) | |
| Automoziorako ekip. elektrikoa | 8.000 | 1.713 | 21'4 |
| Untzigintza | | | |
| . Untziola handiak* | 27.000** | 6.600 | 24'4 |
| . " txiki eta ertainak | 12.000** | 3.238 | 26'9 |
| Kobrezko eraldatuak | 4.300 | 979 | 22'7 |
| Osagai elektronikoak | 3.400** | 484 | 14'2 |
| Altzairu arrunta | 14.500** | 1.834 | 12'6 |
| Oinetakoak | 55.000 | 3.100 | 5'6 |
| Arozgintza astuna | 1.000** | 370 | 37'0 |
| Banako enpresak*** | 47.700 | 13.369 | 28'0 |
| GUZTIRA | 667.900 | 65.514 | 9'7 |
| Ohialgintza, oinetakoak eta banako enpresak gabeko totala | 145.200 | 35.045 | 23'9 |

* E.N.Bazan eta kontrata-langileak barneratzeke

** 1982ko datuak. 1982-85 denboraldia

*** General Eléctrica, Westinghouse, Talbot, Asturiana del Zinc, G. Standard.

## 1983/86 ALDIRAKO AURRIKUSITAKO ALDEZ AURRETIKO JUBILAZIOAK

| | Langile-kopurua | LBFNaren ekarpena (106 pzta) | Langileko kostua LBFNaren gain (106 pzta) |
|---|---|---|---|
| Siderurgia osatua | 4.014 | 11.342 | 2'82 |
| Altzairu bereziak | 847 | 2.971 | 3'51 |
| Kobrezko eraldatuak | 412 | 1.847 | 4'48 |
| Untzigintza | 3.227 | 7.915 | 2'45 |
| Osagai elektronikoak | 92 | 218 | 2'37 |
| Hilara zuriko elektratresnak | 480 | 2.057 | 4'28 |
| Oihalgintza | 1.495 | 5.151 | 3'44 |
| Automoziorako ekip. elektrikoa | 181 | 738 | 4'07 |
| Altzairu arrunta | 681 | 1.474 | 2'13 |
| Arozgintza astuna | 38 | 94 | 2'47 |
| Oinetako eta industri. laguntzailea | ? | ? | ? |
| GUZTIRA | 11.477 | 33.807 | 2'95 |

Bestalde, birmoldaketa dela eta, egongo den lanpostu-galeretatik batzu aldez aurretiko jubilazioei dagozkie, hots lanpostu--galera eztraumatikoei zor zaizkie. Aldez aurretiko jubilatu horiei (LBPN) Lan-Babeskuntzarako Fondo Nazionalak ekarpen batzu egiten dizkie. Goiko laukian 1983-1986 aldirako aurrikusitakoak beha daitezke.

Bukatzeko eta sektoreka eramandako politikaren balorapen kritikoari ekin baino lehen, Industri ministraritzak Industria Siderometalurgiko eta Untzigintzako Zuzendaritza pean dauden sektoreen birmoldaketa-planetako aldagai batzuren bilakaeraz duen eritzi kualitatiboa azaltzen saiatuko gara, nahiz eta horrela, orain arteko datu kuantitatiboen andana hautsi, eta jakinaren gainean egon horrek ordura arte eramandako birmoldaketaren balorapena inplizitoki berarekin daramala (eta beraz, ondorengo atalean koka litekeela). Eritzi hori datorren orrian dagoen laukian azaltzen da.

Lauki horretako erizpide batzuren zehaztapen-mailak birmoldaketari buruzko balorapen ziur eta erabatekorik eragozten badu ere (a.b. ekoizkortasuna handitu da, bai, baina nazioarteko mailara iritsi eta lanen jomugak bete arte? Eta langile-gutxipenak...?), birmoldaketa-prozesua behar den bezala eraman ez den adierazle batzu aurki daitezke. Adibidez, espainiar produkzio-egituraren huts edo akats ezagunenetako bat bere industriaren atomizazioa eta neurri txikia izanik, eskala-ekonomiez baliatzeko bide zuzenetako bat enpresen kontzentrazioa izan liteke; hau, ordea, altzairu berezietako sektorean bakarrik gertatu da. Inbertsioak ere ez dira behar hainbat burutu (Administrazioaren kreditu eta abalen atzerapenarengatik eta zenbait enpresaren egoeren okerragotzeagatik). Emaitzak, berebat, ez dira sektore guztietan gertatu, eta horrela izan denean birmoldaketa-neurriei baino gehiago ekoizleen arteko prezio-hitzarmenei zor izan zaizkie. Birmoldatzen ari diren enpresek, gehienetan, ez dute oraindik birrirabazi finantzetxeen eta hornitzaileen konfidantza, birmoldaketa-prozesua oso aurreratua eta heldua daramaten sektoreetan (altzairu berezietan adibidez) izan ezik. Eragin hedatzailea, amaitzeko, hutsaren hurrengoa izan da sektore guztietan, eta laukian altzairu berezietako sektoreak besteek ez bezala jokatu duela adierazten bada ere, hori ez da egia izan.

## 1981/1982 ERAMANDAKO BIRMOLDAKETAREN BALORAPENA

| | Ekoizpen-hazkundea | Exportazio-hazkundea | Enplegu-murrizteak | Ekoizkortasun-hazkundeak | Inbertsio-hazkundea | Emaitzen hobakuntza | Enpresa-integrakuntza | Permadura-banakuntza | Eragin bider katzailea (3) | Eragin heda-tzailea (4) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hilara zuriko elektratresnak | EZ | BAI | BAI | BAI | = | BAI | = | EZ | EZ | EZ |
| Altzairu bereziak | BAI | BAI | BAI | BAI | (1) | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI |
| Siderurgia osatua | BAI | BAI | BAI | BAI | (1) | = | = | BAI | = | EZ |
| Autom. ekip. elektrikoa | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | EZ | = | BAI | BAI | EZ |
| Kobrezko erdieraldatuak | = | = | BAI | BAI | BAI | = | = | BAI | = | EZ |
| GEE SA. | BAI | EZ | BAI | BAI | = | BAI | = | BAI | = | EZ |
| WESTINGHOUSE SA. | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | = | BAI | = | EZ |
| Automoviles TALBOT SA.(2) | * | * | * | * | * | * | * | * | * | * |
| Untzigintza (2) | * | * | * | * | * | * | * | * | * | * |
| Altzairu arrunta (2) | * | * | * | * | * | * | * | * | * | * |
| Arozgintza astuna (2) | * | * | * | * | * | * | * | * | * | * |

Jakin iturria: Ortun eta Sanchez-Junco

(1) Haien hasiera 1983/84 arte ez dago programatuta

(2) Planaren burutzapen praktikoa ez zen hasia

(3) Eragin biderkatzaileak, enpresek finantz indarren konfidantzaren birrirabaztea adierazten du.

(4) Eragin hedatzaileak sektorre horretako enpresek beste sektoretan lanpostuak sortzeko duten ahalmena adierazten du.

2.2.4.- UCDk sektoreka eramandako birmoldaketa-politikaren balorapena.

Ezin uka daiteke, Calvo Sotelo eta Bayon-en igoerarekin martxan jartzen hasi zen sektorekako birmoldaketa-politikak ageriko abantailak zituela ordura arte enpresa-maila soilean aplikatuarekiko. Hala eta guztiz ere, sektoreka eraman nahi zen birmoldaketa-politika hau berandu etortzeaz gainera, gorago erakutsi ahal izan dugunez, akats ugariz gauzatua izan zen.

2.2.4.A.- Birmoldaketa-politikako ingurumariaren akatsak.

- Dagoeneko azaldu dugunez, birmoldaketa-politikak industri politikari lotuta, mihiztuta, joan behar du, eta azken honek,oro bat, ekonomi politika orokorrari. Horrela ez izatekotan, ez dago krisiari aurre egiterik; birmoldaketa dela bide galtzen diren lanpostuak ez dira beste tokitan sortzen; eta birmoldaketaren eraginkortasuna bera, ahuldu eta gutxitu daiteke.

Lotura hori, ordea, ez da jazo. Politika ekonomikoari dagokionez, sarreran aipatzen genituen derrigorrezko erreforma ekonomiko batzu (administrazio publikoaren erreforma eta aurrekontu publikoaren kontrola; sistema fiskala eta finantzarioarena;lan-merkatuarena...) ondu gabe gelditu ziren. Eta birmoldaketako sektoreetako enpresentzat zenbait malgutze-neurri (a.b. plantila-murriztapenaren ahalbidea) ezarri bazen ere, neurri horiek, ondoren ikusiko dugunez, partzialak ziren, neurrizgaineko kostua zuten eta alferrik xahutuak izan ziren (1).

- Politika industrialaren kontuan beste horrenbeste erants liteke:
  . Enpresa txiki eta ertainak, ez ziren ezertarako aintzakotzat hartu(2).
  . Erregio-politikaz, hots, birmoldaketak zenbait eskualdetan sortuko zuen egoera latza (lanpostuen galerak...) kompentsatzeko politikaz, ez zen deus ere egin.

(1) S.E.B.B. 2; 43-44 orr.
(2) S.E.B.B. 2; 44 or./ MINER; 44-45 or.

. Teknologi politikari dagokionez, Bayonek bestela aldarri katu arren (1), eta lehenengo birrindustrialtze-aurreprojektuan atalburu bat teknologi sektoreen sustapenaz ari bazen ere, 1981eko Ekainean onarturiko erret lege-dekretuan teknologiari buruzko ia aipamen guztiak aienatu ziren. Ez teknologia berriei zegozkienak soilik; birmoldaketa-sektoreetan teknologi arazoez ere guztiz ahantzi ziren. Segurak dioenez "urtebete geroago (hots, 1981eko Ekaineko erret lege-dekretua baino urtebete beranduago) norbaitek gastigatu bide zion Gobernuari ahanzpenaz eta orduan 1982ko Ekainaren 6ko legearen textuari, planek 'ikerkuntza aplikatuaren eta teknologi berrikuntzaren antolaera enpresa eta sektoreen barruan' (1. artik. 1.b. puntua) eduki behar zutela, eta 'enpresa edo sektorearen ikerkuntza eta garapenaren egitura antolatzera' (3. artik., 1.e puntua) zihoazen inbertsioek % 15eko kengarritasuna izango zutelako aipamena erantsi zitzaion" (2). Plan Elektroniko Nazionala prestatu behar zuen batzordea ere 1982an bakarrik sortu zen. CDTI, IMPI eta Sodis-ak ere orduan hasten dira garatzen eta teknologiari buruzko lege-aurreprojektua prestatzeko planak ere ordukoak bide dira(3).

. Sektore berrien sustapena ere, Bayonek bestela mintzo bazen ere eta lehenengo birrindustrialtze-aurreprojektuaren esanak esan, zeharo baztertuta egon zen. Baztertze hori hasiera-hasieratik salatua izan zen,bai sindikatuetatik (4), bai Aurrezki-Kutxen konfederakuntzatik (5), bai ekonomilariengandik (6). Hauxe izan da, hain zuzen ere, PSOEren gobernuak aurreko politikaz gehien kritikatu dituen puntuetatik nagusienetako bat,hots, birmoldaketa eta industri iharduera berrien sustapen-estrategia elkarri josiak ez eramatea (7).

---

(1) Ik. a.b. El País: 1980/11/2 eta 1981/6/6
(2) Segura 2; 310 or.
(3) S.E.B.B. 1; 19 or.
(4) CCOOeko ordezkaria zen Marin-ek 1981eko Maiatzaren 6an esana.
(5) Haien 1981eko Maiatzako kojuntur txostena.
(6) Segura...
(7) MINER , 217 or./ Solchaga 1; 45-46 orr.

- Azken puntua, Pedro de Silva-k "industri horizontearen eza" deitutakoari lotua dago. Ekonomilari honek dioenez, "politika industrialeko ekintz multzo baten instrumentazioak, iritsi nahi den industri horizontearen aldez aurretiko existentzia galdatzen du, hau da, birmoldaketa-prozesuaren buruan Espainiako industri egitura nahigarri eta ahalgarriari buruzko definizio prospektiboa" (1). Hori finkatu eta erabaki ondoren, bakarrik, aukera daitezke lehentasunak, ekinbideak etab. Etorkizuneko industri mapa delako hori finkatzeko, gizarte-paktu baten fruitua izango zen planifikazioa behar da (2).

## 2.2.4.B.- Birmoldaketa-politikaren beraren akatsak.

### 2.2.4.B.1.- Aplikatu diren sektoreak

Aurrezki-Kutxen konfederakuntzak 1981eko birmoldaketari buruzko dekretu-projektua hartzen ari zen idazketaz zera zioen: projektuan ez dira mugatzen egiazki krisitan dauden sektoreak eta horrek, hasiera batetan jokatze-malgutasuna eskaintzen badu ere, presio sektorial handiagoren iturri izan daiteke. Uste hau ez da ustela izan.

Bayonen lehenengo aitorpenen arabera, "birmoldaketa ekonomiaren oinarrizko sektoreetara zuzenduta dago, zehazkiago, siderurgiara, untzigintzara, automoziora, hilara zuriko elektratresnetara, eta gutxiago definitu edo aztertuak dauden batzutara, halanola oinetakoak eta oihalgintza" (3). 1981eko Ekainean Industri Birmoldaketako erret lege-dekretua onartzen denean,gai honetaz berriro, Bayonek zera dio: "Nahi duen guztiak ezin jo dezake birmoldaketa-plan batetara. Lehen-lehenik aintzakotzat hartuko dira haien balio estrategikoagatik, ekonomian duten eraginagatik, haien exportazio-ahalmenagatik eta abarrengatik interes nazionala duten sektoreak" (4). Industri birmoldaketarako

(1) De la Silva
(2) Garaialde eta Llorens/ Segura 2; 310-312 or./ Ortún eta Sanchez-Junco; 69 or./ TRIKUHARRI...
(3) Fernandez, J.
(4) El País: 1981/6/6.

neurriei buruzko 21/1982 legearen 1 artikuluak ere, sektore horiek "larritasun aparteko krisi-egoerek joak dauden interes oro korreko (edo oinarrizko) industri sektoreak" izan behar dutela dio.

Hala ere, Ortún eta Sanchez-Junco-k diotenez, "horren oro korra zen definizio honek, siderurgia osatua, oihalgintza edo untzigintza bezalako kasu argietan izan ezik, Industri Birmoldaketako legepean hamaika sektore gerizatzea erakarri du praktikan, ez horrenbeste Espainiarako epe erdi eta luzerako industri lehentasunei buruzko azterketa baten ondorioz, baizik eta enpresa eta finantz talde jakin batzuk (hemengoak zein atzerrikoak) horreta ra presionatu dutelako edota espainiar geografiako lurralde jakin batzuren krisi sozialeko egoera larria eta gorria zelako"(1). Lehentasun-gabezia hori, legeak ezarritako ihardun-ingurumari sektorialetatik at banako enpresa zenbaiti emandako laguntzetan nabari daiteke(2).

Sinkikatuek ere gauza bera salatu dute. Adibidez Comisiones Obreras-en eritziz:"Bayon-en legea presiorik handiena izan edo egiten zuten sektoreen influentzi trafiko bihurtuz joan zen" (3). Bilbo Bankuaren azterketa-taldeak (4) gauza antzekoa iradokitzen du. Honetatik, beraz zera ondoriozta daiteke:legegintzak ahalbideratzen zuen malgutasuna okerrerako erabilia izan zela, Aurrezki-Kutxen konfederazioak hasieratik erakutsi zituen susmoak egiaztatuz.

2.2.4.B.2.- Emandako laguntzen hainbatekoa eta egokitasuna.

Birmoldaketako sektoreei emandako laguntzen zenbatekoa nahiko txikia izan da ia denok onartzen dutenez(5). Horren adierazgarria zera izan daiteke: 1983-86rako 75.000 miloi pezetako subentzio-kopurua aurrikusten den bitartean, 1982ko INIren galerak 100.000 miloi pezetakoak dira, Enplegurako Instituto Nazio

(1) Ortún eta Sanchez-Junco; 69 or.
(2) Id.
(3) Marzo 2; 19 Or.
(4) S.E.B.B. 2; 44 or.
(5) Marzo 2; 17-19 orr./ Solchaga 1; 46 or./ MINER ; or./ Ortún eta Sanchez-Junco; 76 or./...

nalaren gastua urte berean 400.000 miloi pezetakoa da, ... Hauen aldean birmoldaketara zuzenduriko baliabideak arras murritzak eta eskasak dira konplitu behar duten eginkizunerako.

Lehen agertu dugunez, hiru ziren birmoldaketako erret lege-dekretuan azaltzen ziren lagunbideak: finantzarioak fiskalak eta sozio-laboralak. Pedro de Silva-k egiten dien kritika orokorraren arabera, lege horrek baliabide publikoekin osaturiko laguntz tresneria mordoilatu, konplikatu, ilun eta kontrolgaitza da, eta horrek laguntza publikoen gardentasuna, kontrola eta kontrapartiden zehaztasun eta efektibotasuna galerazten du (1). Alegia, Ekonomi ministraritzak industriakoak prestaturiko aurreprojektuari egiten zion kritika bera berrirotzen du orain PSOEko ekonomilari honek Bayonen erret lege-dekretuari.

Finantz neurriei dagokienez, Kreditu Ofizialeko Instituto ak emateko aurrikusiak zituen abalak hein handi batez erabiltzeke gelditu zirela esan beharra dago (ik. 1982ko datuak lehen azaldutako lauki batetan). Hori gertatu da finantzetxe pribatuek ez bait zieten larri zebiltzen enpresei krediturik eman nahi, nahiz eta kreditu hauek Estatuak bermatuak izan, indarrean zegoen legeriaren arabera, berme horrek emandako maileguen korrituen ordainketa estaltzen ez zuelako. Hasiera-hasieratik finantzetxeak birmoldaketako prozesuaren barruan inplikatuak izan balira eta haien eskuhartzerik egokienaren baldintzak haiekin negoziatu izan balira, arazo hauek, agian, ebatziko ziren (2).

Neurri fiskalek, beste aldetik, bere eragina motelduta samar izan dute, Solchagak erresultatu hau, gainerako politika ekonomikoko tresna gehienetan neurri hauek duten ugaltzeari egozten diolarik.

Lan-neurrien kontuan, aurrikusitako jomugak iritsiak izan dira denek aitortzen dutenez. Hau izan da birmoldaketako prozesuen helburuen artean hobekien bete izan dena. Hala ere, birmoldaketako enpresetan langile-kopurua murriztea izugarri garesti irten da. Gehienetan enpresei emandako baliabideak pasiboaren osa

(1) De Silva, P.
(2) Solchaga 1; 46 or./ MINER; 219 or./ Ortún eta Sanchez-Junco; 71 eta 76

sunketa eta langile iraitzien indemnizazioen ordainketa egiteko erabili izan dira, aktibo finko berrietan inbertiturikoa txikar baino txikarrago izanik.

1983ko hasieran enpresa batentzako lanpostu baten amortizazioaren batezbesteko kostua (aldez aurretiko jubilazioak, indemnizazio edo kalteordainak, desenplegu-seguruaren osagarria, etab.) hiru miloi pezetakoa zen. Eta horri beste horrenbeste eran tsi behar zitzaion Administrazioaren aurrekontu-kostutzat. 1986 arte birmoldaketako enpresetan 50.000 lanpostu amortizatzeko bal din badira, horrek, plantilen murriztapenerako bakarrik, 300.000 miloi pezeta eskatuko luke, hots, urte horretarako industri birmoldaketa osorako aurrikusitako subentzio guztiak baino gehiago (1).

Okerrena da enplegu-amortizazioetan eralgitako diruak ez duela balio izan laneskuko gehiegitzak birralokatzeko (2). Hain zuzen ere hori da PSOEren politikak zuzendu nahi duena Enplegu--Sustapenerako Fondoen experientzia beste sektoreetara hedatuz.

Derragun,puntu honekin amaitzeko, batek baino gehiagok salatu izan duela birmoldaketa eta birrindustrialketa-prozesu hauetan enpresa publikoak bete duen zeregin eskasa, enpresa pribatuetara maizenik egiten zitzaizkion fondo publikoen transferentzien aldean(3).

2.2.4.B.3.- Planen azterketak.

Sektorearen birmoldaketa Dekretuz erabakia izan baino lehen, Enpresa-elkarteen, Sindikatuen eta Administrazioaren organo konpetentearen artean birmoldaketa-plana negoziatu eta burutu behar zen. Hala ere ez da beti horrela jazo (a.b. altzairu arruntean, kobrean, osagai elektronikoetan). Birmoldaketarekin zerikusia zuten alderdi guztien arteko hitzarmenik burutu ez den kasuetan, ezarri diren neurriak sektorearen egoera hobetu beharrean

(1) Ortún eta Sanchez-Junco; 72 or.
(2) Solchaga l; 46 eta 48 orr. /MINER; 220
(3) Segura 2; 311 or./ Braña,Buesa eta Molero; 285 or.

okerragotu egin dute (esaterako, altzairu arruntaren kasuan) (1)

Negoziatu den kasu gehienetan, berebat, buruturiko planak ez zien sektorearen egoera errealari eta etorkizuneko ikuskizunei behar bezala ihardesten (2). Izan ere, plan horiek ez dira oinarritu, behar den bezala eguneratuak zeudeketen azterketa sektorial objetiboetan. Aipaturiko azterketa hauek ez zuten eskari sektorialeko analisi zorrotzik ontzen, eta horrek, eskaintza industrialeko doikuntza aurrikusiak aski ez izatea, eta handik denbora laburrera berrikusiak izateko premia, ekarri du.

Bestalde plan horien oinarrian zeuden estudioek, ez zuten behar bezala arakatzen sektorearen enpresa-egitura eta gutxienezko lehiagarritasun-maila iristeko noraezeko ziren egiturazko aldaketak eta integrakuntz prozesuak. Horren ezinbesteko ondorioa izan da lehen aipatu dugun enpresa-integrakuntzako emaitza urria (altzairu berezietan izan ezik) (3).

Bilbo Bankuko azterketa-taldeak antzeko kritika egiten du gai honekiko. Haren ustez, guztiz beharrezko zen "planei neutraltasuna eta nolabaiteko bermatasuna emango lizkieketen nazioarteko kontsulting espezialduek birmoldaketa-planak aztertuak izatea. Hau ez da horrela egin, -jarraitzen zen Bilbo bankuko azterketa-taldea- eta Administrazioa planei onespena edo gaitzespena emate ra mugatu da; geroa izango da horiek berronetsi edo birgutxietsiko dituena" (4).

2.2.4.B.4.- Emateko diren laguntzei buruzko erabakia.

Ez datoz birmoldaketako erret lege-dekretuan, laguntz ematei dagokionez, organo erabakitzaile bakar bat eta laguntza horien truke galdatzeko baldintzak. Horregatik, birmoldaketa sektorialeko erret dekretu bakoitzak Organo erabakitzaile hori finkatzen zuen. Birmoldaketa-Planeko Batzorde Beterazlea deritza honi eskuharki. Batzorde horretan, ministraritza batzuren ordezkariek, zenbaitetan Organismo Autonomc batzuren ordezkariek (Kreditu Ofizialeko institutoa, Kreditu Industrialeko Bankua, CDTI...) eta, maiz, sektore horretan % 10 baino enplegu-portzentaia handiago du

(1)Ortún eta Sanchez-Junco; 70 or.
(2) Solchaga 1; 48 or.
(3) MINER; 217-218 orr. / Ortún eta Sanchez-Junco; 70 or.
(4) S.E.B.B. 2; 44 or.

ten Komunitate Autonomoen ordezkariek eskuhartu ohi dute. Denen buru, sektore horri dagokion MINEReko Zuzendari Orokorra jarri ohi da.

Organo erabakitzaile hauen funtzionamendua oso ezberdina izan da sektore batetik bestera, eta baita beren eraginkortasuna ere. Dena dela, eta oro har, zera esan daiteke:

. Batzorde beterazleetan partaide gehiegi dago. Honek presakako bilkuretarako deialdiak, eta aztertze, eztabaidatze eta erabakitze-prozesuak eragotzi ditu.

. Zenbait unetan, batzorde hauetako partaideen maila ez da aski garaia izan erabaki-harrera ziurtatzeko.

. Zenbait azterketa eta erabaki-harrera Batzorde Beterazle osoa bildu gabe, Batzorde iraunkor bat eratuz, buru zitezkeen (1).

2.2.4.B.5.- Emandako laguntzen izapidatze administratiboa.

Batzorde Beterazleak (edo Organo erabakitzaileak) laguntza erabakitzen zuenetik subentzioa kobratu edota kreditu ofiziala(edo abala) igortzen zen artean igaro beharreko mila urrats burokratiko egoten zen, eta horrek izapidegintza administratiboa luzerazi eta moteldu egiten zuen.

Gastu publikoaren derrigorrezko kontrol eta fiskalizazioa, horregatik, ez zen handitzen. Zenbait kasutan 5 eta 6 hilabetez irauten zuen izapidatze hori, ministraritza sail ezberdinen Organismo eta Zerbitzuen artean koordinazio apur bat eta borondate-adostasuna egon izan balira, askoz laburragoa izana zatekeen (2).

2.2.4.B.6.- Laguntzen gestioa, kontrola eta jarraipena.

Sektore batetik bestera eratuta dauden egipide, kontrol eta jarraipeneko sistemak erruz aldatzen dira.

(1) Ortún eta Sanchez-Junco; 70 or.
(2) Ortún eta Sanchez-Junco; 71 or./ Solchaga 1; 48 or./MINER , 219 or.

Laguntzen egipideari dagokionez, siderurgia osatuan, altzairu arruntean, kobrean, automoziorako ekipamendu elektrikoan eta untzigintzan erabakitako laguntza publikoen harrera eta egipidea enpresek berek artezki, burutzen dute. Elektratresnagintzan (SELESA, UNELSA, CIESA, etab.) laguntza horiek teorikoki gestionatu beharko luketen enpresa-talde batzu eratu dira, baina praktikan, enpresak dira laguntzak hartu eta gestionatzen dituztenak.Altzairu berezietan, aldiz, laguntzen harrera eta egipidea ACERIALES izeneko Birmoldaketa-Elkartearen eskuetan dago.

Laguntzen harrera eta egipidea artezki enpresen eskuetan geldi tzen ziren kasuetan, ez zen eskuarki egoten teknologi berrikuntzari, merkatal estrategiari eta langileen lanbide-hezkuntzari buruzko ekintza sektorialik, hots enpresa-integrakuntza ez zen indartzen. Hori dela eta, oraingo birmoldaketa-politikarako PSOEk ACERIALESen ereduari eman nahi izan dio lehentasuna.

Bestalde, Plan bakoitzeko helburu tekniko, ekonomiko, finantzario eta laboralen jarraibide aurrikusirik, egitura organiko egokirik eta giza baliabide erabilgarririk ez izaki, MINEReko funtzionariek ezin eraman dezakete aurrera jarraipen hori. Ondorioa: helburuen kontrol eta jarraipena enpresek berek eskainitako informazioaren arabera egiten da, eta haien "in situ" egiaztapena zeharo ezinezkoa da ia kasu guztietan. Horrek eraman du helburuak hein handi, eta batzutan onartezin, batetan betetzeke gelditzera (batez ere, lehen esan bezala, aurrikusitako inbertsioei dagokienez) (1).

Segurak ongi dioenez, akats hauen erroa birmoldaketako legean bertan aurki daiteke. Lege hartan, laguntzen kontrolari buruz esaten zen gauza bakarra hauxe zen: "Planaren eta honi dagokion egitarauen beteraztearen jarraipena eta kontrol-erabidea, birmoldaketako erret dekretu bakoitzak erabakiko du" (1. artikulua, 1.d. puntua). Haren ustez, ordea, birmoldaketa-legearen barruan egon behar lukete "sektore publikoko diruzko konpromezuek eta sektore pribatuaren arauketak". Hori dela eta, ez deritza egoki autore honek, gobernuak burutu behar dituen kontrolbideak ka-

(1) Ortún eta Sanchez-Junco; 71-72 orr./MINER; 218-219 orr./ Solchagal; 48 or.

suistikara uzteari (1).Haren eritziz, kontrol eta jarraipen horretan sindikatuek eskusartu beharko lukete.

2.2.4.D. Ondorioak.

Zail da goian aipaturiko akats guztiek erakarritako ondorioak lerro banaka batzutan jartzea, hala ere, laburbilduz, zera esan daiteke:

- Eramandako politikak ez du ahalbideratu maldan beherako sektoreetatik etorkizuneko produkzio-hilaretara igarotzea.
- Krisitango sektoreen birmoldaketa bera ez da ongi burutu. Generalean enpresen osasunketa finantzario eta laboralera mugatu da (horietan eralgitako dirutzei etekin handirik atera gabe), aktibo industrialen birmoldaketa lortzera zuzenduta egongo zen inbertsio-politika bati ekin gabe.
- Beste zenbait alorretan ere (enpresen integrakuntza, efektu biderkatzaile eta hedatzailea, enpresen errentagarritasuna,...) izandako lorpenak arras zirtzilak izan dira.

(1) Segura 2; 310 or.

## 2.3 PSOEren BIRMOLDAKETA-POLITIKA SEKTORIALA

### 2.3.1.- Politika ekonomikoaren, industrialaren eta birmoldatzailearen arteko jostura.

Sozialistek, aldarrikapenei so egiten badiegu behinik-behin, ekonomi politika, industri politika eta birmoldaketa-politikaren artean dagoen harremana, oro har zuzen eta taiuz ikusten dutela baiezta daiteke. Epe ertainerako ekonomi egitarauak, Boyer-en eritziz, alde batetik produkzio-sistemaren eraberritze eta aztertzeari (bai nekazal sektorearenari, bai industriarenari -industri birmoldaketaren bidez-, eta bai hirugarren sektorearenari), eta bestetik espainiar ekonomiaren ingurumari instituzionala eraldatzeari ekin behar dio, bigarren eginbehar honek, lan-merkatuaren birrantolaera eta malgutzea, Administrazio Publikoarena (funtzio publikoaren hobetzea, enpresa publikoen osasunketa eta 1977an hasitako zerga-erreformaren burutzapena), finantz sistemaren eta Gizarte-Segurantzarena barne dituelarik (1).

Solchaga-k ere, ederki mugatzen ditu krisiaren kontrako doikuntza positiboko politikak ukitu behar dituen alorrak: politika horrek, erdi-eperako estrategia baten barruan dagoela, errenta--politikako, eskari agregatuaren erregulazio-politikako eta eskaintz politikako neurriez osatzekoa da. Azken tankerako neurrien artean industri politika da gobernuaren iharduerarен tresna pribilegiatua(2).

Birrindustrialtzeko politika horren oinarrizko ardatzak,Solchagaren aburuz, krisitango sektoreen barne-berregituraketa eta etorkizuneko produkzio-hilara eta sektoreetarantz finantz eta giza baliabideen birbideraketaren bultzapena (hots, industri promoziorako estrategiaren harrera) dira. "Promozio-politika honen instrumentazioan berebiziko garrantzia du industri politikako tresna "horizontal"en multzoak, h.d., teknologi politikaren, enpresa txiki eta ertainerako politikaren, enpresa publikorako politikaren eta erregio-politikaren alorretako iharduera-multzoak" (3).

---

(1) Boyer 1; 367-368 orr.

(2) Solchaga 2; 368-369 orr.

(3) Solchaga 2; 369 or.

Areago, hasieran sozialistentzat, Garaialde eta Llorens-entzat bezala, industri politikaren egintza egokirako, De Silva-k "horizonte industrial" deitzen zuen, edo PSOEk 198leko Irailean espainiar legebiltzarrean aurkezturiko Industri Birmoldaketarako lege-projektuan "Plan Nazional industrial" izendaturikoaren existentzia guztiz beharrezko zen, hots: "birmoldaketa-prozesuaren buruan Espainiarentzat nahigarri eta ahalgarri izango litzatekeen industri egiturari buruzko definizio aurrikustailea" (1), edo aipameneko lege-projektuan ziotenez, PNI delako horrek, besteren artean, "dela sektoreen tratamendua , dela sektore berrien garapenerako plan eta, lehentasunen eta aldizko aurrikustapenen mugaketa" erabaki behar zituen (2).

Solchagak berak, PSOEren ordezkaritzat, sozialistak botere ra iristekotan erabiliko zituzten tresnen artean "un cierto grado de planificación no rígida, no vinculante y siempre sobre la base de la concertación" aipatzen zuen (3). Eta halaber Ortunek (industri birmoldaketarako Industri eta Energi ministrariaren aholkularia) eta Sanchez-Junco-k (Industri birmoldaketarako aholkulari teknikoa) 1983an argitaraturiko artikulu batetan, hots, sozialistak agintera igo ondoren idatzitako artikuluan, birmoldatzen jarri beharreko sektore berrien aukerapenerako (eta beste horrenbeste egun daudenen ihardun-mekanismoen berrikuspenerako) erizpide batzu finkatu behar zirela aldarrikatzen zuten: erizpide kuantitatiboen (a.b., Barne-Ekoizpen Gordinean sektoreak duen pisua; ahalmen exportatzailea...), kualitatiboen (teknologia sortzeko duen gaitasuna; nazioarteko lan-zatiketa berrian duen bideragarritasuna...) eta estrategikoen (ekoizkin eta lehengaien izaera ; erregio-eragipena...) arabera epe ertain eta luzerako espainiar industri lehenengotasunak ezarri behar ziren, bi ekonomilari hauen aburuz (4).

Boterera igo ondoren aldiz, asmo planifikatzaile horiek nolabait ere aienatu edo ahuldu egin dira. Egia da Solchagak, 1983ko Otsailaren 22an legebiltzarreko Industri Batzordean izan zuen agerraldi batetan birmoldatzen ari ziren sektoreez eta etorkizun argiagoko beste zenbait sektorez (elektronika, industria milita-

(1) De la Silva
(2) El País 1981 Iraila 19
(3) Braña, Buesa eta Molero; 285 or.
(4) Ortún eta Sanchez-Junco

rra, elikagaigintza eta industria berreskuratzaileez) ihardun zuela eta beste zenbait tokitan ere horretaz aritu dela (a.b. Liburu Zurian 225 or.), baina inoiz ez dira zehatz-mehatz finkatu eta mugatu (are gutxiago, De la Silva-k 198lean eskatzen zuenez, Administrazioak, ugazaberiak eta Sindikatuek osaturiko batzorde batetan iritsitako akordio baten ondorioz) birmoldatzeko (1) edota etorkizunerako sektoreak (2).

Solchaga eta Boyer etengabe ari izan dira sistema ekonomikoaren bilakaera funtsean inbertsioegile pribatuen erabakietatik eskekita dagoela adierazten eta, espainiar "industri egituraren aldaketak, hein handi batetan, hamaika gizabanakoren ekimenen ondorioak izango dira(la) eta beraz, zehaztasunez aurrikusteko nekezak (direla)" azpimarratzen (3). Arrazoi horregatik, boterera igo ondoren bere maliobra-ahalmena murriztuta izan nahiez izateagatik (4) eta baita kapitalaren artean sozialisten asmo eskusartzaileez zeuden bildur, mesfidantza eta uste zabaldua aienatzeagatik ere, sozialistek ez dute zertu 198leko lege-projektuan aditzera ematen zutena, hots: PNI delakoaren projektuaren elaborapena eta aurkezpena legebiltzarrean, honetan eztabaida eta onar zedin.

Sozialistek politika ekonomiko orokorraren eginkizunak teorian ondo samar mugatu badituzte ere, haiek burutzeko unean ez dira hain azkarrak izan. Lan-merkatuaren malgutzeari, berandu izanagatik ere, ekin bazaio ere (hor daude horren lekuko lan-merkatuaren erreformarako projektu-legea, desenplegu-babeskuntzarakoa...) eta aurrekontu-politikako gardentasuna hobetu bada ere, finantz sistemaren erreformari ez diote inondik ere aurpegirik eman, Gizarte-Segurantzaz beste horrenbeste esan liteke, Administrazioaren erreforma geratuta samar dago (Estatuaren deserdirapena eta komunitate Autonomoen eta Lekuko Gorporazioen finantzapena barne) zer-

---

(1) 1983ko Abenduaren 3ko El País-en editorialeak, egun batzu lehenago Gobernuak onarturiko birrindustrialtzeko lege-dekretuaz zera zioen: "Textuak ez ditu zehatz-mehatz mugatzen plan horietan sektore edo enpresa-talde bat sartzeko erabakiko duten erizpiderik. Sektore bat krisialdi gorrian dagoenean haren zuzpertzea interes generalekotzak jotzen denean, orduan birmoldatuko den adierazpena hain da etereoa non berdin-berdin bait litzateke deus ere esan izan ez balute".

(2) Rodriguez Sahagun-ek puntu hau kritikatuz zera zioen: "ez dira abordatzen, ez zein diren garatu beharreko etorkizuneko sektoreak, ez zein izango den garapen horretarako erabiliko diren erosketa eta inbertsio publikoen tankera" (Sahagun 2; azpimarraketa R. Sahagun-ena). Antzera Rodriguez Sahagun 2.

(3) Solchaga 2; 369 or.

(4) MINER ; 16 or.

ga-alorrean iruzur kontrako burruka aldarrikatuaren emaitzak hu tsaren hurrengoak izan dira, zergak UCDek egiten zuen antzera (errenta, ondarea eta enpresa-trafikoa) gehituak izan dira, enpresa publikoaren mentsak ezin izan dituzte gutxitu... Alegia, funtsezko zen zenbait egiturazko erreforma burutzeko ez dira gai (ez ahalmenez, ez gogoz) izan.

2.3.2.- Birrindustrialkuntza: birmoldaketa eta industri promozioko estrategia.

Lankide Aurrezkiaren 1982ko txostenean sozialisten birmoldaketa-politikarekin irekitzen den hirugarren aroaz esaten denez: "birmoldaketak baino esanahi zabalago duen berba batetik, birrindustrialkuntzatik alegia, abiatzen da. Honek aro berri honetan, bi alderdi hartzen ditu bere baitan: sektoreen barne-birmoldaketa bera eta industri sustapena, h.d., sektore eta ekoizkin dinamikoetaranzko baliabideen esleipena. Industri politikako plantea menduetan sustaketaren barneratzea eta hari buruz behin eta berriz egiten diren aipamenak dira hirugarren aro honen elementu bereizgarriena" (1) (neronek azpimarratua).

Iharduera berrien sustapen-politikan, hiru alderdi nagusi bereizten dira MINERek argitaturiko Liburu Zurian: enpresa txikieta ertainak sortzera eta laguntzera zuzendutako politika, teknologi promoziorako politika eta erregio-estalpenerako politika.Hala ere, industri sustaketaz PSOEko gobernuak egindako azpimarraketak gorabehera, ez da gauza handirik egin.

Horixe zen, hain zuzen, Liburu Zuriari eta sozialisten birrindustrialtzeko lege-dekretuari toki guztietatik (CCOO, UGT, ELA, PC, AP, EAJ, EE, El País...) maiz egin izan zaien kritika: Gobernuaren esanak esan, "birmoldaketa eta birrindustrialketa el karri ez lotzea", "birmoldaketan ahalegindu eta birrindustrialketaz ahantzi", "birrindustrialtzeko tresnak ez zehaztea", "lanpostu berriez bermarik ez ematea", "birrindustrialtzeko neurri konkreturik ez zehaztea"... Liburu Zurian bertan, hutsune horretaz gaztigatzen da: "Como ya se advierte en el texto, sin embargo,

(1) CLP 1982; 82 or.

las medidas propuestas no pretenden configurar el marco completo de actuación para la política de reindustrialización, sino esencialmente redifinir la política de reestructuración interna de los sectores en reconversión, posibilitando una gestión más eficaz de la misma y, al mismo tiempo, integrándola en un esquema más amplio del que la política de promoción industrial -que abarca un ámbito más vasto que el contemplado por este documento- es un componente esencial" (1).

Dagoeneko azaldua dugu etorkizuneko sektoreez Gobernu sozialistan egon den zehazgabetasuna:

. Industri politikako tresna horizontaletan ere ezer gutxi aurreratu da: enpresa txiki eta ertainei buruzko gauzarik aipagarriena zalaparta handiz iragarri, baina gero porrot hutsean amaitu ziren 60.000 miloi pezetako kreditu -hilara "bigunak" dira; horrez aparte ia deus ere ez.

. Erregio-politikari begira egin diren gauzatxo bakarrak,birrindustrialtzeko lege-dekretuan "Presazko Industrialkuntzako Lurralde"ei buruzko tratamendua sartzea eta Saguntori hura aplikatzea izan dira. Bestalde, Carmelo Urdangarin-ek 1984eko Otailaren 14eko "El Diario Vasco" aldizkarian idazten zuenez "Presazko Industrialkuntzako Lurraldeek maila orokorrean enplegu sortu baino, behinik-behin nolabaiteko neurrian egin dezaketena da lurraldeen arteko enplegu-birbanakuntzari laguntzea. Lurralde batetan besteetan baino abantail gehiago ematen badira, bidezkoena, ekonomi aldetik begiratuta, errentagarrien den tokira joatea da. Horrek berarekin dakartzan oker edo irain konparatiboez... Horren adibidea Sagunton dugu, non galtzerdi eta merinakiak ekoizten dituen enpresa berriaren iragarpenak Katalunian tankera guztietako jazarpenak sorterazi bait ditu".

. Teknologi politikaren barruan, CEDETIk, hots Industri eta Teknologi Garapenerako Zentruak izan duen inbertsio-iharduera eza (Gobernuak erakunde honek organismo autonomo izatetik sozietate izatera igarotzeko izan duen eraldakuntzari egozten zion errua), 1983an elektronikaren sektorean egon den inbertsioen geldialdia

(1) MINER ; 16 or. (azpimarratua nirea)

(INSALUDen batez ere), CECSAren ordainketa-etendura eta hain garrantzizko ziren Plan Elektroniko eta Informatiko Nazionalaren, Telefonikaren lau urtetarako planaren eta abarren atzerapen eta murriztapenak aipatzekoak dira.

Plan Elektronikoaren atzerapena UGTek gogorki salatu zuen: honen aburuz plan hau "industri birmoldaketa baino lehen onartu behar zuketen birrindustrialtzearen eragiletzat erabiltzeko eta siderurgia, untzigintza, oihalgintza, elektratresnagintza eta altzairu bereziak bezalako sektore helduetan galtzen ziren lanpostuen ordez beste berriak eskaintzeko" (1). Plan hau zela eta, ministrarien artean ere zenbait liskar sortu zen; plan hori 1982ko erdialdeaz geroztik aztertu eta prestatzen ari zen baina Ekonomi Zereginetarako Batzordean ezetsi egin zitzaion Boyer batzorde horretan guztiz aurka jarri bait zitzaion (Telefonikaren lau urteta rako plana aintzakotzat ez hartzeagatik eta sektoreko enpresentzat gehiegiko babeskuntza emateagatik ez-ezik).

Boyeren ustez plan honek diru gehiegi eskatzen zuen (egiteko ziren inbertsioak biloi batekoak ziren, eta Boyerek 200.000 miloitako gutxipena iritsi nahi zuen), diru horrekin lanpostu gutxi sortzen zen eta, gainera, plan horrek espainiar enpresarien konfidantzarik ez zuen. Ministrari hau erabat kezkatuta agertzen zen ments publikoarekin; haren kalkuluen arabera "Estatuak enplegua gutxituko duen birmoldaketan biloi bat eralgiko zuen, enplegu netorik sortuko ez duen telefonika eta elektronikako inbertsio etan 800.000 miloi, emplegurik sortuko ez duen energi sektorean ere beste biloi bat, RENFEn lanpostuak gutxitzeko 705.000 miloi, eta guzti honi INIren enpresa publikoek dituzten galerak erantsi behar zaizkiolarik. Hau da, geure eskuak lotuak ditugu, enpresa publikoen mentsak direla medio izugarrizko dirutzak lurperatuz. Diru hori sektore publikoa eta enpresa txiki eta ertainak finantziatzerako erabiliko balitz, hamaika lanpostu sortuko litzateke. Horregatik guztiz beharrezko zaigu egun geure eskuak lotzen dizkiguten baliabide horiek askatzea" (2).Boyer,horrela, Estatuaren lehenengotasunaz espainiar bizitza ekonomikoan goganbehar, eta bat-bateko doikuntzaren aldeko agertzen zen.

---

(1) El Diario Vasco, 1984 Urtarrila 17
(2) El Diario Vasco, 1984 Otsaila 18

Baron-en ustez, aldiz, plan elektroniko nazionalarekin (Telefonikaren lau urtetarakoarekiko koordinakuntzan) Espainiako etorkizun ekonomiko eta teknologikoa jokuan zegoen eta beraz haren onarpena presazkoa zen, eta aurrikusitako inbertsioetan ezin zitekeen errekardiratu pezeta bat ere. Gainera, espainiar enpresariek ez lukete telekomunikazioetan inbertituko eta, Estatuak ez egitekotan, Espainia atzeratua gelditu ko litzateke. Oro har, bat-bateko doikuntzaren ordez, Baron doikuntza aurrerakorraren aldekoa zen, zeren eta bestela egundoko ondorio ekonomiko eta sozialak izango lukeen gatazkatasuna sortuko bait litzateke eta doikuntza aurrerakorraren bidez, oraingo lanpostuak mantenduz epe ertain eta luzera Boyer-ek zituen helburu berberak irits litezkeelakoan bait zegoen.

Azkenean Plan Elektroniko Nazionala 1984eko Urtarrilean onartu zen (Solchaga gai honetan Baron-en alde azaldu zen); RENFErenaz Otsailean akordio-hasiera batetara heldu zen (RENFEko lehendakariak eskaturiko 800.000 miloitako inbertsioetatik 70.000 miloitako kenketa egin zen), Telefonikoaz ere (hasierako plana 802.000 miloi pezetakoa zen; Boyer-en ustez ez zegoen 600.000 miloi pezeta baino gehiagoko inbertsiorik egiterik; Industri ministraritza puntu honetan ere Baron-en aldekoa izanez, artekaritzat ibili zen eta 745.000 miloi pezetatan adostasuna lor zitekeela zeuden); Plan Energetiko Nazionalari, franko atzeratua, 1984eko hasieran ekiten zitzaion...

Laburbilduz, aitorpen eta aldarrikapenetan gobernu sozialista industri sustaketarako estrategiaren premiaz behin eta berriro aritu izan bada ere, errealitatean ezer gutxi egin du hari behar bezala heltzeko, egindakotxoa atzerapen handiz egina izan delarik.

## 2.3.3.- Liburu Zuriaren birmoldaketa-politika.

Aurreko ataltxoetan sozialisten birmoldaketa-politika industri eta ekonomi politikei nola estekatzen zaien arakatu dugu. Oraingoan, berriz, birmoldaketa-politika soil-soilik, besteekiko

isolaturik alegia, hartuko dugu aztergai. Horretarako, sozialistek UCDren birmoldaketa-politikari egindako kritika txit interesgarria da: hartan oinarrituz beren politika eraiki ahal izango bait dute. Puntu hau, ordea, UCDren birmoldaketa-politikaren kritika alegia, kapitulu batetan ukitu denez gero, gu hemen zuzen-zuzenean sozialistek beren gobernuaren lehenengo hiletan birmoldaketa-politikari buruz agerturiko hastapen eta jarrerak azaltzen saiatuko gara. Lehenengo hilabete hauen emaitza osatuena "Industrialkuntzari buruzko Liburu Zuria" da.

2.3.3.1.- Birmoldaketa-politikak gerizaturiko sektoreak.

Sozialisten barrutitik UCDren birmoldaketa-politikari egindako kritika bat birmoldaketa honek gerizatuko zituen sektoreei buruz zegoen zehazgabetasunean zetzan. Zehazgabetasun horrek "Industri birmoldaketarako legepean hamaika sektore gerizatzea erakarri du praktikan, ez horrenbeste Espainiarako epe ertain eta luzerako industri lehentasunei buruzko azterketa baten ondorioz, baizik eta enpresa eta finantz talde jakin batzuk (hemengoak zein atzerrikoak) horretara presionatu dutelako edo espainiar geografiako lurralde jakin batzuren krisi sozialeko egoera larria eta gorria zelako" (1). Hasieran, sozialisten eritziz, lehen erakutsi dugunez, industri sektoreen arteko lehentasunek zehazki mugatuak egon behar zuten eta lehentasun horien arabera erabaki beharko litzateke zein sektore sartu birmoldaketa-politikaren gerizapean eta zein ez.

Hala ere, asmo planifikatzaile horiek makalduz joan zitzaizkien pixkanaka-pixkanaka eta Liburu Zurian, jadanik, Gobernuaren aburua bestelakoa zen gai honetaz. Birmoldatzeko sektoreen aukera-erizpideez zera adierazten zen txosten horretan: "Erizpide zurrun batzuren aplikazioak sektoreek birmoldaketaren gerizpera sartzeko egingo zituzten eskaera indiskriminatuak uxatuko balitu ere, (...), industri birmoldaketako politikari buruz Gobernuak duen ahalmena biziki mugatuko luke... Eskaera indiskriminatuak aurkez litezen arriskua aukera-erizpide orokorren aplikazioaren bitartez baino, birmoldaketa-politikaren tratamendu pean sartzeko pro

(1) Ortún eta Sanchez-Junco; 69 or.

dukzio-sektoreek izango duten prozeduraren diseinu egokiaren bidez baztertu behar da. Honek esan nahi du sektorea birmoldaketa-plan baten hegapera igaro ahal izateko, horrekin zerikusia duten alderdi guztiei sakrifizio-baldintza batzu exijituko zaizkiela"(1).

2.3.3.2.- Birmoldaketarako lagunbideak.

Birmoldaketaren zerbitzupean jarritako baliabide eta neurriak hiru talde nagusitan sailka daitezke: finantzarioak, fiskalak eta soziolaboralak. Sozialisten egiazko ekarpenak edo berrikuntzak finantzario eta soziolaboralean jazo dira; horregatik, atal honetan horietara soil-soilik mugatuko gara.

- Sozialistek argi dakusate hasiera-hasieratik baliabide publikoak ez direla aski birmoldaketa aurrera eramateko eta, beraz, pribatuak ere prozesu honetara bideratu eta engaiatu behar zirela (2). Honela azaltzen zuen Soltxagak puntu hau "Actualidad Económica"n berari egindako elkarrikusketa batetan: "Gauza bat garbi dago: Industri birmoldaketak eskatzen duen dirua ez da Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik jalgiko... Ezinezkoa da: mentsaren egoera izugarria da; zerga-presioaren emendioa ere -iruzurraren kontra jo eta ke burrukatu arren- ezin daiteke gehiegikoa izan (...) Honetatik ondorioztatzen da industri birmoldaketaren finantzapenak hein handi batetan sektore pribatutik, arte kariek bideraturiko aurrezkitik, etorri beharko duela" (3).

Hau zela eta, bankuetxe pribatuen baliabideak eskuratzearren zera erabakitzen da: "Con el fin de instrumentar esta canalización de fondos se considerará computable dentro del subcoeficiente de inversión de capitales riesgo (de próxima creación), tanto la financiación otorgada directamente por las entidades bancarias a las empresas afectadas por los planes de reconversión, como la adquisición de títulos emitidos por el I.C.O. especificamente orientados a la captación de recursos que serían utilizados por el B.C.I. para la financiación de la reconversión

(1) MINER ; 231 or.
(2) Solchaga 1; 46 or./ MINER ; 239-241 orr.
(3) Actualidad Económica 1311 zb. 1983 Uztaila 14-20

industrial" (1). Horrez gainera, birmoldaketako enpresatarantz aurrezki pribatua bultzatuko luketen pizgarriak, eta birmoldaketako enpresen zorren puska bat behin-behineko kapitaltzeaahal bideratuko luketen tresnak ipintzen dira.

Azkenik, finantz neurriei dagokienez, Kreditu Industrialeko Bankuan finantz planifikazio eta kontrolaren arduraduna izango den Sail berezitua sortzen da.

- Neurri soziolaboralen kontuan birmoldaketa-politika sozialistaren berezitasun handiena (ESF) Enplegu-Sustapenerako Fondoen instituzionalizatzea da. Lan-kontratuak iraungiz erabateko desenplegura igaro diren birmoldaketako sektoreko langileak sartuko lirateke fondo honen gerizpean.

Fondo honek eskainitako babeskuntza honako honetan etzanen litzateke:

. Desenplegu-babeskuntzaren intentsibitatearen hobakuntzan: ESFra bidalitako langileen oinarrizko prestazioak (eta horrela izatekotan, osagarriak ere) osatu egiten dira langile hauek jasoko duten diru-kopurua ekin edo aktibo gelditu diren langileen batezbesteko alokairuen portzentaia jakin batetara hel dadin. Hobakuntzaren ehunekoa birmoldaketa-planean edota langileen ordezkariekiko itunetan ezarri beharko litzateke.

. Birmoldaketak jotako langileen birralokatzerako gestio ekinean: egipide honen bidez langileen hezkuntza eta langile hauentzako lanpostu berrien sorrerarako pizte ekonomikoa (enpresentzako ekarpen itxulgabeen bitartez) zertuko lirateke.

ESFen finantzapena langileen borondatezko ekarpenez (nola langile iraitzien kalteordain edo indemnizazioez, hala bere enplegua gorde duten sektoreko langileen borondatezko sorospenez) eta birmoldaketa-enpresenenaz osatuko litzateke. Era horretan, Gobernuaren ustez, langileei emandako kalteordaina alferrik galdu beharrean enplegu berrirako pizgarri bilakatzen da eta lanpostua galdu eta mantendu duten langileen elkartasuna indartzen

(1) MINER ; 240 or.

da (1).

ESFen gobernu-organoetan enpresen, langileen eta INEMen ordezkariak egongo dira.

2.3.3.3.- Sektorea birmoldaketan aldarrikatzea eta haren planaren elaborapen eta onarpena.

Birmoldaketa-prozesua taiuz aplikatzen eta instrumentatzen ez badira, birmoldaketarako neurriek beren eraginkortasuna galtzen dute. Hirugarren puntu honetan, birmoldaketa-prozesu honen lehen oinarrizko ekitaldia aztertuko dugu(2).

Birmoldaketarekin zerikusia duten alderdien erakunde ordezkariek, behar den bezala justifikatua egongo den harrera-eskaera (horretarako Liburu Zurian eskaera horren gutxienezko puntuak mugatzen dira: sektorearen eragipena, neurririk ez hartzekotan, enpleguan, pagamendu-balantzan eta abarretan; epe ertainerako bideragarritasuna...) aurkez diezaiokete MINERi; honek, eskaera eta konpromezu horiek aztertzen ditu eta azterketaren ondorioa positiboa izatekotan eta sektorea espainiar industri politikaren etorkizuneko ardatzetan sartzen dela, eta jartzen zaizkion baldintzak onartzen dituela, uste izatekotan, (ZEBO) Zeregin Ekonomikoetarako Gobernuaren Batzorde Ordezkarira igortzen du saloa, honek, Administrazioaren ordezkariez, birmoldaketa posible horren Behin-behineko Organo Artezlea osa dezan. Organo honek, dihoazkion sindikatu eta ugazaberiari dei egingo die,epe jakin batetan sektoreko birmoldaketa-plana elabora dadin.

Horrela elaboratu behar den planak, gutxienezko alderdi batzu ikutu behar ditu: sektoreko egoera, eskariaren egoera eta aurrikustapenak, birmoldaketaren oinarrizko helburuak (sektoreak birmoldatu ondoren, izanen duen industri egitura: enpresa edo gestio-unitateak, ekoizkin-hilarak etab.), inbertsio-plana, enpresa-egitura egokia, beharrezko doikuntzak (finantzarioa, laborala etab.), haren kostu eta sakrifizio-banaketa, garatzeko neurriak eta haien instrumentalizazioa (egipide eta jarraitze-orga

(1) MINER ; 242-245 orr./ Solchaga 1; 48 or.
(2) MINER ; 232-234 orr./ Ortún eta Sanchez-Junco; 70 or./ Solchaga 1; 48 or.

noak: eskuhartze eta ahalmenak).

Hiru alderdien artean planari buruzko akordio batetara iristen bada, plan hori ZEBOra igortzen da berronets dadin. Hiru alderdien artean akordioa ez lortzekotan eta Organo Artezleak sektorearen birmoldaketa premiazkotzat joez gero, Organo honek, bere aldetik, Plan bat igor diezaioke ZEBOri, honek kontsidera dezan.

Behin ZEBOk plan hori aztertu eta onartuz gero, Gobernuak, MINERen saloa hartu eta gero, Erret Dekretuaren bidez, sektore hori birmoldaketan aldarrikatu ahal izanen du.

2.3.3.4.- Birmoldaketa-planaren garapena: egipidea eta jarraipena.

Birmoldaketa-prozesuaren bigarren ekitaldia planaren garapena eta instrumentazioa da. Honek bi alderdi hartzen ditu: planen gestioa eta planen jarraipen eta kontrola.

- Planaren egipiderako Birmoldaketa-elkarte edo antzeko erakundea eraikiko da. Lehenago erakutsi dugu Administrazioak planen egipidean erakutsitako zurruntasun eta ezgaitasuna; hori kontzeko asmoz Gobernu sozialistak arestian aipaturiko erakundeak, birmoldaketa-elkarteak alegia, bultzatu nahi ditu. Sektore batetik bestera planen ezaugarri bereizgarriak agertzen dituzte; hala ere, sozialisten birmoldaketa-politikaren asmoa Birmoldaketa-elkarteen erabilera indartzea da. Birmoldaketa-elkartea zertan datzan ongi ulertzeko hauei buruz Liburu Zurian agertzen den lerroaldea honetara aldatzera izanen da hoberena:

"Birmoldaketa-elkartea, MINERen ardatz orokorren pean, Birmoldaketarako Errege-Dekretuaren hegapean enpresen berregituraketen eta sektorearen birmoldaketen eragiketak koordinatzeko eta bultzatzeko sorturiko Elkarte Anonimoa da. Horien akziodunak Planek ukitutako enpresak eta, noizik behinka, Estatua bera dira. Halaber, Administrazioak enpresei ematen dizkien finantz laguntzak bideratuko ditu. Berebat, birmoldaketa-planekiko industri

sustapenerako iharduerak bere gain hartzeaz edo indartzeaz arduratuko da, bai berrikuntza eta garapen teknologikoko alorrean (ikertzeko elkarteak, teknologi erosketak, ekoizkin berrien diseinua etab.), bai birmoldaketak ukituriko lurraldeetan industri enpleguaren sorreran (presazko birrindustrialkuntzako lurraldeak) (1).

Elkarte honen administrazio-kontseilua, akziodunen Biltzar Orokorrak izendatuko du, hauetan % 50 MINERek proposatuak izango direlarik; zerga-erregimen bereziaz funtzionatuko dute eta haien finantziapena kapital sozialez, eman lekizkieten subentzioez eta enpresen ekarpenez osatuko da. Elkarte hauek ez dute lukroa helburutzat (2).

- Birmoldaketa-planean ipinitako helburu eta engaiamenduen betetze eta iristea bermatzearren, Jarraitze-Batzordea eratuko da. Honetan MINERen ordezkariek, sindikatuenek eta ugazaberiarenek eskuhartuko dute. Birmoldaketa-planean zehaztuko da sektorean aplikatuko den jarraitze eta kontrol-sistema eta enpresei galdatuko zaien informazio sistematikoa.

Derragun, birmoldaketa-planaren garapenari dagokionez bukatzeko, Liburu Zurian ez direla kasik aipatzen ematekoak diren laguntzei buruzko erabaki-moldeak etaadministrazio-izapidatzea dela medio sortu izan diren arazoak. Eskuharki gai honetaz sozialistek nahikunde-aitorpenak egitera mugatu dira. Diogunaren lekuko hor dauden Solchagaren hitzak arazo honetaz: "Aurrerantzean laguntzen izapidatzea ahal den gehiena bizkortuko da, haiei loturik dauden Sail ezberdinen Zerbitzu eta Organismoen koordinakuntza estuagoan ahaleginduz; era honetan izapide burokratikoak bizkortu eta laburtuko dira, horretan sarturiko gastu publikoaren beharrezko fiskalizapena, noski, gutxitu gabe" (3).

---

(1) MINER ; 235-236 orr.

(2) MINER ; 235-236 orr./ Ortún eta Sanchez-Junco 72 or./ Solchaga 1 ; 48 or.

(3) Solchaga 1; 48 or.

## 2.3.4.- Liburu Zurian oinarrituriko birrindustrialkuntz proiektuak jasotako kritikak eta aldaketak.

Azaroaren hasieran hasi ziren Administrazioaren, sindikatuen eta ugazaberiaren artean birrindustrialketarako legeari buruzko negoziaketak. Administrazioak eztabaidarako aurkeztu zuen projektua Liburu Zurian oinarrituta zegoen. Hala ere projektu horretan Liburu Zurian zehazgabe gelditurikо neurri batzu xehatzen dira: halanola lehenengo aldiz mintzatzen da 55 urteetako jubilazioaz, 36 hilabetetako langabezi prestazioez, erregulazio pean dauden langileek salario errealen % 80 kobratzeaz, eta Estatuaren baliabideak eskatzen dituzten enpresekiko sektore publikoak izango dituen kontrolbideez.

Nahiz Liburu Zuriari nahiz geroko birrindustrialkuntzarako projektuari hainbat kritika egin zitzaien. Horietako batzu negoziaketa luze eta neketsuen ondoren (nahiz eta Administrazioak hasiera batetan negoziaketen epetzat Azaroaren 22a jarri -beste la "Gobernuak, bere erantzunkizuna hartuz, legebiltzarrean sozialisten botoez projektua onartuko luke"- eta Ministrari-kontseiluak lege-dekretuaren projektua Azaroaren 30ean onartu, negoziaketak jarraitu ziren eta Ministrari-kontseiluan onarturiko projektuari, legebiltzarrean, hiru luzapenen ostean, 1981eko Abenduaren 27an behin betikotz onartua izan baino lehen, aldaketak sartu zitzaizkion), Administrazioak onartu zituen eta gai honen araugintzak zeukan premiatasun eta presa zirela bide, Legedekretu gisa izapidatu eta 1981eko Abenduaren 27an espainiar legebiltzarrak onartu zuen Erret Lege-Dekretuan jasoak izan ziren.

Ikus ditzagun indar sozialek Gobernuak aurkezturiko egitasmoari egindako kritikak eta haien eragina azkenik onarturiko araugintzan.

2.3.4.1.- Laguntz neurriei buruzko kritikak (1).

2.3.4.1.a.- Finantz neurriei egindako kritikak eta irazkinak.

UGTek, Corcueraren ahoz, industriaren oinarrizko sektoreen tzako, kutxa-koefiziente baten bidez, banku pribatuen ekarpena positibotzat jotzen bazuen ere (2), geroago, beste sindikatuak eta zenbait komunikabide bezala, kezkaturik agertu zen, koefizi ente hau zela bide, enpresa txiki eta ertainen finantzapenerako sor litezkeen dirua eskuratzeko zailtasunez eta beste sektoreen tzako korritu-tasa izan lezakeen igoeraz. Sindikatuek bestalde, birmoldaketan zeuden enpresek Gizarte-Segurantza eta Altxorrare kin zituzten zorrak kreditu eskuhartzaile bihurtu ahal izatea eskatzen zuten.

CEOEk, bestalde, erakunde publikoekiko kreditu eskuhartzai le hauei ez zien susmo onik hartzen, haien atzetik noraezeko na zionalizazio batetara irits bait liteke. Hala ere, bildur hauek berehala aienatu ziren Gobernuak emandako azalpenengatik. Hone- la adierazten zuten beren eritzia komunikabideei gai honetaz: "Dekretuan (hots 1983ko Azaroaren 30an Ministrari-kontseiluan onarturikoaz ari dira) garbi geratu zaigu kreditu eskuhartzaile ak kreditu besterik ez direla, eta ez akzio-eskuhartzeak; ez du te inongo eskubiderik ematen sozietatearekiko" (3)

(1) Neurri hauen laburpena ondoren doan fotokopian

(2) Ikus adibidez 1983ko Ekainaren 6ko El Diario Vasco

(3) El Diario Vasco 1983 Abendua 12

FINANTZ NEURRIAK

(9, 10, 11 eta 12 art.)

- Ondare-eskualdaketa eta egintza juridiko agiridunen gaineko zergan, IGTE eta mailegu kreditu ekuhartzaile, jesapen eta kapital-gehipenen gaineko probintzi gainkarguen % 99ko hobaria.
- Beharrezko ondasunen inportazioen IGTE, Arantzel-eskubide eta Barne-Zamen Zerga Konpentsatzailean % 99ko hobaria
- Birmoldaketarako beharrezkodiren aktiboko elementuen amortizapen askea.
- Jasoriko subentzioak enpresak erabakitako ekitaldian sarretzat konputatzeko ahalmena
- Inbertsioengatiko kenketa,baimendurik dagoen tipo handiena ez eginen da. Ekitaldi bakoitzean kenketa Sozietate-Zergaren kuotaren % 40 baino handiagoa ezin izan daiteke, baina ehuneko horretatik gorakoa ondorengo ekitaldietan aplika daiteke. Birmoldaketa-Planaren plikazioa dela bide, egindako plantila-murrizketek ez dute kenketa baldintzatuko
- Oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzeko epeak, emaitza positiboez bukaturiko lehenengo ekitalditik aurrera sartuko dira indarrean.
- Enpresen bategitei buruzko - 76/1980 Legean dauden hobari -ehunekoak, Birmoladaketako E.D.an ezarriko dira. Bategite edo zatikatzei buruzko erabidea Ekonomi eta Finantz Ministraritzak ezarriko du.
- Ordezkatu eta ez-salduriko - instalazioen kontabilitate--balio garbia IRPF edo Sozietate-Zergatik kengarri izanen da.
- Gizarte-Segurantza eta Zergeekiko zorretan zatikapen eta gerorarzeak eskain daitezke.

ZERGA-NEURRIAK

(8. artikulua)

- (KEO) Kreditu-Erakunde Ofizialekiko zorraren bernegoziaketa.
- Lehentasunezko atzipena Kreditu Ofizialera.
- KEOen abalak, zeinek barne izan dezakete lan-neurriak finantziatzeko enpresen ekarpenei buruzko bermea.
- Ofizial ez diren finantz erakundeen korritu-tasak beheratzeko subentzioak.
- Enpresei, zuzenean edo Birmoldaketa-Elkartearen bidez, subentzio-emateak.
- Etorkizuneko emaitza-kontuen araberako subentzio itzulgarriak
- Finantzetxeek fondo-ekarpen berriak derrigorrezko inbertsio--koefizientean konputa ditzakete
- Burtsan kotizatzen diren enpresek zaharren azpitik balio nominala duten akzioak jaulki ditzakete. Akzio berriek, gehienezko nominaleko akzio zaharrek dituzten eskubide berberak izanen dituzte.
- Erakunde publiko edo pribatuek korritu hitzartua duten kreditu eskuhartzaileak eman ditzakete.
- Burtsan jaulki eta kotizaturiko baloreak kotizapen koalifikatukotzat joak izanen dira.

LAN-NEURRIAK

(16.etik 23. artikulura)

- Birmoldaketa-planak beharrezko plantila-doikuntzak, aplikazio-egutegia, higikortasun goegrafiko eta funtzionalerako erizpideak, hezkuntza eta lanbide-berregokitzapenerako egitarauak eta alokairu-politika zehaztuko ditu.
- Planaren pean hartuak izatea nahi duten enpresek, eskabidearekin batera Enpresa-komiteak aurreko puntuei buruz egindako txostena aurkeztu beharko du.
- Lan arazoei dagokienez, Birmoldaketa-Planaren onartze - soilak arrazoi teknologiko, ekonomiko, tekniko edo organizatibotzat joko da.
- Aldi baterako etenduren edo lanegunaren murriztapenen kasuan 51/1980 Legearen 20.3 artikuluan aurrikusia dagoen Gizarte-Segurantzako kuoten arintzea aplikatuko da.
- Lan-erlazioen iraungipenengatiko kalteordainak zatika daitezke, geheinik jota, 12 hilabetetan. Haiek ezin izan daitezke, inola ere, landun edo ekin jarraitzekotan langileak irabaziko lukeen kopurua baino txikiagorik.
- Langabe geldituriko langileek desnplegu-prestazioak legeak ezarritako aldi luzenean zehar jasoko dituzte, aldez aurretiko kotizazio egiaztatuak zeinnahi direlarik ere.
- Birmoldaketako Erret Dekretuak Enplegu-Sustapenerako Fondoaren eraikuntza aurrikus dezake. Honen helburuak desenplegu-prestazioak hobetu eta luzeraztea eta gainera tiko langileen birralokapen eta lanbide-berregoki - tzapenari laguntzea da. Enplegu-Sustapenerako Fondoen arauketa Erret Dekretuz eginen da.
- 60 urte edo gehiago duten langileek, aldez aurretiko jabilazioaren baliokidezko laguntzak izan ditzakete. Hauek langileari bere azken 6 hilabeteen batezbesteko ordainketaren % 75 bermatuko diote, jubilazio-adina iristekotan legokiokeen pentsioa muga edo zede zaiolarik. Aldi honetan langilea altan bailegoen joa izanen da, jubilazio-adin orokorra iristean pentsioa eskubide osoez lor dezan.

BESTE ZENBAIT NEURRI

( 13.tik 16. artikulura)

- Enpresa-bategiteen kasuan, akziodun ezakortek bakar-bakarrik izanen dute separatzeko eskubidea. Horrelakoetan, beren akzioen truke, azken urteko batezbesteko prezioa ordainduko zaie. - Akzioak Burtsan ez kotizatzekotan, enkantean salduko dira.
- Bategiteko diren enpresen harduruek sozietate zordunaren ondasunekiko lehentasuna gordeko dute eta, gainera, sozietate eraiki berriak bere ondasun guztiez erantzunen dio kitapenari.
- Sektoreko industrien jarpen, zaltze eta lekualdaketa Industri eta Energi Ministraritzaren aldez aurretiko administrazio--baimentze pean egon daiteke.

2.3.4.1.b.- Gizarte eta Lan-neurriei egindako kritikak eta irazkinak.

Itxurazkoa denez, puntu honetantxe gertatu dira Gobernuaren eta Sindikatuen arteko liskar larrienak.

- Sindikatuak, MINERek ondutako Liburu Zurian langile-gehiegitzak birmoldaketako sektoreen krisiaren zergati ia bakartzat edo nagusitzat jotzeaz eta gehiegitza horiei ematen zitzaien tratamenduaz (hots soberazko langileei beren lan-kontratua hautsi, eta ez eten, egingo litzaieke) ez zeuden batere ados eta hura aldatzea eskatzen zuten. Hausturaren ordez, etendura erabiltzea proposatzen zuten, horrela langileen berralokatzea bermatuko bait litzateke eta birmoldaketa ez bait litzateke geldituko plantilen doikuntza huts batetan. Izan ere sindikatuak ez ziren fido Administrazioak eta enpresariek lanpostu berririk sortzeko agertzen zuten borondateaz (oroit industri sustapenaz projektu sozialistak zuen hutsunea eta Aceriales-en ESFtik langileek ateratako irakaspenak).

UGTren ustez, langile-gehiegitzak ebazteko erabideak ez luke lege berrian egon behar, baizik eta plan sektorial bakoitzean eztabaidatua izan beharko luke, hots, gehiegitza horiekin zer gertatuko litzatekeen negoziatzeko askatasuna galdatzen zuen. Gobernuak (Solchagak batez ere), aldiz, ez zuen amor eman nahi. Azaroaren 30ean Ministrari kontseiluak onarturiko projektuan Gobernuak erdibideko formula bat aukeratu zuen: "la aprobación de un plan de reconversión será considerada como causa tecnológica o económica o, en su caso, técnica u organizativa, a los efectos de que las empresas acogidas al mismo puedan modificar o extinguir las relaciones laborales y aplicar medidas de movilidad geográfica y funcional de conformidad con los objetivos y normas de procedimiento establecidos en el citado plan".

Sindikatuak, ostera, ez dira konforme gelditzen formula honekin ere. Negoziaketak Abenduaren hasieran hautsi egiten dira. Gobernuaren barruan ere denok ez ziren aburu berekoak; Ministrari-kontseiluan lan-kontratuaren hausturaren alde Solchaga, Boyer eta Almunia bakarrik agertu bide ziren argi eta garbi. Azke-

nean PSOE eta UGTren batzorde beterazleen artean egin ziren negoziaketa batzutan UGTren planteamenduak onartuak izan ziren: ESFra lan-kontratua hautsi zein etena dutenak sar litezke. Hau zela eta, nahiz UGT nahiz ELA-STV lege-dekretuaren idazkera berriaz ados geldi tzen dira (1). Haatik, espainiar legebiltzarrean lege-dekretu hau onartua izan behar zuenean ELAk haren aurka agertzen du bere burua: emandako urratsa positibotzat jotzen bazuen ere, haustura/ /etendura eztabaida sektore bakoitzera lekualdatzea kritikatzen du (2). CCOOentzat ere egindako aldaketa ez da aski; haren irudiko ESFetara sartzeko haustura edo etenduraren kontuan anbiguetatea jarraitzen da.

Solchagak, horregatio, lehengo lepotik burua: "Birmoldaketa-legean hausturari buruzko gudua galdu dut, baina gerla ez" aitortzen du enpresariekin izandako topaketa batetan. Aceriales-en kasuan ere lan-kontratuen haustura nahi zuen. Sozialisten arteko burruka latzaren ondoren eta euskal komunitate autonomoan egiteko ziren hauteskundeen aurrean, atzera jotzera behartua ikusi zuen bere burua, ordea, eta birrindustrialketako lege-dekretua aplikatzeko zen lehenengo sektorean kontratuen etendura onartu behar izan zuen. UGTrentzat Aceriales-en gertaturikoa beste sektoreetan jazoko zenaren jarraibide edo prezedentetzat jo behar da.Dena den, enpresak itxi eta desagertu diren tokietan lan-kontratuen mantenua itxura hutsa besterik ez zela izango onartu lezake UGTek;"baina kontratu-erlazioen mantenua, etenak badira ere, funtzionatzen jarraitzen diren enpresetan langile-gehiegitzarentzat birralokatzeko konpromezuaren bermea da" harentzat (3).

- ESFren finantzabideaz Administrazioaren saloa eta sindikatuen nahiak ez zetozen bat. Sindikatuen ustez Fondo hauek enpresariek bakarrik finantziatu beharko zituzten eta ez langileek (iraitzien kalteordainez eta landunen alokairuen portzentaia batez, hots elkartasuneko kuota delakoaz), Administrazioak gura bezala.

Azkenean, 1984eko Otsailaren 8ko Ministrari-kontseiluan aztertu zen ESFei buruzko Erret Dekretuaren textuan, fondo hauen finantzabideen artean honako hauek aipatzen ziren: langileen ekarpenak, enpresen borondatezko ekarpenak, haien ondarearen finantz egipidetzatik eratorririko baliabideak, subentzioak eta erakunde publiko zein pribatuen beste zeinnahi ekarpen.

(1) La Voz de Euskadi 1983 Abendua 24/El Diario Vasco 1983 Abendua 26.
(2) El Diario Vasco 1983 Abendua 28
(3) El Diario Vasco 1984 Urtarrila 26

- Fondo hauetara igaroko zirenen prestazioak ez ziren zehazten Liburu Zurian. Hori zela eta, sindikatuek gobernuari argibideak eskatu zizkioten. Birrindustrialkuntzarako lege-dekretuaren projektuan Gobernuak bere jarrera azaldu zuen:

. Fondoetan sartzeko diren langileak 36 hilabetez balia litezke desenplegu-babeskuntzaz, aldi horretan Fondoan sartu aurreko sei hilabeteetan irabazitako batezbesteko alokairu errealen % 80 kobratuko dutelarik.

. Berrogeitahamabost urte edo gehiago dutenen kasuan desenplegu-babeskuntza 5 urtetaraino irits daiteke, hots 60 urte bete arte. Adin horrekin aldez aurretiko jubilazioa har leza kete eta 65 urteetara heltzean sistema arruntari lotu ahal izan go litzaizkioke.

. Hirurogei urte edo gehiago dutenen kasuan, aldez aurretiko jubilazio pean sartuko lirateke ohizko den bideaz.

Sindikatuek, bestalde, Fondoan zeuden langileen hartzekoen eguneratzea eskatzen zuten. Fondora sartutako berrogeitamabost urte baino gehiagoko langileen kasuan ere arazoak zueden: lege-aurreprojektuan zegoen idazketaren arabera, haien hartzekoak txikiagoak ziren langabeziara zuzenean joan eta jubilazioa hartzen zutenenak baino.

Azkenean, 55 urte baino gehiagoko langileentzat Administrazioaren hasierako jarrera aldatu zen: pertzepzio-erregimen orokorrean lehenengo hiru urteak igaro ondoren, hartzekoak eguneratu egingo litzaizkieke haiei lihoazkieken enpresen hitzarmenetan egondako emendioen arabera. Langile horiek behin aldez aurretiko jubilazioa hartuz gero, haien hartzekoak birrindustrialtzeko lege-dekretuaren 23. artikuluaren arabera arautuko lirateke.

Azken idazketa honek birrindustrialkuntzarako lege-dekretua UGTrentzat onargarri bihurtzen bazuen ere, ELA-STV eta CCOO ez ziren harekin gelditu, nahiz eta lehenengo projektuarekiko egondako aldaketek textua hobetu zutela aitortu: ELA-STVk "60 eta 65 urteetako jubilazio-prestazioetan egondako mozketa"

kritikatzen zuen; CCOOentzat, neurri soziolaboralei zegokienez, "egoera ez zen ia fitsik ere aldatzen birmoldaketa-suposapeneta rako lehen zegoenarekiko, ANEan sorospide osagarria sartu ondoren batik-bat".

- ESFen figurari buruz ere, sindikatuek beren kezka eta susmoak agertu zituzten (UGT eta ELA-STV) edo jadanik hasiera-hasieratik beren ukoa (CCOO). Lehenengoen ustez ESF hauek enplegua sortzen saiatu behar zuten, birralokatze-bulego soiltzat agertzera mugatu gabe. Comisiones-entzat, aldiz, fondo hauek "langile-gehiegitzen egoera partzialki hobetzen badute ere, ez daude birrindustrialtze-projektuen bidean, baizik eta langabe--burtsak besterik ez dira"; "langabezi burtsa pribilegiatuak baizik ez dira eta ez dute inongo birralokatze-efektu errealik". Gainera, CCOOen aburuz, "Aceriales-en fondoan ehun batzu dira, baina krisitango sektore guztietan praktikatzen bada, milaka langabe duten zonen metapena izanen dugu, haien enplegu-arazoa enpresari txikiari esker konponduko ez delarik"; hau da fondo hauek jeneralizatzen badira, bere eraginkortasun guztia galtzen dute CCOOen ustez.

2.3.4.1.d.- Neurri fiskalei egindako kritikak eta irazkinak.

Alor honetan sozialistek ez dute ezer gutxi berririk ekarri eta Bayon-en projektuari sozialistek berek egiten zizkieten kritikak berak, bere birmoldaketa-politikari egin lekizkieke. Sindikatuek ere ez dira asko arduratu gai honetaz: CCOOek salatu izan du exentzio fiskalak subentzio-gastutzat kuantifikatu gabe jarraitzea; gainerako sindikatuek zuzeneko subentzioekiko Administrazioaren kontrola areagotu behar dela adieraztera mugatu dira.

## (PIL) PRESAZKO INDUSTRIALKUNTZAKO LURRALDEAK

( VII. Kapitulua - 24.etik 32. artikulura)

Birmoldaketa(k) biziki jo duen lurraldea

↓

MINISTRARI-KONTSEILUA

↓

**PRESAZKO INDUSTRIALKUNTZAKO LURRALDEtzat aldarrikatzen duen Erret Dekretua**

Erret Dekretuaren edukina

- Lortu nahi diren helburuak
- PILen mugatze geografikoa
- Sustatuko diren iharduerak
- Enpresentzako mozkinak:
  - . Subentzioak
  - . Lehentasunezko Kreditu Ofiziala
  - . Zerga-mozkinak (5 urtetarako ematen dira, beste bostetarako lugarri direlarik)
    - Inportatu beharreko ekipamendu-ondasunen IGTE eta Barne-Zamen Zerga Konpentsatzailean % 99rainoko hobariak
    - Dagokion Tokiko Erakundeak horrela erabakitzekotan, Tokiko - Gorporazioen ariel eta tasetan % 99rainoko hobariak
    - Amortizazio-plan bereziak

**P.I.L.aren BULEGO BETERAZLEA**

Eginkizunak

- + Batzorde gestiogilearen erabakiak beterazi.
- - Neurrien aplikapena koordinatu
- - P.I.L.en premiak ikertu eta Batzordeari aditzera eman
- - Egitasmoen kapifikapen-saloak Batzordeari bidali

**P.I.L.en BATZORDE GESTIOGILEA**

Osaera

- Estatuaren Administrazioa
- Komunitate Autonomoaren Administ

Eginkizunak

- Lurraldean inbertsio-planak sustatu.
- Enpresentzako azpiegituraren sorrera eta laguntza asistentziala proposatu (teknologi berrikuntza asistentziala, gerentziala, langileen birziklapen eta hezkuntza)
- Egitasmoen finantz premiak mugatu eta iturri egokiak aukeratu.
- Laguntz eskeei buruz txosten eman.
- Industri eragintzarako elkarteen eskuhartzeak enpresen kapital sozialean eragin.
- PIMES industrialentzat bereziki antolaturiko beste ekintza batzu.

ENPLEGU-SUSTAPENERAKO FONDOAK ⇄ Koordinazioa

## TEKNOLOGI BERRIKUNTZAREN ERAGINTZA

( IX Kapitulua - 35 eta 36 art.)

TEKNOLOGI BERRIKUNTZAREN ERAGINTZA

↓

**GARAPEN TEKNIKO INDUSTRIALERAKO ZENTRUA (GTIZ)**

GTIZ Zuzenbide Publikoko Erakunde bihurtzen da (lehen Organismo Autonomoa zen)

GTIZren antolaera eta osaera erregelamenduren bidez arautuko da.

Eginkizunak

- Lehenengotasunezko eremu teknologikoak zeinkatu.
- B + G Organismo eta Erakundeen eta industriaren arteko lankidetza bultzatu.
- Teknologia berrien ustiakuntza industriala bultzatu.
- Aurreserien ekoizpena eta ekoizkin eta prozesu berrien komertzialpena lagundu.
- Garapen teknologikoko edo industri diseinuko egitarau eta egitasmoetan eskuhartu, zuzenean zein kreditu-laguntzaz.
- Erpineko teknologia duten enpresetan eskuhartu.
- Ekoizkin-leheneredu eta planta pilotoak enkargatu eta ersi.
- Berrikuntza teknologikoaren - laguntzarako zerbitzu-egipideari buruzko egitaraua garatu.

**Zerga-mozkinak**

- Enpresek Sozietate-Zergaren kuota osotik ezukigarritan egindako inbertsiotatik % 15 eta B+G prozesuetara aplikaturiko aktibo finkoetan egindakoetatik % 30 ken dezakete.
- (B+G)-ra zuzendutako inbertsioen amortizazio askea
  - . Bost urtetan zehar egitarau eta burutzapen horiei loturiko ekipamendu-ondasun eta ezukigarrietan
  - . Zazpi urtetan zehar edifizioetan

2.3.4.1.e.- Beste zenbait neurri.

Aurreko hiru neurri-mota nagusiez aparte birmoldaketa eta birrindustrialtzeko Erret Lege-Dekretuan beste zenbait neurri agertzen da. Hiru taldetan bana daitezke. Lehen taldean multzo hetereogenoa osatzen duten 13.tik 16. artikulura doazen neurriak (enpresa-bategitei buruzkoak, etab.) sartzen dira. Neurri hauetaz ez da aparteko interes aurkajarririk egon Administrazioa eta indar sozialen arteko negoziaketetan, horregatik, eta erantsi dudan lauki batetan jasoak daudenez gero, ez naiz haietaz arituko.

Bigarren taldean (PIL) Presazko industrialkuntzako Lurraldeei buruzkoak daude eta hirugarrenean teknologi berrinkuntzaren sustapenari buruzkoak. Lehenago aritu gara puska batetan hauetaz eta erantsi dugun laukian ohar daitezke. Eskuharki haietan ez da interes aurkajarririk.

Aipatu besterik ez dugu egingo PIL direlakoetan sindikatuak bertan egoteko egin zuten eskaera. Galdakizun honek Estatuaren ukoa hartu zuen.

2.3.4.2.- Sektorea birmoldaketan aldarrikatzeari eta haren planaren elaborabide eta onarpideari buruzko kritikak eta irazkinak.

Liburu Zuriaren eskeman oinarriturik Industri ministraritzak sindikatuei azalduriko hasierako projektuarekin hauek ez zeuden zeharo ados. Aurki iritsi zen akordio batetara, ordea. Honen arabera, nahiz eta Ministraritza izan sektore batetarako birmoldaketa-saloa formulatzen duena, ukitutako alderdien ekimen posibleari bide irekia uzten zaio, hots, nahiz eta birmoldaketaren aldarrikapena Administrazioaren eskuetan bakar-bakarrik lagatzea, sindikatuek eta enpresa-erakundeek neurri hori proposa dezakete.

Era berean, birmoldaketa-plan bakoitzeko lehenengo zirriborroaren aurretik haien eritzi jaso beharko da, organismo ad

ministratibo huts bat izan ez dadin hasierako lan hauen arduradun bakarra.

Bestalde esan beharra dago birmoldaketaren aldarrikapenak sektorea, edo salbuespenez enpresa-talde bat, har dezakeela, sektore edo enpresa-talde hori bereziki larria den egoera batetan dagoenean eta sektorearen zuzperketa interes orokorrekotzat jotzen denean. Honek, horregatio, Comisiones-en irudiz "da pie a que se arbitren de forma más generalizada reconversiones no estrictamente sectoriales sino de empresas aisladas".

Lege-Dekretuak azkenik onartu zuen ekitaldi honen prozesua ondoko laukian ikus daiteke.

2.3.4.3.- Birmoldaketa-planen egipidea eta jarraibideari buruzko kritika eta irazkinak.

2.3.4.3.1.- Planen egipidea.


Lehen erakutsi dugun legez, planen egipidea egokiro eramatearren, zegoeneko Altzairu berezien birmoldaketan aplikaturiko figura bati, birmoldaketa-elkarteari alegia, lehentasuna eman nahi diete sozialistek. Liburu Zurian bertan adierazten zenez: "araugintza berriak unitate enpresarialen kaltetan erabaki--alor garrantzitsuak bereganatuko dituzten egipideko organo sektorialak (Birmoldaketa-elkarteak) aurrikusten ditu" (1).Birmoldaketa-elkarte hauetan Administrazioa izango litzateke akziodun nagusia, akzioen % 51 baino gehiago bere eskuetan zuelarik.

Gobernuaren projektuaren idazketa hau enpresariek ez zuten atsegin izan. Alde batetik Birmoldaketa-elkarteetan Administrazioak zuen gehiengo horretatik izkutuko nazionalizazio batetara helzitekeela uste bait zuten; bestetik, batzuk "aceriali-tis" deituriko jarrerari, hots Aceriales-en experientzia gainerako sektoreei extrapolatu nahiari, egoki ez bait zeritzaten. Honela ziharduen Alberdi-k (garai hartan ADEGUIko idazkari oro-

(1) MINER ; 227 or.

## SEKTOREAREN BIRMOLDAKETA-ALDARRIKAPENERAKO ERABIDEA

**(I. Kapitulua - 1.etik 4. artikulura)**




(*) Egitasmoaren gutxienezko edukina

- Sektorearen egoeraren azalpena
- Lortu beharreko helburuak
- Inbertsio-plana
- Enpresa-egituraren zehaztapena
- Neurriak eta baliabide industrialak,teknologikoak, komertzialak, finantzarioak eta laboralak.

Jakiniturria: Delegación del Gobierno en el País Vasco (nik euskaratua)

## BIRMOLDAKETA-PLANAREN GARABIDEA

**(II.etik VI. Kapitulura - 5.etik 23. artikulura)**

**7. Artikulua**

**BIRMOLDAKETA-ELKARTEA EDO ANTZEKOA**

Osaera
- Estatuaren Administrazioa
- Birmoldaketa pean harturiko enpresak

Eginkizuna
- Birmoldaketa-plan sektorialaren - alderdi enpresarial eta teknikoen beterazpena eta garapen eraginkorra.

Birmoldaketa-Elkarteari emandako laguntza publikoak.
- Bere eraikuntza eta deuseztapenagatik ordaindu beharreko Ondare--eskualdaketa eta Egintza juridiko agiridunen gaineko zergetan % 99-ko hobaria.
- Bere eraikuntzagatik ordaindu beharreko tokiko zergetan % 99ko hobaria.
- Sozietate-Zergan % 99ko hobaria.
- Birmoldaketa-Elkartearen eta haren osakide diren enpresen arteko eragiketengatik ordaindu beharreko --IGTEan % 99ko hobaria.
- Subentzioak. Hauetatik haren osakide diren enpresetara transferiturik ko puska ez da Birmoldaketa-Elkartearen sarrera konputagarritzat joko.
- Birmoldaketa-Elkartearen eta haren osakide diren enpresen arteko eragiketa lotuei ez zaie hauei dagozkien arauak aplikatuko.
- Birmoldaketa-Elkartea ez dago Gardentasun Fiskaleko Erregimen pean.

**5. Artikulua**

**BIRMOLDAKETARAKO ERRET DEKRETUAREN PEAN HARTURIKO ENPRESAK**

**8. Artikulua**

**ZERGEKIKO NEURRIAK**

**9-12 Artikuluak**

**FINANTZ NEURRIAK**

**16-23 Artikuluak**

**LAN-NEURRIAK**

**13-15 Artikuluak**

**BESTE ZENBAIT NEURRI**

EKONOMI ETA FINANTZ MINISTRARITZA

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTRARITZA

INDUSTRI ETA ENERGI MINISTRARITZA

**6. Artikulua**

**KONTROL ETA JARRAITZE-BATZORDEA**

Osaera
- Estatuaren Administrazioa
- Zentral Sindikalak
- Enpresa-Organizazioak.

INDUSTRI ETA ENERGI MINISTRARITZA

ENPRESA KOMITEA (lan-alorrei buruzko txostena)

Eskaera

BANAKAKO BIRMOLDAKETA EGITARAUA

SEKTOREKO ENPRESAK

korra) Información aldizkariak antolaturiko mahai baten inguruan: "Eta nik galdetzen diot nere buruari... sistema hori extrapolagarri denentz osaeraz, tamainiaz, produkzio-egituraz, hedapen-ahalmenaz, enpresa-kopuruz eta abarrez zeharo hetereogeneoak diren sektore mordo horretara"(1).

El País egunkariak ere birmoldaketari buruz argitaratu riko editoriale batetan honela zioen: Nahiz eta birmoldaketak bere finantz iturri garrantzitsuenak aurrekontu-baliabideetan izan, baliabide horiek birmoldaketa-elkarte baten bitartez (zein empresa gerizpetuez osatuko bait da eta non Estatuak guztizko kontrola izanen bait du) bideratzea arriskutsua da. Gerta liteke, azken buruan Administrazioa nagusi den arazoan birmoldaketango enpresek bere burua arduratsu ez sentitzea. Beste herriek ez dute, Estatuak aitzintasun edo protagonismo horren eskerga duen eredu hau aukeratu, baizik eta elkartrukatu nahiago izan dute Administrazioak enpresei eskainitako zerga eta finantz abantailak osasunketa-iharduera bereziekin"(2).

Dena dela azkenean onartu zen textua CEOE eta enpresarien gogobetekoa izan zen, zeren eta, honen idazketan esaten zenez, birmoldaketa burutu bait daiteke birmoldaketa-elkarteez,enpresa-taldeez edo gerentzi sistemaz eta gainera birmoldaketa-elkarteen administrazio-kontseiluaz zegoen hasierako formula (horietan Administrazioaren eskuhartzea % 50 baino handiago izango litzatekela agintzen zuena alegia) lege-dekretuan desagertzen bait zen (horren ordez zera ezartzen zen: birmoldaketa-planak ukitzen dituen erabaki orok Estatuaren ordezkarien onespena izan behar du).

Sindikatuak ere ez zeuden batere pozik Birmoldaketa-elkartearen formulak hartzen zuen garrantziaz, haiek ez bait zeuden organo honetan ordezkaturik. Haien eskaerak zera ziren: edo Birmoldaketa-elkarteetan haiek ere bertan egotea edo, bestela,jarraitze-batzordeei egiazko ahalmen eta edukinez hornitzea. Azken

(1) Marzo 2; 29 or.

(2) El País 1983 Abendua 3

puntu honetan zertxobait lortu zuten; egipide-organoetan, ordea, ez zuten sartzea erdietsi.

2.3.4.3.b.- Jarraitze-batzordeak.

Jarraitze-batzordeei dagokienez bi arazo sortu ziren. Bata sindikatuek birmoldaketa-prozesuetan zuten eskuhartze txikarragatik (erakunde hauek jarraitze-batzordeetan zuten presentziara mugatua ia soil-soilik); hori konpontzeko asmoz, batzorde hauek kontrol eta jarraitze-organo bihurtzea erabaki zen.

Bigarren arazoa, birmoldaketa-plana izenpatzen ez zuen sindikatuari batzorde horietan egotea galerazten zion arauaren inguruan suertatu zen. Alor honetan sindikatuek eraman zuren burruka gorabehera, ez zuten jadetsi arauketa hori aldatzea.

2.3.4.4.- Birmoldaketa eta birrindustrialkuntzako · projektuaren onarkera: Lege-Dekretua.

Sozialisten birrindustrialtzeko arauteria, haiek iragarritakoa baino beranduxeago zetorren. Solchagak gogorazi zuenez, birmoldaketa Irailean hastekoa zen baina honi buruzko neurriak Gobernuaren erdi-eperako ekonomi egitarauaren barruan sartzeko asmoak zirela eta, haren onarpena atzeratu egin zen.

Arauteria horren premiatasun eta garrantzia, ordea, berebizikoa zen. Hori horrela zela, nahiz eta beren axola eta eragipen ekonomiko eta sozialagatik gai hau legez onartzekoa izan, lege-projektuaren izapidatzea luzeago zenez gero, Solchagak lege-dekretu soil batez onartzea erabaki zuen. Erabide honek zenbait talde parlamentarioren kritikak (besteak beste EAJarena, APrena eta EErena) sorterazi zituen. Izan ere, izapide honen bitartez "legebiltzarreko eztabaidatzea" baztertzen zen eta projektu osoa onetsi edo gaitzetsi beharra zegoen emendakin partzialak jartzeko aukera izan gabe.

Azkenik erret lege-dekretua sozialisten botoez bakarrik onartu zen legebiltzarrean. PC, AP, EAJ, EE eta CiU-k ezezkoa eman zioten, eta talde zentrista eta CDS abstenitu ziren. Sindikatuen artean UGT guztiz alde zegoen, ELA-STV ere alde baina tuku gehiagoz, eta CCOO aurka (1984eko Otsailaren mobilizazioak aprobetxatuz, birrindustrialkuntza bernegoziatu behar zela aldarrikatzen zuen sindikatu honek). CEOE alde zegoen, zenbait tukuz baina.

## 2.3.4.5.- Sozialisten birmoldaketa eta birrindustrialtzeko politikaren beste zenbait puntu.

### 2.3.4.5.a.- Birmoldaketaren kostu eta finantzapena.

Birmoldaketa planen finantz kostua hurrengo hiru urteetan 950,000 miloi pezetakoa izanen da. Bestalde neurri soziolaboralen kostuei buruz zera adierazten zuen Solchagak: "30.500 langileekiko lagin bat aztertu dugu eta legeak ekarriko dituen giza-hobakuntzek 80.000 miloi pezetako kostua izango du tela ondorioztatu da".

Lehenengo kopurua, hots 950.000 miloi pezeta horiek,ondoko molde honetan lortuko dira:

. 150.000 pezeta Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik jalgiko dira eta subentzio eta kreditu eskuhartzaileen bidez banatuko dira. Bata eta bestearen artean zein ginotan ez dago orain dik erabakita: berrikuntza eta garapenetan edo aktibo ezukigarritan egindako inbertsioetarako subentzioak erabiliko bide dira;finantz osasunketan, aldiz, kreditu eskuhartzaileak.

. 150.000 miloi pezeta INIk jarriko ditu bere enpresen galerak konpentsatzeko; beste 100.000 miloi pezeta INIk ere birmoldatzen ari diren enpresa publikoen kapital-zabalkuntzetarako; INIk, halaber, bere enpresei kreditu eta abalak eman beharko diz kie finantz sistematik 130.000 miloi pezetako kredituak lor ditzaten.

Kreditu-Industrialeko Bankuak 325.000 miloi pezetako kredituak emango ditu. Hori finantziatzeko bere fondoez, eta kapitalaren azpikoefizientean konputagarri diren B moldeko zedulen jaulkipenez baliatuko da.

. Beste 100.000 miloi pezeta abal publiko gabeko kredi tu pribatuetatik eta enpresen kapital zabalkuntzetatik etorriko dira (1).

Neurri soziolaboralen estaldura-hobetzea, ostera, hone la finantziatuko da: puska bat Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik eta Enplegurako Instituto Nazionalaren aurrekontutik; beste puskabat ESFen baliabideez; eta hau dena aski ez balitz, subentzio bereziez ere bai.

Tamames-ek, ordea kopuru desberdinak ematen dizkigu:

. Aurrekontu-subentzioak. Kreditu eskuhartzaile bihur litezkeen transferentziak 150.000 miloi pezeta.

. Enpresa publikoen galera-konpentsazioa 150.000 miloi pezeta.

. Enpresa publikoen kapital-zabalkuntzak (INIren bidez batik-bat) 100.000 miloi pezeta.

. INIrenkreditu edo abalak 140.000 miloi pezeta.

. Kreditu edo abalak, kapital pribatuaren ekarpenak 140.000 miloi pezeta.

. GUZTIRA: 940.000 miloi pezeta.

. Lan-kostua (INEM + ESF + S.S.) 60.000 miloi pezeta.

. GUZTIRA: 1.000.000 miloi pezeta (2).

Ikus daitekeenez sozialisten birmoldaketaren kostua UCDrena baino askoz handiagoa da (oroit azken honen tipitasuna ze la eta, egiten zitzaizkion kritikak). Horrek, ordea, Espainiak hori finantziatzeko duen ahalmenari buruzko duda-mudak sorterazi ditu: ez da ahantzi behar Espainiak zuen kanpo-zorra 30.000 miloi dolar ingurukoa zela, pagamendu-balantzako kontu korrenteko saldoa 2.763 miloi dolarrekoa zela (negatiboa, noski), 1983rako aurrikusitako mentsa 1,3 biloi pezeta baino handiagoa izango litzate keela espainiar aurrezki-tasa % 8,5 zela (hots txikar baino txi karragoa)... Gorago ere Boyer-ek ments publikoaren emendioaz eta honek zekartzan ondorioez zuen bildurra erakutsi dugu. Izan ere,

(2) Actualidad Económica 1331 zb., 1983 Abendua 8-14.

azken buruan birmoldaketa-kostuaren finantzapena produkzio-sistemaren gainerako osakideen lepotik egin beharko litzateke eta El País egunkariak zioenez "no conviene abusar si no se quiere producir un antagonismo de inevitalbes consecuencias políticas entre dos economías españolas: la reconvertida a través del Boletín Oficial del Estado y de los fondos presupuestarios, y la que se enfrenta, sin apoyos y asumiendo plenamente los riesgos, con los problemas del mercado y los inspectores de Hacienda" (1).

Birmoldaketan egin behar ziren berealdiko eralgipenak zirela eta, birmoldaketarako lege-dekretua espainiar legebiltzarrean eztabaidatu zenean APk Gobernuaren kontra erabili zuen ihardungaia zera izan zen: Gobernuak berak prestaturiko txosten batetan frogatzen zenez, Espainiako 20 enpresa publiko garrantzitsuenetatik 17ren kasuan errentagarriago litzateke horiek itxi eta haien enplegatuei beren alokairuak era mugagabe batetan ordaintzen jarraitzea, oraingo baldintzetan horiek irekiak mantentzen jarraitzea baino.

2.3.4.5.b.- Birmoldatuko diren sektoreak.

Jadanik erakutsi dugu sozialistek birmoldatzeko diren sektoreak mugatzeko duten erizpide eza. Zein dira, ordea, praktikan, birmoldatzeko aukeratu dituzten sektoreak?

Egia esan sozialistek ez dute oraindik ofizialki zehaztu zein izanen diren sektore horiek. Alde batetik daude UCDren gobernuarekin beren birmoldaketa hasi eta oraindik bukatzeke dutenak; bestalde, berriz, sozialistak boterera igo ondoren aukeratuak izanen direnak.

Ortun-ek Irailaren 7an Donostian emandako hitzaldi batetan ondorengo plan hauek aipatzen zituen "projektuan edo estudioan" zeudeń artean: Untzigintza, Oinetakogintza, Altzairu arrunta, Papera, Forja, Kobrea, Osagai elektronikoak, Burdinaleazioak, Kableak, Ekipamendu-ondasun astunak, Galdagintza, mahaitresneria, autogintzaren industria laguntzailea (2).

(1) El País 1983/12/3
(2) Ortun; 7 or.

Solchagak ere, Uztail aldean industri birmoldaketa zegoen egoera honela laburbiltzen zuen (alabaina ondoko oharra egi nez: "ez nuke nahi industri birmoldaketaren mapa osoa zabaldu, Gobernua ez bait dut gura konprometitu"): "Untzigintza: orain arte ez da deus egin (ez instalaziorik itxi, ez inbertsiorik egin, ez plantilak doitu...); Ohialgintza: bilakaera egiten ari da,era nabarmengarrian ez izan arren; Kobrea: nolabaiteko ahalegina egina da eta Gobernuak ez du hartaz berriro kezkatu behar; Forja: beste horrenbeste; Siderurgia:goitik behera birmoldatu behar da ... Gero zenbait kasu puntual gelditzen da: SEAT? Elektratresnen hilara zuria? ... Eta kito; zeren eta nire irudiz, ez bait dira sektore askoz gehiago Gobernuaren politika "kirurgiko" oldartsuaren gaia izan behar. Gelditzen direnen artean aukeratu beharra dago, ez dago denentzako dirurik... Gobernu sozialista honek birmoldaketaren arauak hiru sektore berriri bakar-bakarrik (ongarriei, paper eta paper-oreari eta, agian, ekipamendu-ondasunen azpi sektoreren bati) aplikatuko dizkie egiazki... Izan ere, industri politikak nolabaiteko arrakasta izan dezan hautatzailea izan behar du" (1).

Harrezgero Solchagaren ihardunaldietan ez dira aipamenik aurkitzen birmoldatuko diren sektore berriez. Adibidez Azaroaren bukaeran birmoldaketaren kostuaz aritzean ministrariak birmoldaketa-planen artean presazkoenak edo lehentasunezkoenak siderurgia, untzigintza, elektratresnen hilara zuria eta altzairu bereziak besterik ez ditu aipatzen; gainerakoak ez ditu zehaztu nahi (2). Legebiltzarrean industri birmoldaketako lege-dekretua onartzen denean lege hau aplikagarri izanen zaien sektoreen artean siderurgia osatua, altzairu bereziak, elektratresnen hilara zuria, untzigintza eta ohialgintza baino ez dira aipatzen.

Tamames-ek honela laburbildu du oraindik-orain birmoldatzen ari diren eta birmoldatzen jar daitezkeen sektoreak:

- 1983ko Abenduaren 31n birmoldatzen ari direnak

. Siderurgia Osatua: Ez da seguru asko birmoldaketa-elkarterik beharko.

. Altzairu bereziak: Aceriales.

(1) Actualidad Económica 1311 zb., 1983 Uztaila 14-20
(2) El Diario Vasco 1983 Abendua 2.

. Altzairu arrunta: Birmoldaketa-elkartea zail. Ahalgarriago enpresa-taldea.

. Untzigintza handia. INI.

. Untzigintza txikia: Badago birmoldaketa-elkartea (Sorena).

. Hilara zuriko elektratresnak: badaude enpresa-taldeak.

. Berebiletarako osagai elektrikoak: (FEMSA-BOSCH).

. Forja: bi enpresa.

. Oihalgintza: gerentzia

. Osagai elektronikoak: bi enpresa: Bianchi eta Piher. Oso desberdinak tamainiaz zein egoeraz. Gerentzia eta konpontze partzialak.

- Birmolda litezkeen sektore berriak:

. Ekipamendu-ondasunak
  = Makineria elektrikoa: nazioaskotakoak batez ere. Birmoldaketa-elkarterik gabe.
  = Erreminta-makina: zenbat hegapetuko direnen arabera. Birmoldaketa-elkarterik gabe.

. Ongarriak: Birmoldaketa-elkartea agian.

. Paper-orea: Birmoldaketa-elkartea agian.

. Burdinaleazioetan eta beste sektoretan neurri puntualak (1).

Lehentasunezko sektore hauen birmoldaketaz Solchagak aurrikusten zituen epeak APDen aurtengo Otsailean izandako ihardunaldi batetan aditzera eman zituen: aurtengo lehen seihilekoan siderurgia osatuaren, untzigintzaren, altzairu berezien eta elektratresnen birmoldaketa ongi bideratuta uzteko asmoa zuen. Alde honetatik siderurgian inbertsioak onartuak zeuden eta funtzionamenduan jartzen ari ziren, langile-gehiegitzak mugatuak zeuden eta mekanismoak sortuak zeuden: birmoldaketa-elkarteak, enplegu-sorrerako fondoak; elektratresnei dagokienez, plantilen erdia doitua zegoen eta hurrengo hiletan enpresak hiru taldetan biltzeari ekinen li-

(1) Tamames

tzaioke, horrek plantila-doikuntza berria galdatzen duelarik; untzigintzan ere plantila-doikuntzak lehenengo seihilekoan egiteko ziren.

Langile-gehiegitzen puska handiena sektore hauei dihoakie eta baita aurrikusitako inbertsioetatik % 70 ere.Sektore-multzo horren ondoren oihalgintza eta oinetakogintzari helduko zaie; sektore hauek ezaugarri desberdinak dituzte eta haietan Industri Birmoldaketaren lege-dekretuaren alderdi partzialak bakarrik aplikatuko dira (1).

2.3.4.5.d.- Birmoldaketari buruzko hitzarmena.

Sozialistak oposizioan zeudenean arlo honetako politika indar sozial guztien arteko hitzarmenean oinarritu behar zela behin eta berriro aldarrikatu arren, boterea eskuratu eta gero haien asmo horiek ustel samar gertatu dira. Izan ere, "negoziatzeko nahi hori ez zetorren bat ez akordioa bilatzeko aukeratutako metodo arekin ez erdietsitako emaitzekin" (2).

Negoziaketa bilatzen baldin bazen, ez du ez hanka ez buru CCOO negoziaketa-mahaitik atereak izateak Azaroaren bukaeran, CCOOen ordezkaria zen Marin-ekin izandako axola gutxiko jazoera batengatik. Gainera maiz birmoldaketa hasia (edo behintzat Gobernuaren "aldaezinezko" erabakia hartua) egoten zen elkarrizketen hasieraren aurretik eta ezgaraiko aldarrikapenez lagunduak joan ohi ziren (hor daude, a.b., Sagunto-ren burualdearen ixtea, untzigintzari buruzko eta altzairu bereziei buruzko adierazpenak eta neurriak...); horrek ez zien aukera handirik lagatzen sindikatu eta enpresariei beren proposamen eta saloak egiteko eta gizarte-erantzun bortitza sorterazi ohi zuten. Felipe Gonzalez-ek berak, APILeko kazetariekin izandako elkarrikuska batetan aitortzen zuenez: "birmoldaketa 'gerrila' antzera egin izan bagenu, hots esanez zer eginen genukeen jadanik hori egina egotean, desgaste sozial txikiago eta krispazio eta mukertasun gutxiago sortu zatekeen".

(1) El Diario Vasco 1984 Otsaila 17.
(2) El País 1983 Abendua 3.

Gainera ekonomi alorreko ministrariek aurrera atera nahi zuten birmoldaketa, UGTek lau haizeetara salatzen zuenez, "tekniko hutsak eta zentral sindikalekin aldez aurretiko hitzartu gabeko irtenbidez eta ezgaraiko eta batere kontsiderazio politiko gabeko neurriez (Aceriales-en berregituraketa euskal hauteskunde-kanpaina minean)" osatua zegoen. Tamames-ek ere gauza bere zioen 1983an sozialistek eramandako birmoldaketa-politikaz: "Hau honela, ezin esan daiteke Espainiako industri birmoldaketa 1983an zehar birtutez jantzirik joan zenik. Era mekanizista batez eta hura automatizatzen ahaleginduz burutua izan zen"; baina horrek langileen erantzun bortitza erakarri zuen, "egitateen errealitatea planteiatuz: birmoldaketa ezin daiteke izan bortxaz burutua eta hotzean kalkulaturiko egikuntza teknokratikoa. Gizarte-gorputza sumitzen da, jazargoa garatzen da, politika ekonomikoa, oro har, zapart egiten du" (1).

Horrek denak sozialisten arteko batasunaren haustea eta neurri horiek gizarte-mailan gatazkatasun bizia piztea erakarri zituzten. Hau zela eta, Gobernuaren erabaki, agintza eta mehatxuen biribiltasuna maizenik hitz legorrak besterik ez ziren. Hor daude Mediterraneoko Labe Garaien burualdea Apirilean funtzionatzen, birmoldaketako lege-dekretutik lan-kontratuen hauste-premiaren kendura, Aceriales-en hasieran harturiko neurrien ezeztapena....

Azkenean, Otsailaren bukaera eta Apirilaren hasieraren artean sozialisten artean (UGT, ekonomi alorreko ministrariak....) hitzarmen batetara iritsi bide da, eta doikuntzaren premia aho batez onartu bada ere, hura nolabaiteko malgutasunez burutzea erabaki da. Felipe Gonzalezek birmoldaketa explikatzeko telebistan izan zuen agerpena horren seinalea da.Hitzarmen hau lortutakoan, birmoldaketak hemendik aurrera azkartzea izanen duela dirudi.

---

(1) Tamames

## 2.3.4.5.e.- Sozialisten birmoldaketa-politika eta Komunitate Autonomoak.

Sozialisten birmoldaketa-politikaren elaborapenean zein garapenean Komunitate Autonomoen eginkizuna hutsaren hurrengoa izan da. Halaxe salatu dute hainbat alderdik (EAJ, EE, CiU, PC, UCD ...), komunikabidek (El País...) eta sindikatuk (CCOO eta ELA-STV). Sozialistek, berriz, entzungorrarena egin dute.Puntu hau ordea, hurrengo kapituluan xehekiago ukituko dugunez gero, ez dugu hemen landuko.

## 3.- BIRMOLDAKETA-POLITIKA EUSKAL HERRIAN

### 3.1.- INDUSTRI POLITIKARI BURUZKO AHALMEN-BANAKETA ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN ETA EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAREN ARTEAN.

Sektore-birmoldaketaren kontuan Administrazio Zentralaren eta Autonomikoaren artean ematen den ahalmen-banaketari buruzko Estatutuaren idazketa zehatza da: "Industri sektoreen berregitu raketan Estatuak ezarriko dituen planen garapena eta beterazpena Euskal Herriari dagokio" (10. art., 30. puntua).

Bi lerro labur hauei zera darie: sektoreen birmoldaketa-al darrikapena Estatuaren eskuetan bakar-bakarrik lagatzen da; behin honek birmoldaketa aldarrikatu eta gero, birmoldaketa-planen garapenean eta beterazpenean euskal erakundeek eskuhartuko dute:

Hain zuzen ere, Estatutuaren puntu honetan oinarrituta, Estatuak 3502/1981eko Abenduaren 29ko erret dekretuaren bidez, industri birmoldaketako planen garapen eta beterazpenari buruzko ahalmena (EHKA) Euskal Herriko Komunitate Autonomoari transferitzen zion. Dekretu honen arabera, birmoldatzeko den sektoreko enpleguaren % 10 edo gehiago euskal komunitate autonomokoa izatekotan, zera erabakitzen zen:

. Administrazio Zentralak EHKAari birmoldaketa-planen elaborapen eta negoziaketaz berri emanen dio; honek, berebat, sektore horri buruz dituen aurrikustapenak aditzera emango dizkio Estatuari.

. Industri birmoldaketaren arau eta neurrien aplikazioaz arduratuko den batzorde beterazlean EHKA ordezkatua izanen da.

. Jarraitze-batzorderik izatekotan, hartan ere eskuhartuko du.

. Lehengoaz gainera, EHKAak birmoldaketa-planen hegapera sartu nahi dutenenpresen informazio eta eskabideak bideratu, eskabide horietaz txostenak ondu, Batzorde Beterazlean harturiko akordioen arabera berari dagozkion ahalmenen kontuan neurriak hartu, eta bere esparruan dauden egitarauen kontrol eta jarraipena burutu eginen ditu.

Dagoeneko erakutsiak ditugu Administrazio Zentralak birmoldatzeko, nolabait ere, aukeratu dituen sektoreak. Zer gertatzen da EHKAaren barruan birmoldatzeko premia gorria duten, eta Administrazio Zentralak baztertu edota alde batera utzi dituen sektore eta enpresez?

Eusko Jaurlaritzaren jarrera hauxe da: "Garbi gelditu behar du, industri birmoldaketaren aldarrikapena Administrazio Zentralaren esku izanagatik ere (...) eta Administrazio Autonomoak sektoreen birmoldaketa ofizialki ezin aldarrikatu arren, ahalezko zaigun heinean, ekipamendu produktiboen modernizaziorako baliabideak biltzea eta, ekarpen gisa, hari zuzentzea ahalbideratuko lukeen antzeko sistema bat, 'industri berregituraketa' dei genezakeena ezartzea onuragarri jotzen dugula" (1).

Hortaz, alde batetik Administrazio Zentralak birmoldaketan aldarrikaturiko sektoreak izanen ditugu; bestetik, EHKAan duten leku eta garrantzi bereziarengatik Administrazio Autonomoak berregituratzen lagunduko dituen sektore eta enpresak.

- Lehenengoen kasuan, sozialistak boterera igo ondoren, EHKAaren eskuhartzea murriztu da. Honek eusko Jaurlaritzarengan kezka larriak sorterazi ditu: "Hori dela eta, zeharo kezkaturik gaude aipaturiko prozesuan EHKAari ematen bide zaion eginkizun guztiz hutsalarekin, Liburu Zuriaren eta Birmoldaketa eta Birrindustrialkuntzarako Lege-Dekretuaren irakurketatik ondoriozta daitekeenez, zeren eta gure eskuhartzea Batzorde Beterazleetan erabat aienatzen bait da. Ezin egin daiteke ez jakinarena gai honetan Autonomi Estatutuan aitortu eta 3502/1982ko Abenduaren 29ko Erret Dekretuaren bidez transferitu egin den ahalmenaz" (2).

Sozialisten Birmoldaketa eta Birrindustrialkuntzarako lege-dekretua eztabaidatzen ari zenean, eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak, 1983ko Abenduaren 6ko prentsaurrekoan Komunitate Autonomoek lege-dekretu horren elaborapen eta negoziaketan jasandako baztertzea, eta lege-dekretu horretan Komunitate Autonomoei birmoldaketa-planen garapen eta beterazkuntzan ezagutzen zitzaien hutsaren hurrengo eskuhartzea gogorki salatu zuen (3).

(1) Gobierno Vasco 6; 2or.
(2) Gobierno Vasco 4; 8 or.
(3) El Diario Vasco 1983 Abendua 7.

Solchagak, 1983ko Abenduaren 5ean Bartzelonan Birmoldaketa eta Birrindustrialkuntzarako lege-dekretua aurkeztu zuenean, nazionalisten eta sozialisten arteko zezioak areagotu besterik ez zuen egin, "autonomi estatutuek administrazio zentralaren eta autonomikoen arteko koordinakuntzari dagokionean, ez dute(la) egokien izango litzatekeen formula aurkitu" esan zuenean (1).Nazionalistek, gainera, gobernu sozialistak burutzeko ziren birmoldaketa-planez ez ziela informaziorik ematen behin baino gehiagotan salatu izan zuten, puntu hau sozialistek ukatzen bazuten ere.

Sozialistek, bere aldetik, birmoldaketa nagusi horietan nazionalistek agertzen zituzten anbiguetateez eta eskaintzen zieten laguntza ezaz kexu ziren (a.b. eusko Jaurlaritzaren ordezkariak Aceriales-en lan-kontratuen hausturaren alde botoa eman bazuen ere, Solchaga-k neurri hori aukeratu zuenean langile-gehiegitzen arazoa konpontzeko, eusko Jaurlaritza lan-kontratuen hausturaren formula publikoki kritikatzen azaldu zen;eta antzeko gauza bat jazo zen untzigintzaren birmoldaketan).

Euskal komunitaterako hauteskundeak igaro eta gero, aldiz, nazionalisten eta sozialisten arteko liskar hauek baretu bide dira. 1984eko Apirilean sozialistek beste zenbait indar sozialekin izandako elkarrikusteetan "EAJren teknikari eta politikariak izan dira Gobernuaren industri birmoldaketari eta gizarte-paktuari buruzko politikaren alde, oraingo forma eta metodoan, hein handienean agertu direnak" (2).

- Administrazio Autonomikoaren gain gelditzen diren sektoreen berregituraketaz gero ihardungo dugu, eusko Jaurlaritzaren industri politikaz aritzean alegia. Hala ere, ahalmen-banaketaz ari garen ataltxo honetan, ezin dugu aipatzeke utzi, ekonomi alorreko ahalmen batzu ez izatetik, bere ekonomi, industri eta birmoldaketa-politikak ontzeko eusko Jaurlaritzak aurkitzen dituen mugapenak:

. Moneta-politikari dagokionez, EHKAak ez du batere ahalmenik (3).

---

(1) El Diario Vasco 1983 Abendua 6.
(2) El Diario Vasco 1984 Apirila 14.
(3) Gobierno Vasco 4; 6 or./ Urrutia eta beste;623or./ Gallastegui; 40.

. Zerga-politikaren kontuan, Kontzertuaz ezagutzen zaizkion ahalmenak garrantzizkoak izan arren (1), mugatu samarrak dira industri politika berezia ezartzeko. Dena den, gastu aldetik, "baliabideen erabilera-mailan" eragipena izan dezake eta, horrenbestez, aurrekontu-politika aurrera eraman.

. Finantz alorrean "Komunitate Autonomoak ez du bere eskuetan ez Kreditu Ofiziala, ez finantz politika propiorik, eta ez du, beraz, honi dihoazkion ohizko finantz mekanismorik, halanola bankuen koefizienteen aldakizuna" (2), nahiz eta horietako ahalmen batzu Estatutuan jasoak egon. Nolanahi ere, eta finantz baliabideen esleipenari dagokionez, ez da ahantzi behar zenbait alorretan (Aurrezki-Kutxei, Elkarrekiko Bermatzeko Elkarteei, Zor Publikoaren jaulkipenari...buruz) duen "capacidad normativa y de regulación y en las posibilidades de desarrollo institucional y de ejercicio de la gestión" (3).

Kanpo-politikarekiko ahalmena ere guztiz urria da, ganbio-politika, muga-zergak... Administrazio Zentralaren eskuetan bait dau de. Edozein moduz ere, "garapen instituzionaleko ahalmenaz balia liteke exportazioen sustapenerako elkarteak sortzeko eta atzerriko ferietan eta jatorrizko izendapenetan Estatuarekin kolaboratzeko" (4).

. Gizarte-alorrean ere (lana, enplegua, Gizarte-Segurantza ...) egun EHKAak dituen ahalmenak txikar baino txikarragoak dira, Estatutuan ezagutzen zaizkion horietako batzu oraindik transferitu gabe egotean. Horrek langile-gehiegitzak taiuz tratatzea (enplegu-fondoen, aldez aurretiko jubilazioen eta abarren bidez)era gozten duelarik (5). Beste alorretan bezalaxe, ordea, honetan ere Komunitate Autonomoak zer edo zer egin lezake: "Gizarte-politika hertsiari dagokionean, EHKAak anitz ahalbide irekita du, egokiro deituriko zerbitzu asistentzialetatik hasita, gatazka kolektiboetaraino (Lan-Harremanetarako Kontseiluaren bidez), kulturaren eta aisiaren baliakuntzaren eragintzan, eta produkzio-lankidetzaren eta elkarrenganako asegurantzaren formen garapenean zehar igaroz" (6).

---

(1) Navarro; 75-86 orr.
(2) Gobierno Vasco 6; 3 or.
(3) Urrutia eta beste; 629-630 orr./ Gallastegui eta Urrutia: 44-45 orr.
(4) Urrutia eta beste; 625 or./ Granell, F.; 272-273 orr.
(5) Gobierno Vasco 6: 4 or./Gobierno Vasco 5; 6 or.
(6) Urrutia eta beste; 625

Eta beste toki batetan: "EHKAak lanbide-heziketako iharduera, (birziklapen-erregimenean) edo lan-baltzuak edo kooperatibak bultza ditzake, eta, orobat, lan-legegintza garatu, mutualismoa sustatu eta arbitraia eta negoziaketa instrumentatu, zeinek epe luzera desenplegu-tasa naturalean eragin bait dezakete. Epe laburrera, haatik, oraingo langabezi tasa jaitserazteko autonomoki egin dezakeen gauza bakarra euskal sektore publikoaren bitartez lanpostuak zuzenki sortzea da, laneskutan intentsiboak diren herrilanak egiteko aurrekontu-fondoak hornitzea, edo sortutako lanpostu finko bakoitza eta multzo desfaboratuen langileen enplegua subentzionatzea. Hala ere neurri hauek enpresek ordaintzen dituzten Gizarte-Segurantzaren kuoten murriztapenek baino eragin kortasun txikiagoa dute.Gizarte-Segurantzari dagozkion transferentziak argitu artean, ordea, euskal Sektore Publikoak Estatu Zentralarekiko akordio instituzionalak egin litzake, murriztapen horiek ahalbideratzeko" (1)

. Industri alorreko ahalmen funtsezko batzu (a.b. ikerkuntzari dagokiona), oraindik transferitzeke daude, Estatutuak ezarritakoaren kontra(2).

. Energi alorrean konstituzioak, Estatutuak eta PENek mugatzen dituzte "baliabide geotermikoen eta meatz eta energi erregimenen arloetako oinarriak beteraztera" euskal Komunitate Autonomoaren ahalmenak (3). Hala eta guztiz ere, euskal Komunitate Autonomoaren garapen instituzionaleko ahalmenari esker, CADEM eta EVEren bidez energi aurrezteari eta arrazionalizazioari heldu ahal izango zaio.

Ahalmen-banaketa honen mugapenak izan ezik, euskal ekonomi sektoreen birmoldaketa burutu ahal izateko beharrezko diren egundoko dirutzak euskal Komunitate Autonomoaren eskuetan ez egoteak, eusko Jaurlaritzaren industri berregituraketaren zuzendari zen Romeo jaunari zera aitorrerazten zioten: "en ningún momento podemos pretender desarrollar una política industrial autónoma, independiente, sino que precisamente el sentido y la eficacia de una política industrial desarrollada por nosotros, solo puede llegar

(1) Urrutia eta beste; 628 or./Gallastegui eta Barrutia; 44 or.
(2) Gobierno Vasco 5; 6 or. /Gallastegui eta Urrutia; 38-39 orr.
(3) Urrutia eta beste; 627 or.

a una plenitud si está adecuadamente enmarcada y coordinada con la política desarrollada por la Administracción Central" (1).

-Berregituraketa alde batera utziz, industri eragintzaren kontuan, estatutuaren 10.artikuluaren 25. puntuak zera aldarrikatzen du EHKAaren ahalmen exklusibotzat: "Euskal Herriko ekonomi ihardueraren eragintza, ekonomi garapena eta plangintza,ekonomiaren antolaera orokorraren arabera".

Sozialisten asmoak ikuspegi honi lotzen zaizkio. Jauregik, adibidez, 1983ko Abenduan, Euskal Herriko ekonomiaren birmoldaketa eta birrindustrialkuntzan Administrazio Zentralaren eta Autonomikoaren artean egon behar zen ahalmen-banakuntzaz zera zioen: "Komunitate Autonomoei birrindustrialkuntzaren, teknologi birmoldaketaren eta enplegu-sorkuntzaren alorretan lehentasunezko funtzioa ematen zaie; birmoldaketaren alderdirik atseginena alegia" (2). Halaber, alor honetan Komunitate Autonomoek bete behar duten funtsezko zereginaren lekukotzat, eusko Jaurlaritzak sortu zuen (IBEE) Industri Birmoldaketa eta Eragintzarako Elkarteak izan duen bilakaera dugu: bere lehenengo ekitaldietan birmoldaketa eta eragintza aldiberean bultzatzen bazituen ere,1983ko memorian adierazten denez, elkarte honek "bere izaera propioa osatzen duen funtzioa betetzera jo du etsi-etsian, hots inbertsioaren sustapenerako tresna aukeratzaile eta Euskal Herrian teknologi berriak lekutu daitezen bultzatzaile eta eragile izatera" (3).

## 3.2.- ADMINISTRAZIO ZENTRALAK ONARTURIKO BIRMOLDAKETA-PLANEN ERAGINA EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAN.

Aurreko atalean Administrazio Zentralaren eta Autonomikoaren artean birmoldaketari buruz dagoen ahalmen banaketa azaltzen ihardun dugu. Ikusi ahal izan dugunez, Administrazio Zentralak sektore batzuren birmoldaketa-aldarrikapena egin du. Zein dira birmoldaketa-aldarrikapen horiei darizkien ondorioak hego Euskal Herriarekiko?

---

(1) García Egocheaga, Romeo eta Salaberri: 31 or.
(2) El Diario Vasco, 1983 Abendua 22.
(3) Sociedad para la Promoción y Rec... 1983; 5 or.

Liburu Zurian UCDren gobernu pean onarturiko birmoldaketa--planak zirela bide aurrikusten ziren lanpostu-galerak ondorengo laukian ikus daitezke:

Ohar gaitezkeenez, EHKAa da birmoldaketa dela medio gehien joa izanen den lurraldea. Dena dela, gobernu sozialista pean onartuko diren birmoldaketa-plan berriengatik eta, UCDren gobernu pean onarturiko birmoldaketa-planen bidez egindako doikuntzak aski ez direlarik berriro ere egin beharko direnengatik (a.b. Olarra-n hartu beharreko neurri gogorrak, altzairu arrunten egundaino birmoldaketa oso txikia izan da, GEE eta Westinghouse-en birmoldaketek porrot egin dute...) enplegu galduen kopurua handituko da.

KOMUNITATE AUTONOMOETAKO INDUSTRI ENPLEGUAN BIRMOLDAKETAREN ERAGIN AURRIKUSIA

| | 1981-1985 tartean galduko diren enpleguak | Enplegu osoarekiko galduko diren enpleguak | Biztanleria aktiboarekiko galduko diren enpleguak |
|---|---|---|---|
| Andaluzia | 3.816 | % 5,85 | % 1,40 |
| Asturias | 6.072 | % 9,32 | % 5,70 |
| Kantabria | 1.948 | % 2,99 | % 4,40 |
| Valentzia | 8.080 | %12,40 | % 1,90 |
| Galizia | 3.391 | % 5,21 | % 1,92 |
| Madrid | 13.643 | %20,94 | % 3,71 |
| Nafarroa | 722 | % 1,11 | % 1,30 |
| Bizk.,Gip.Araba | 14.060 | %21,58 | % 4,56 |
| Katalunia | 11.566 | %17,75 | % 1,39 |
| Besterik | 1.856 | % 2,85 | - |
| GUZTIRA | 66.154 | %100 | - |

Jakiniturria: Libro Blanco de la Reindustrialización: 57 or.

Estatuak birmoldaketa-planak onartzean sektoreen doikuntza errazteko laguntza batzu eman ohi ditu. Zein dira laguntz neurri horiek direla medio Estatuak euskal Komunitate Autonomora zuzenduko duen diru-kopurua? Sozialistek lehentasunezkotzat jotzen di

ESTATUAREN EKARPENA EHKako BIRMOLDAKETARI 1984etik 1988ra ( miloi pzta.)

| | Subentzioak | | | Kreditu eta abalak | | | Finantz ekarpen osoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Komunitate Autonomoa (1) | Espainia (2) | (1) / (2) x 100 | Euskal Komunitate Autonomoa (3) | Espainia (4) | (3) / (4) x 100 | Euskal Komunitate Autonomoa (5) | Espainia (6) | (5) / (6) x 100 |
| Siderurgia osatua | 40.540 | | | 142.252 | | | 182.792 | | |
| Altzairu bereziak | 15.753 | | | 37.736 | | | 53.489 | | |
| Altzairu arrunta | 4.650 | | | - | | | 4.650 | | |
| Untzigintza: | | | | | | | | | |
| a) Handia * | 29.400 | | | 9.500 | | | 38.900 | | |
| b) Txiki eta ertaina | 4.450 | | | 4.350 | | | 8.800 | | |
| Hilara zuriko elektr. | 5.300 | | | 16.700 | | | 21.000 | | |
| GUZTIRA | 100.093 | 486.000 | % 20'6 | 209.538 | 556.000 | % 37'7 | 309.631 | 1.042.000 | % 29'7 |

Jakiniturria: Jauregi-k eta Felipe Gonzalez-ek prentsari agerturikoa (El Diario Vasco: 1983 Abendua 22 eta 1984 Otsaila 18).

(*) Ez da barne INIk kapital-zabalkuntzarako egindako 7.500 miloi pezetako ekarpena.

(**) Lauki honetako datuak argitaratu zirenean erraminta-makinaren eta makineria elektrikoaren birmoldaketa-planen posibilitatea aztertzen ari zen. Sektore hauek, hein handi batetan, euskal Komunitate Autonomoan kokatuak daude; hori dela eta, haien birmoldaketa-planak onartzekotan EHKara etorriko liratekeen baliabideak handiagoak izanen lirateke.

tuzten bost sektoreei (siderurgia osatua, altzairu bereziak, altzairu arrunt osagabea, untzigintza eta hilara zuriko elektratesnak) dagozkien kopuruak hurrengo orrialdean doazen laukian ikus daitezke.

Era berean, birmoldaketa horien ondorioz lehen erakutsi dugunez, lan-kostu batzu sortuko dira. EHKAko enpresen birmoldaketa dela eta, Estatuak finantziatu beharko duen lan-kostua bi orrialde aurrerago datorren laukian ohar daiteke.

Felipe Gonzalez-ek Estatuaren kopuru hauek irazkinduz zera esaten zuen: "Sólo quiero recordar que el País Vasco representa algo más del 6 % de la población total de España, para que se comprenda el esfuerzo, nada más sólo para que se comprenda el esfuerzo. E inmediatamente quitar cualquier tinte demagógico, no vaya a ser que se confunda alguien con procesos electorales. No se hace por desfavorecer (sic) al País Vasco ni por perjudicarlo. Se hace por un razonamiento muy elemental, porque aquí es donde está ese tejido industrial y, por consiguiente, se hace por prestar un servicio a la nación en su conjunto. Y naturalmente hay un servicio al País Vasco, !qué duda cabe!, pero se está presentando un servicio a la nación en su conjunto. (...)

También es verdad que los hábitos, digamos cultura industrial, no son improvisables y que estoy convencido de que el País Vasco va a regenerar su industria a mucha más velocidad que cualquier otra zona de España. Y no porque tenga un especial sistema de ayudas, sino porque tiene una cultura industrial y una capacidad de respuesta industrial que ya lo ha demostrado durante un siglo, y eso no se improvisa de un día para otro. Nosotros tenemos que aprovechar, lo digo como Gobierno de la nación, esa potencialidad para sacar cuanto antes al conjunto de España de la crisis. Es un esfuerzo de solidaridad que esperamos además que sea un esfuerzo entendido y devuelto, para decirlo en términos claros, desde el País Vasco para el conjunto de España" (1).

---

(1) El Diario Vasco, 1984, Otsaila 18

EHKAko BIRMOLDAKETA-PLANEN KOSTU LABORALAREN FINANTZAPEN ESTATALA

(1984-1988; miloi pezeta)

| | |
|---|---|
| A) INEMen araupeko prestazioak | 12.771 |
| B) Estatuaren ekarpenak Enplegu-Sorkuntzarako Fondoei | |
| 1) Aparteko desenplegu-prestazioetarako | 3.166 |
| 2) Aldez aurretiko jubilazioetarako | 4.589 |
| D) Gizarte-Segurantzaren kostua | 7.777 |
| GUZTIRA | 28.303 |

Oharra: 1) Siderurgia osatua, altzairu bereziak, altzairu arrunta eta untzigintza sektoreetan.

2) Kopuru hauetan ez daude sarturik Alokairuen Bermerako Fondoak, zenbait kasutan, eman behar dituen kalteordainak.

Jakiniturria: Jauregi-k prentsari azaldutakoa (El Diario Vasco 1982 Abendua 22).

Lehengoan emandako datuak , aste honetako egunkarietan euskal Komunitate Autonomoan Madrilgo Gobernuak duen Ordezkaritzaren txosten baten eta Comisiones Obreras-en aurrikustapenen datuez osa daitezke. Hauek ziren Madrilgo Gobernuak birmoldaketan aldarrikaturiko sektoreez ematen ziren datuak:

| | Langile-gehiegitzak (1) | Inbertsioak (2) |
|---|---|---|
| Siderurgia osatua | 1.800 | 182.792 |
| Altzairu arrunt osagabea | 544 | 4.650 |
| Altzairu bereziak | 4.000 | 53.489 |
| Hilara zuriko elektratresnak | 2.000 | 21.000 |
| Osagai elektronikoak | 400 | 1.512 |
| Untzigintza handia | 4.500 | 46.400 |
| Untzigintza txiki eta ertaina | 2.300 | 13.250 |
| GUZTIRA | 15.544 | 323.093 |

Oharrak: (1) Langile-gehiegitza hauek hazi eginen dira erraminta-makina, armagintza eta torlojungintzaren berregitura ketagatik. Gehikuntza hori, egunkarien informazioen arabera, 7.500 langiletakoa izanen da.

(2) "Inbertsioak" hitzaren bidez, badirudi Administrazio Zentralak euskal sektore hauen birmoldaketarako subentzio zein kreditu edo abalez zuzenduko dituen baliabideei buruz ari dela. Laukian ematen diren lehenengo lau sektoreen datuak Jauregui-k 1983ko Abenduan agertutakoekin bat etortzeak, behinik-behin, hori pentsarazten digu.

## 3.3.- EUSKO JAURLARITZAREN INDUSTRI POLITIKA OROKORRA.

Idazlan honen lehenengo kapituluan industri politikaren alorrei buruzko sailkapen bat ematen genuen. Administrazioak burutzen dituen ekinbideak sailkatzeko, ekinbide horiek zeri edo nori zuzenduak zeuden egiten genuen so, hots inbertsio piztera, enpresa txiki eta ertainei laguntzera etab. Administrazioaren ekinbide bat industri politikaren alor bati edo besteari esleitzea,ordea, ez da beti gauza erraz izaten, ekinbide horren bitartez maizenik helburu bat baino gehiago lort bait daitezke. Adibidez enpresa txiki bati bere ekoizpen-prozesuan kontrol numerikoko makina ezar dezan ematen zaion laguntza non kokatu behar da: PYMEei esleituriko alorrean edo teknologi politikari dagokionean?

Oztopo hauek, eta beste anitz ere bai, berehala agertzen dira gure sailkapenarekin guztiz ados ez datozen Administrazio baten politika industrialeko neurriak -gure kasuan euskal Administrazioarenak- aztertu eta azaldu nahi direnean. Hori dela eta, orain arte aplikaturiko eskema euskal Administrazioaren industri politikaren ikerketan erabili ahal izateko, eusko Jaurlaritzak emandako industri politikako ekinbideen sailkapenak,guk orain arte erabilitakoarekin zernolako harreman-sare osatzen duen adierazten hasi beharra dago.

Horretarako geure sailkapena azaltzen eta sailkapen horren alor bakoitzari kodigoa ematen hasiko gara. Ondoren eusko Jaurlaritzak agertzen duen sailkapena eta sailkapen horren atal bakoitzari zein dagokion gurean erakutsiko dugu, hori adierazteko lehen aipaturiko gure sailkapeneko kodigoaren klabeak haien atal bakoitzean jarriz.

Hona hemen gure sailkapen eta kodigoak:

A.- Izaera sektorialeko politikak, hots politika bertikalak.
  A.1. Krisitan dauden sektoreen berregituratzeko politika.
  A.2. Erpineko sektoreen eragintzako politika.

B.- Izaera horizontaleko politikak, hots industri promoziokoak.
  B.1. Enpresa-antolaera (minifundismoa...) hobetzeko politika.

B.2. Inbertsioa pizteko politika.
B.3. Enpresa txiki eta ertainekiko politika.
B.4. Teknologi politika.
B.5. Exportatzaileekiko politika.
B.6. Erregio-politika.
B.7. Enplegu-politika.
B.8. Energi politika.
B.9. Ingurugiro-politika

Eusko Jaurlaritzak 1983ko Abenduan argitaraturiko "Política industrial del Gobierno Vasco y presupuestos 1984" liburutxoan honela sailkatzen du bere industri politika:

1. Industri berregituraketari buruzko politika
   1.1. Estatuaren berregituraketa-politikaren garapen eta betetzapena (A.1)
   1.2. EHKAaren mailako berregituraketa-politika berezia (A.1)
2. Industri eragintzarako politika*
   2.1. Enpresa-egitura berrien sustapen eta hobekuntza.
      2.1.1. Enpresa-egitura berrien sustapenaren kredituak (B.1).
      2.1.2. Industri Garapenerako Erakundeen bultzapen eta sustapena (halanola SOFAD, CDE, BASKEXPORT) (B.1,B.5, B.4)
      2.1.3. Arrisku-kapitaleko sozietateak (B.4)
      2.1.4. Eskaintza exportatzaileari laguntza (B.5)
   2.2. Enpresari berrien sorkuntzarako sustapena.
      2.2.1. Informazioa (B.2)
      2.2.2. Mailegu pertsonalak (B.2)
   2.3. Enpresa berrien sustapenerako laguntza
      2.3.1. Sustapenerako kredituak (B.2)
      2.3.2. Negozio-aukeren bilakuntza (B.2)
      2.3.3. Eskuhartzeak (B.2)
   2.4. Industri poligono eta nabeen hornikuntza
      2.4.1. Industrialdeak (B.2)
      2.4.2. Teknologi tegiak (B.4)

2.5. Inbertsio orokorrerako pizgarriak

2.5.1. Finantzetxeekiko hitzarmenak (B.2)

2.5.2. Inbertsioetarako subentzioak (B.2)

2.5.3. Obligazio konputagarriak (B.2)

2.5.4. Industri enpleguaren sorkuntzarako subentzioak (B.7., B.2)

2.6. Hezkuntza eta gertarazpena.

2.6.1. Unibertsitate,Lanbide-hezkuntza eta Industria koordinatzeko egitaraua (B.4).

2.6.2. (IMI) Mikroelektronikaren Barnerapena Industrian (B.4)

2.6.2. TEKEL S.A. (B.4)

2.6.3. Hezkuntza eta Zerbitzu-hornikuntzazko kontratuak (B.4, B.7)

2.7. Aldaketa teknologikoranzko bultzapena.

2.7.1. Interes teknologikoko enpresentzako kredituak (B.4).

2.7.2. Teknologi etxeei laguntzak (B.4)

2.7.3. Teknologia Aurreratuko Zentruaren sorrera (B.4)

2.7.4. Enpresen(B eta G) Berrikuntza eta Garakuntzako sailei laguntza (B.4)

2.7.5. Leheneredu-ekoizpenari laguntza (B.4)

2.7.6. ECTA egitaraua (B.4)

2.7.7. (IMI) Mikroelektronikaren Barnerapena Industrian (B.8)

2.7.8. Energi aurrezte eta gordetzea (B.4)

2.8. Eusko Jaurlaritzaren beste zenbait laguntza (1)

2.8.1. Gazte eta emakumeen enplegatzeari laguntzak(B.7)

2.8.2. Langile-Elkarte Anonimoen eta Kooperatiben sustapen eta laguntza (B.7, B.1, B.2)

2.8.3. Exportazio-eragintza (B.5)

Industri eragintza helburu duten izaera horizontaleko politikari dagokionez eusko Jaurlaritzaren jokaera, oro har, onetsi samar izan da. Alor honetan egin zaizkion kritikak honako honetan zetzaten:

- "Lanpostu finko sortu berri bakoitzagatik edo multzo desfaboratuetako langileen enpleguagatik (gazteak, familiburu diren emakumeenak...) ematen diren subentzioak ez dute eraginkortasun handirik izan espainiar ekonomian eta, seguru asko ez dute EHKAan ere izango. Experientziak erakusten duenez, Gobernu Zentralak harturiko neurrien artean eraginkorrenak Gizarte-Segurantzaren kuoten murriztapenak izan dira. Jakinaren gainean gaude EHKAak ez duela Gizarte-Segurantzarekiko ahalmenik, baino on litzateke murrizketa hauek ahalbideratuko lituzketen akordioak lehen-bait-lehen egiten saiatzea; beste arlotan dagoeneko lortuak diren akordioen antzera alegia" (2). Hots kojunturari dagokionean "algunas ingenuidades (como la política de empleo seguida) y ciertas omisiones (como la no realización de todos los acuerdos posibles con la Administración Central)" (3) egon dira.

---

* Irakurlea ohartuko denez, eusko Jaurlaritzaren industri politikako ekinbideak geure sailkapenaren arabera taiutzean ez dugu ekinbide horiei B.3 kategoria, hots enpresa txiki eta ertainei buruzko industri politika esleitu, izan ere, ekinbide hauek denak ia exklusiboki (2.5.3. ekinbidea salbuespentzat jo liteke) enpresa txiki eta ertainei zuzenduak bait daude eta, beraz,ekinbide guztiei B.3 kategoria erantsi beharrean aurkituko bait ginateke.

Eusko Jaurlaritzaren ekinbide hauek enpresa txiki eta ertaineko politikaren barruan sailkatzearen bidezkotasuna eusko Jaurlaritzaren industri politikari buruzko dibulgazio-liburuxketan bertan egiazta daiteke (ikus a.b. 1983an ateratako "Programa de ayudas a la pequeña y mediana empresa"). Barrutiak eta bestek EHKAaren industri politikaz ongi diotenez "en cuanto a la política industrial propiamente dicha, las limitaciones expresas en el Estatuto reducen su aplicación al ámbito de la pequeña y mediana empresa" (Barrutia eta beste; 626 or.)

(1) Industri politikako alor hauek aipaturiko liburutxoan ezik, eusko Jaurlaritzaren beste zenbait idazlanetan agertzen dira.
(2) Gallastegui eta Barrutia; 44 or.
(3) Gallastegui eta Barrutia; 47 or.

- "Egiturari dagokionez (...) gatazkak ebazteko eta ekoizkortasuna igotzeko taiuzko molde bakarra den garapen instituzionaletan oraindik gehiago ahalegindu beharra dago"(1).

- (IBEE) Industri Birmoldaketa eta Eragintzarako Elakarteak, bestalde, orain dela gutxi arte bere ekimenaren puska handi bat enpresen finantzaketan xahutzen zuen. Katalunian berriz, enpresen finantzapen hau oso goiz, 1981eko ekainean alegia,erosoago eta eraginkorrago den beste era batetara antolatu zen: Generalitataren eta 72 banku eta aurrezki kutxen arteko hitzarmen baten bidez. EHKAan 1983ko Uztailera arte ez zen jo hobe deritzagun molde honetara.

Dena dela, eusko Jaurlaritzaren industri politikari egin zaizkion ia kritika gehienak izaera sektorialeko politiken aldetik etorri izan dira. Hauxe da, hain zuzen ere, hurrengo ataltxoan jorratuko dugun gaia.

## 3.4.- EUSKO JAURLARITZAREN INDUSTRI POLITIKA SEKTORIALAK.

Oposizio politikoaren aldetik eusko Jaurlaritzari behin eta berriro jaurtiki izan zaion kritika zera honetan zetzan: ez duela inongo planifikaziorik ondu eta "horizonte industrial"ik ezarri, zeinen bitartez mugatu eta zehaztuko ziren EHKAaren mailan birmoldatu (krisian baleude) edo sustatu (etorkizuneko erpinsektoreen kasuan) beharreko sektoreak. Eusko Jaurlaritzaren barruan plangintzarekiko mesfidantza galanta egon da eta plangintzarekin zerikusia izan lezakeen oro (Gizarte eta Ekonomi Kontseiluaren sorkuntza a.b.) arbuiatu eta baztertu egin da.

Nolanahi ere eusko Jaurlaritzaren jarrera hau aldatzekotan bide dago. Garaikoetxea, 1984eko Apirilaren 11n, Gobernuaren egitarauaren aurkezpenean sektore publikoaren plangintzaz, epe ertaineko ekonomi egitarau batez, Gizarte eta Ekonomi Kontseiluaren sorreraz, plangintzarako batzordearen erakuntzaz... mintzatu zen (2).

---

(1) Gallastegui eta Urrutia; 47 or.
(2) Berdintsu iharduten zuen Iñigo Aguirre-k 1983ko Martxoan "Información" aldizkariak zekarren elkarrizketa batetan.

Esan bezala, plangintza ez hori arras lotua joan da oraintsu arte industri politika sektorial ahul bati. Gorago agertu dugunez, sektore batzuren birmoldaketa Madrilgo Gobernuaren pean dago (birmoldaketa horietan EHKAak izan dezakeen eskuhartzeaz le henago aritu gara) baina beste zenbait sektorek hemen duen kontzentrazio, pisu eta berezitasunagatik EHKAaren eskuetan geldituko beharko luke, halanola armagintza, torlojugintza eta, agian, erraminta-makina.

Eusko Jaurlaritzak bere berregituraketa-politika sektore--mailan finkatu beharrean, ordea, enpresa-mailan burutu du orain arte, honek, gorago erakutsi bezala, dakarren kalte eta desaban tail guztiekin. EHKAaren industri politikarako zenbait gomendio eginez zera idazten zuten oraindik-orain Iñarra-k eta Usategui-k: "Bestalde, industri birmoldaketa eta eragintza sektore-mailan burutu behar dira. Enpresa-mailako ekinbideak hein handi batetan ezeztatuak izan daitezke, sektoreko gainerako enpresen norantz kontrako iharduerengatik" (1).

Eusko Jaurlaritzak sozialisten eta Euskadiko Ezkerraren kritikei erantzunez bere sektore-berregituraketa galerazi dituzten arrazoien artean hauxek agertzen zituzten: 1) sektore-berregituraketa hauek aurrera eramateko beharrezko zitzaizkiokeen ahalmen batzu (Kreditu Ofiziala, Gizarte-Segurantza...) artean transferitu gabe egoteak; 2) bere gain geldituko liratekeen birmoldaketa--sektoreetan industri minifundismoa txit zabaldua egoteak, honek enpresen arteko birmoldaketa-akordioak izugarri eragozten dituelarik.

Euskadiko Ezkerrarentzat, horregatio, bi arrazoi hauek aitzeki hutsak besterik ez ziren. Honela ziharduen Olaverri-k 1984eko Otsailaren 20an El Diario Vasco-n azalduriko elkarrikusketa batetan: "Egia da eusko Jaurlaritzari ekonomi alorrean ahalmenak falta zaizkiola(...) Baina, nik dakidanez, legebiltzarraldikoan ez da honetaz batere lehiatu. Gainera Eusko Jaurlaritzak Barne-Ekoizpen Gordinaren % 15era iristen den sektore publikoa eta Ekonomi Kontzertuaren bidez baliabide mordoa bere eskuetan ditu eta ez ditu eragindar horiek erabili ekonomi krisiari errotik heltze

(1) Iñarra eta Usategui; 529 or.

ko... Eusko Jaurlaritzak borondate politikoa edukiko balu alderantzizko bidea hartuko luke: arazoa erakutsi eta gero, hari aurpegi emateko tresna, ahalmena galdatu. Baina nik ez dut ikusten eusko Jaurlaritzak industri birmoldaketa egitea gogoan duenik. Eta hortxe dago arazoa".

EAJk argudiatzen zuen bigarren arrazoiaz ere Olaverri ez zen ados agertzen: EAJk ez dio sektore-birmoldaketari ekin horrelako ekintzek dakartzaten gatazkatasun eta desgate politikoaren beldur dagoelako; hots bide horri ekitekotan "egun PSOEk sindikatuekin dituen arazoak bihar EAJk izango lituzkeelako. Eta, jakina denez, EAJk ez du ezer maiteago, berak euskal herri osoa defenditzen duelako mitoa baino, h.d. gatazkan dauden alderdien artean aukeratu beharrean balego, guztiz ingara eginik geldituko litzatekeen mitoa" (1)

Orain arte eusko Jaurlaritzak ez dio inongo sektore-birmoldaketari zuzenean heldu. Honek ez du esan nahi berregituraketa-neurririk hartu ez duenik; gertatzen dena da berregituraketa-neurri horiek enpresa-mailan aplikatu direla, eta ez sektore-mailan. Helburu horretara bideraturiko baliabideak hauek izan dira:

- Industri eta Energi Sailaren aurrekontuaren bidez: 1982koan izenburu honen pean 314 miloi pezeta aurkitzen ziren, horietatik 300 miloi enpresei kapital-transferentziak egiteko zirelarik (2). 1983koan, aldiz, esleituriko kopurua 432 miloitakoa izan zen (kapital-transferentziak 400 miloi izanik).

- IBEEaren bitartez enpresen berregituraketarako bideraturiko kredituak: erakunde honen memorietatik 1982rako atera daitezkeen datuak beheragoko laukian ikus daitezke:

---

(1) Olaverri 2

(2) IBEEaren 1982ko memorian, ordea, urte horretan eusko Jaurlaritzak enpresen berregituraketarako emandako subentzioak 672 miloi pezetakoak izan direla adierazten da.

| 17 enpresa lagunduak zein sektoretakoak ziren | Emandako kredituak | Sendoturiko lanpostuak |
|---|---|---|
| Energetikoak ez diren mea-erauzketa eta eraldaketa. Kimikagintza. | 205 | 252 |
| Metalezko produktuen ekoizpena (makina eta garraio-ekaiak izan ezik) | 120 | 913 |
| Makineria eta ekipamendu mekanikoen egintza. Doitasun-gailuak. | 710 | 987 |
| Ekipamendu elektrikoa. Berebilgintzaren industria laguntzailea. | 416 | 690 |
| Zurezko-altzairugintza, paper eta kartoi-eraldagintza eta grafikagintza. | 175 | 241 |
| Kautxo eta plastikozko ekoizkinen eraldagintza. | 650 | 787 |
| GUZTIRA | 2.276 | 3.870 |

1983koaz ezer gutzi aurkitu dugu eta urte horretako erakundearen memorian gai honi buruz egiten den aipamena labur samarra da, honako hau hain zuzen: "Joan den urteko ekitaldian barrena, 15 enpresei, 2.287 miloi pezetako kredituak emateko agindua jaso zen. Haien eskuetan jarritakoa, bai enpresa horiei bai aurreko urtean onartu baina oraindik kopuru batzu despoltsaratzeko gelditu zitzaizkienei, 2.057 miloi pezetataraino iristen da".

Hala ere datu hauek ez bide daude osaturik. Jesus Lobo-k, garai batetan eusko Jaurlaritzaren Industri estrategiarako kontseilariordea zenak, 1983ko Irailean ICEen argitaraturiko artikulu batetan 1982rako beste datu batzuk eskaintzen zituen: lagunduriko enpresak 20; lanpostu sendotuak 4.020; emandako kreditu, subentzio eta abalak 3.398 miloi pezeta (horrez gainera, birmoldaketa-plan estataletan barne zeuden enpresei 575 miloi pezetako abalak).

1984erako, haatik, panorama hau aldatu da eta sektore-berregituraketa indartzea erabaki da. Hori egiteko krisian dauden sektore edo enpresentzako ezohizko laguntzen eskurapenerako Erabide-Arau berriak jarri dira, 198leko Ekainaren 8koak ordezkatzen dituztenak. 1984eko Otsaileko Erabide-Arauteriaren 8. orrian honela dator: "Los cambios introducidos en la política de reestructuración suponen que, a partir de la fecha de aprobación de estas normas, sólo podrán acceder a las ayudas extraordinarias aquellas empresas integradas en sectores declarados previamente en reestructuración y teniendo en cuenta los posibles perjuicios a empresas de igual o similar actividad. Excepcionalmente, podrán tener acceso a las mismas aquellas empresas industriales que a la fecha,tengan en avanzado proceso su tramitación de solicitud,así como aquellas otras en las que a juicio del Consejo de Gobierno Vasco, concurran circunstancias especiales" (1).

Arauteria horretan finkatzen den erabidea honoko hauxe da gutxi-gorabehera:

. Sektoreko enpresa gehienak barne dituen elkarte edo organo batek (I eta E) Industri eta Energi Sailari sektorea berregituraketan ipintzeko eskabidea egingo dio, horrekin batera, ongi zehaztutik, sektoreari buruzko datu jakin batzu (enplegua...) etorkizunezko aurrikustapenak, berregituraketaren helburuak eta enpresartean ezarri nahi diren amankomuneko ekintzak igortzen dizkiotelarik.

Sindikatuen aburuz sektorea berregituratu premian balego, horrela emango diote aditzera I eta E Sailari. Honek, orduan, bere eritzia, dagokion enpresa-elkarte edo organoari azalduko dio.

Halaber azpimarratu behar da erabide-arauteria honen arabera euskal administrazioak ez duela inongo sektorerik aukeratzen ez pro

(1) Era berean, eta politika Sektorialerantz eman den urratsaren adierazpidétzat, enpresa txiki eta ertainentzako kreditu-hilara sortzeko asmoz eusko Jaurlaritzak finantzetxeekin izenpaturiko hitzarmenean, kreditu horietaz baliatu ahal izateko enpresei, hitzarmenean bertan zehazten diren ekonomi sektoreetan harduteko baldintza ezartzen zaiela aipa daiteke. Puntu honetan 1984eko hitzarmenak garrantzizko aldaketa dakar 1983an izenpatuarekiko.

zesu hori martxan jartzeko erabakirik hartzen, "borondate eta ekimena enpresari eta sindikatuei" dagokiela bakar-bakarrik ( egia esan, dagokien bakarrei enpresariei da).

. I eta E Saila aipaturiko eskabide eta datuak jaso bezain laster, informazio hori agerira emango du 15 egun bitartean, eta ondoren Administrazioaren, Sindikatuen eta Ugazaberiaren ordezkariez osaturiko Batzorde Informatzailera aurretxostena bidaliko du. Batzorde horretan jasotako eritzien arabera, I eta E Sailak azken txostena burutuko du, zein, Ekonomi Batzordearen adostasuna lortuz gero, Gobernu-Kontseiluaren erabaki pean lagako bait da (eskabidea egiten denetik Goberni-Kontseiluak bere eritzia eman arte ezin daiteke bi hilabete baino gehiago igaro). Gobernu--Kontseilu honetan berregituraketaren aldarrikapenari onetsi edo ezetsi eginen zaio, eta egoki eritzitako baldintza eta laguntza orokorrak ezarriko dira.

. Sektorearen berregituraketa aldarrikatu eta gero Organo gestiogilea eta Jarraitze-batzordea eratuko dira:

= Organo gestiogilearen osakideak enpresariak eta Administrazioak aukeraturiko profesionalak izango dira. Haren eginkizunak, besteak beste, bidegarritasun-plana elaboratzea eta beronen garapenaz eta beterazpenaz arduratzea izanen dira. Haren tankera: berregituraketa-elkartea, enpresa-talde edo gerentzi sistema. Organo honek, 4 hilabeteren barruan, I eta E Sailera sektorearen eta sektoreko enpresa bakoitzaren bidegarritasun-planak, eta honi dihoazkion akordioak, igorriko dizkio.

= Jarraitze-batzordearen osakideak, berriz, Administrazioaren, Sindikatuen eta Ugazaberiaren ordezkariak izanen dira.

. I eta E Sailak bidegarritasun-plana eta akordioak aztertu eta gero, txosten bat eta laguntz salo zehatza burutuko eta Ekonomi Batzordera bidaliko du, honek azken erabakia har dezan (I eta E sailak bidegarritasun-plana eta akordioa jasotzen dituenetik erabakia hartzen den arte ez da bi hilabete baino gehiago igaroko).

Berregituraketako politika hau aurrera eramateko 1984eko aurrekontuetan 3.000 miloi pezetako kopurua agertzen da, eta 500

miloi abaletarako. Industri Birmoldaketa eta Eragintzarako Elkartearen aurrekontuan, bestalde, xede horretara 2.400 miloi pezeta esleiturik dago.

Euskadiko Ezkerraren ustez, ordea, Erabide-Arauteria hau guztiz itxuragabea da zeren eta sindikatuei ematen zaien eskuhartzea Solchagaren projektuan ematen zitzaiena baino are txikiagoa bait da (eta honek sindikatuen aldetik berregiturabide honen ezespena ekarriko du), enpresariena, aldiz, sekulakoa izanik; hain zuzen ere inondik ere agertzen ez diren eta orain arte "a la altura de las circunstancias" delakoan egoten jakin ez duten agente sozialena (1). Hori dela eta, haren irudiz, euskal sektore publikoak zeregin handiagoa eduki beharko luke, "sektore berrien sorkuntzan" eskuhartu beharko luke (eusko jaurlaritzak ez du inolako gogorik agertu euskal enpresa publikoaren bidez jokatzeko eta euskal INIa eraikitzeko: haren eritziz, ekimen denek enpresarietatik etorri behar dute eta hauekiko euskal sektore publikoak hartu behar duen lekua guztiz subsidiarioa da), Langile-Elkarte Anonimoak eta kooperatibak bezalako autogestio-ekimenak bultzatu beharko lituzte,...

Euskal sektore berezien berregituraketaz, nola dagoen une honetan alegia, ez dut informazio handirik. Torlojugintzan badirudi enpresariek birmoldaketa-plana martxan jarri nahi dutela eta beharrezko azterketak egiten ari direla, amankomuneko ekintzak burutzeko asmoz bi enpresa-talde, Unitor eta Berotor, eraiki berriak direlarik. Erraminta-makinaren sektorean, sektore honen birmoldaketa Madrilgo gobernuak ez duela aldarrikatuko behin Solchagak aditzera emanez gero, badirudi eusko Jaurlaritza sektore honen inbertsio, teknologi sartze eta enpresarteko egituren sorkuntzaz arduratuko dela, Administrazio Zentralak arauketa laborala eta CN--100 egitaraua bere gain hartzen duen bitartean (enpresek dagoeneko bere estudioak eginak dituzte eta bi Administrazioen azken erabakien zai daude)

---

(1) Honela zioen Olaverri-k elkarrikusketa batetan: "En cuanto al PNV sigue confiando en el enpresariado vasco. Para nosotros no existe porque la principal preocupación del empresariado vasco hoy en día está en reducir costes y personal En Euskadi hoy sólo generan empleo las Sociedades Anónimas Laborales y Caja Laboral Popular. ¡Que más quisieramos que los demás colectivos quisieran generar empleo!(...) Nuestra alternativa puede parecer radical e intervencionista pero es que no hay otra. No existen capitalistas con quien discutir" (El Diario Vasco,1984, Otsaila 20)

## 3.5.- FORU-ALDUNDIEN INDUSTRI POLITIKA.

EHKAaren mailan Gobernu Zentralak eta eusko Jaurlaritzak burutzen dituzten industri politikako jokaerei, azken urte hauetan Foru-Aldundiak burutzen hasi dituztenak erantsi behar zaizkie. Gipuzkoako Foru-Aldundiak, a.b., 1983ko aurrekontuan 1.000 miloi pezeta zuen esleiturik enpresei laguntzak emateko eta 1984ekoan kopuru hori 2.991 miloitara igaro da. Bizkaiko Foru-Aldundiaren laguntzak are handiagoak dira: 1984eko aurrekontuan 7.900 miloi pezeta esleiturik du Ekonomi Eragintza eta Garapenerako Sailak.

Neurri hauek eusko Jaurlaritzarenekin bikoiztasun eta are aurkako jokaerak sortzen dituzten zenbait kasutan, eta, gainera, Aldundi batek hartzen dituen neurriak besteek ez hartzekotan, edo neurri txikiagoan egitean oker edo agrabio konparatiboak sor daitezke.Horixe salatu izan dute bai zenbait ekonomilarik (ikus a.b. C. Urdangarinen artikulua 1984eko Martxoaren 29ko El Diario Vasco aldizkarian), bai oposizioko alderdi batzuk (PSOE eta EE batik-bat). Izan ere, Urdangarin-ek aipaturiko artikuluan zuzen idazten duenez "con independencia de cualquier otra cuestión parece necesario que se impongan desde el Gobierno Vasco criterios uniformes, aunque su ejecución se lleve a cabo por distintas entidades",

Hori dena,, EAJren barruan Foru-Aldundiek eta eusko-Jaurlaritzak jokatu behar duten eginkizunaz dauden elkarraurkako jarrerei zor bide zaio (ez ahantz gero Aldundien eta Jaurlaritzaren ahalmen-banakuntzaz ari den Lurralde Historikoen Legeaz EAJren baitan azaldu diren eritzi eta indar aurkajarriak). Dena dela, Garaikoetxeak 1984eko Apirilaren 12an Gobernuaren egitaraua eusko legebiltzarrean agertzean gai honetaz ihardutean euskal erakundeen arteko baliabide-banakuntza aztertu beharko lukeen Euskal Finantz Publikoko Kontseiluaren presazko erakuntza aipatu zuen; baliabide banakuntza horretan ondoko oinarrizko hastapena erabiliko litzateke: " el doble principio de asignación de recursos en razón de las competencias y/o servicios que correspondan a las instituciones comunes y a los organos forales de los territorios históricos, y,en segundo término, el de evitación de duplicidades en las actividades administrativas"

## ERABILITAKO IDAZLANAK

Abad, A.1: "Nuevas ideas para la reconversión empresarial e industrial del País Vasco" Economía Vascongada 443 zb. 1981 Martxoa.

Abad, A.2: "La problemática financiera en la reconversión industrial". Información 1361 zb.

Albentosa, L. eta Zaragoza, J. : "Estrucutura y política siderúrgica: de la acción concertada a la política de reconversión". ICE 591 zb. 1982 Azaroa.

Aranzadi, C.; Fanjul, O. eta Maravall, F.: "Una nota sobre ajuste y reindustrialización". Papeles de Economía Española 15 zb. 1983.

Argandoña, A.: "¿Cual es la política industrial aceptable?". Papeles de Economía Española 15 zb. 1983.

Bayón, I.: "La política de reconversión industrial: opiniones sobre su importancia, estrategia y costes". Papeles de Economía Española 5 zb.

Boyer, M.: "Opiniones". Papeles de Economía Española 15 zb. 1983.

Braña Pino, J.F.: "La función económica del Estado capitalista. Contribución al análisis del proceso de industrialización dependiente en España, 1964-1977". Tesis Doctoral. Universidad Complutense de Madrid 1981.

Braña, J.; Buesa, M. eta Molero,J.: "Reconversión industrial en España: un debate inconcluso". Pensamiento Iberoamericano 2 zb. 1982.

(C.L.P.) Caja Laboral Popular: "La economía vasca y el Mercado Común Europeo". 1980

(C.L.P.) Caja Laboral Popular: "Economía vasca: Informe 1977 (1978, 1979, 1980, 1981, 1982)".

Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Barcelona: "Los sectores industriales ante la integración de España en las Comunidades Europeas". Barcelona 1979 Abendua.

Cámaras Oficiales de Comercio, Industria y Navegación de España: "Libro blanco sobre el grado actual de integración de la Comunidad Europea y sus implicaciones para España" Madrid 1979.

Centeno, R.: "Los límites del mercado". Papeles de Economía Española 7 zb. 1981.

Croissier,L. C. 1: "La política industrial de la CEE". Economía Industrial 180 zb. 1978 Abendua.

Croissier, L. C. 2: "La industria y la política española ante la CEE" in "La segunda ampliación de la CEE: Grecia, Portugal y España ante la Comunidad". Ed. por J.A. Payno eta J. L. Sampedro Madril 1982.

De la Dehesa Romero,G.: "La política industrial frente a la crisis" Papeles de Economía Española 1 zb. 1980.

De la Dehesa, G. eta García Valverde, J.: "Las políticas industriales para los años 80". Papeles de Economía Española 5 zb.

Delegación del Gobierno en el País Vasco: "Reconversión, reindustrialización y política laboral del Gobierno". Ed. Servicio Publicaciones del Mº de Trabajo y Seguridad Social. 1984.

De Silva Cienfuegos-Jovellanos, P.: "Reconversión industrial: reflexiones y propuestas". El País 1981 Ekaina 4.

Diez Alday, J.A. 1: "Objetivos de la política industrial del Gobierno Vasco". Información 1371 zb. 1982 Uztail-Abuztua.

Diez Alday, J.A. 2: "Vascos contra la crisis: J. García Egocheaga". Información 1377 zb. 1982 Abendua.

Documentos 82:"La Comunidad y las ayudas estatales a las empresas". 15 ab. Madril 1982 Azaroa.

Documentación Europea: "La Economía en la Comunidad Europea" Luxemburgo 1983.

Documentation Européenne: "La stratégie industrielle de la Communauté". Luxemburg 1983.

Donges, J.B. 1: "Reconversión industrial y económica de mercado". Papeles de Economía Española 7 zb. 1981.

Donges, J.B. 2: "La política industrial en Alemania Federal" in "Política Industrial: sectores en crisis y sectores en desarrollo" Bilbo 1982.

Equipo de Información Económica: "Naturaleza y significado de la reestructuración sectorial". Transición 30 zb. 1981 Martxoa.

ESADE: "La industria española ante la Comunidad Europea" 1978.

Fernández, J. : "Entrevista a Ignacio Bayón, ministro de Industria". El País, 1980 Azaroa 2.

Fontela, E. : "Una defensa de la planificación". Papeles de Economía Española 7 zb. 1981.

Galbraith, J.K. : "El asalto conservador". Papeles de Economía Española 7 zb. 1981.

Gallastegui, M.C. eta Urrutia, J.: "La economía del País Vasco ante la crisis y la autonomía: experiencia y perspectivas" ICE 1983 Ekaina.

Gamir, L.: "Reconversión industrial y políticas de oferta". El País 1981 Maiatza 23.

Garayalde,I. eta Llorens, J.L.: "Reestructuración industrial del País Vasco: hacia una estructura industrial óptima". ICE 1983 Ekaina.

Garcia Egocheaga, J.: "Política industrial" in "Política industrial: sectores en crisis y sectores en desarrollo". Bilbo 1982.

Garcia Egocheaga, J.; Romeo Martinez de Lecea, J.M. eta Salaberri Asumendi, J.A.: "La problemática socio económica actual y previsible futura del País Vasco" in "Regiones industrializadas en declive" Bilbo 1981

Garcia Valverde, J.1: "El carácter de las crisis y las políticas anticrisis". Papeles de Economía Española 1 zb. 1980.

Garcia Valverde, J. 2: "Orientación futura de la política industrial en España" in "Política industrial: sectores en crisis y sectores en desarrollo" Bilbo 1982

Gobierno Vasco 1, Departamento de Trabajo y Departamento de Industria y Energía: "Política de empleo de la Comunidad Autónoma" 1983.

Gobierno Vasco 2, Departamento de Industria y Energía: "Comunidad Autónoma del País Vasco: Programa de ayudas a la mediana y pequeña empresa industrial" Gasteiz 1983.

Gobierno Vasco 3, Departamento de Economía y Hacienda: "Convenio para la financiación de operaciones de inversiones en sectores productivos y servicios conexos con los mismos" Gasteiz 1983 Uztaila.

Gobierno Vasco 4, Departamento de Industria y Energía: "Política Industrial del Gobierno Vasco y presupuestos 1984" Gasteiz 1983 Abendua.

Gobierno Vasco 5, Vicepresidencia para al Desarrollo Autonómico--Departamento de Economía y Hacienda: "Línea de créditos a bajo tipo de interés para las PYMES: Convenio 1984".

Gobierno Vasco 6, Departamento de Industria y Energía: "Normas de procedimiento para la declaración de sectores en reestructuración y resolución de ayudas extraordinarias" Gasteiz 1984 Otsaila.

Gonzalez M.J.: "La intervención del Estado en la economía española: el caso de Asturias". Papeles de Economía Española 7 zb. 1981.

Granell, F.: "Las Comunidades Autónomas y la renovación del sistema español de promoción de exportaciones". Papeles de Economía Española 7 zb. 1981.

IKEI 1: "Reestructuración de la economía vasca: estrategia industrial, fase I, informe final". 1979 Azaroa.

IKEI 2: "Euskal Herriko industriaren birregiturapenaz" (Udako Euskal Unibertsitatean, 1980eko Uztailean aurkezturiko txostena).

Izengabea 1: "Introducción Editorial: Dos crisis económicas". Papeles de Economía Española 1 zb. 1980.

Izengabea 2: "Introducción Editorial: Políticas para una recuperación prolongada" Papeles de Economía Española 15 zb. 1983.

Iñarra, E. eta Usategui, J.M.: "Política Industrial y otras políticas comunitarias conexas" in "Euskadi en la Comunidad Europea". Gobierno Vasco, Gasteiz 1984.

Klein, L.R.: "La vertiente de la oferta". Papeles de Economía Española 5 zb.

Langer, M.F.: "Tendencias recientes de la política industrial en los países de la OCDE" in "Política Industrial: sectores en crisis y sectores en desarrollo" Bilbo 1982.

Lobo Aleu, J.: "Política industrial en la Comunidad Autónoma del País Vasco". ICE 1983 Ekaina.

Maneiro, A.: "La reconversión a debate". Información 1361 zb.

Marzo, Mª J. 1: "Vascos contra la crisis: Jon Ander Salaberri". Información 1361 zb.

Marzo, Mª J. 2: "La reconversión industrial, asignatura pendiente". Información 1386 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

(M.I.N.E.R) Ministerio de Industria y Energía: "Libro Blanco de la Reindustrialización" Madrid 1983.

Navarro, M. 1: "Kontzertuak eta Konbenioa: atzo eta gaur" in "Euskal Herriko ekonomi lanen bilduma 1981". Udako Euskal Unibertsitatea 1983.

Navarro, M. 2: "Krisiari, Estatuari eta nazioartekotzeari buruzko zenbait teoriaren azalpen kritikoa" 1983 Ekaina. (Gipuzkoako Foru-Aldundiaren laguntzari esker buruturiko ikerketa).

Olaverri, J. 2: "Bipolarización y Crisis Económica". El Diario Vasco 1983 Abendua 15.

Ortún Silvan, P. : "Reconversión industrial en España" (ez argitaratua).

Ortún Silvan, P. eta Sanchez-Junco, J.F.: "La política de reconversión industrial en España hasta 1983". Economía Industrial 229 zb. 1983 Urtarril-Otsaila.

Ortún Silvan, P. eta Puelles Redondo, M.: "Estructura industrial y estrategia empresarial frente a la integración de España en la CEE". Economía Industrial 229 zb. 1983 Urtarril-Otsaila.

Pastor Arias, F.: "La política industrial en la CEE y en países comunitarios seleccionados, año 1981". Economía Industrial 221 zb. 1982 Maiatza.

Perez de Calleja, A.1: "Informe diagnóstico sobre la economía vasca". Ed. Iparraguirre Bilbao 1982.

Perez de Calleja, A. 2: "Otra vuelta a la tuerca: la reconversión industrial". Muga 31 zb. 1984 Apirila.

Perez de Calleja, A. eta Arriaga, J.L.: "Entrevista a Carlos Solchaga, Ministro de Industria". Muga 31 zb. 1984 Apirila.

Poza, A. de la: "Las políticas de ajuste positivo y la reestructuración industrial en el marco de la OCDE". Economía Industrial 229 ab. 1983 Urtarril-Otsaila.

Rodriguez Sahagún, A.2: "La reconversión y el pacto necesario" Diario Vasco 1984 Martxoa 17.

Sardá i Dexeus, J.; Requeijo, J. eta Segura, J.: "Los nuevos economistas liberales". Papeles de Economía Española 1 zb.

Segura, J. 1: "Comentario al trabajo de Joan Sarda 'Los nuevos economistas liberales'". Papeles de Economía Española 1 zb. 1980.

Segura, J. 2: "La crisis económica como crisis industrial: la necesidad de una estrategia activa". Papeles de Economía Española 15 ab. 1982

(S.E.B.B.) Servicio de Estudios del Banco Bilbao 1: "Necesidad de una nueva estrategia industrial". Situación 1982/1.

(S.E.B.B.) Servicio de Estudios del Banco Bilbao 2: "La reconversión industrial en España". Situación 1982/1.

(S.E.B.U) Servicio de Estudios del Banco Urquijo: "La economía española en la década de los 80" Alianza Universidad. Madrid 1982.

Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial S.A.: "Memoria 1982 (eta 1983)".

Solchaga, C.1: "La nueva política industrial española". Economía Industrial 229 zb. 1983 Urtarril/Otsaila.

Solchaga, C. 2: "Opiniones". Papeles de Economía Española 15 zb. 1983.

Tamames, R.: "Crónica de la reconversión", Anuario El País 1984.

Trikuharri: "Industri estrategia bat behar dugu Euskal Herrirako". Argia 996 zb. 1983 Abendua.

Urrutia, J., Barbera, S. eta beste: "Sector Público en la Comunidad Autónoma del País Vasco y la adhesión de España a la CEE" in "Euskadi en la Comunidad Económica Europea" Gobierno Vasco, Gasteiz 1984.

Vizcaino, J. Mª: "Futuro de la política industrial en el País Vasco: un punto de vista empresarial" in"Política industrial: sectores en crisis y sectores en desarrollo". Bilbo 1982.

## BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

Albentosa, L.: "Las políticas de ajuste y la planificación". Economía Industrial 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

Aragón, J. eta Parra, T.: "Reflexiones sobre el Libro Blanco de la Reindustrialización". Economía Industrial 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua

Desdentado, A. eta Garcia Perrote, I.: "Las medidas laborales en la Reconversión Industrial". Economía Industrial 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

Fanjul, O. eta Maravall, F.: "Estrategia industrial y competencia en una economía abierta: algunas reflexiones". ICE 604 zb. 1983 Abendua.

Fuentes Quintana, E.: "La reconversión industrial". El País 1983 Uztaila 17.

Federación del Metal de Comisiones Obreras:"Balance y perspectivas de la Reconversión Industrial", 1982.

Federación del Metal de Comisiones Obreras:"Reunión de Cuadros del metal de CCOO. Siderurgia: cumplir los acuerdos de 1981". Gaceta Sindical, Organo de Confederación Sindical de CCOO, Año IV 26 zb. 1983.

Folgado, J.: "Política industrial y política económica". Economía Industrial 232 ab. 1983 Uztail-Abuztua.

JFM-JB: "Eduardo Santos: el objetivo es minimizar los costes del ajuste". Economía Industrial 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

Mendoza, J.M.: "Una aproximación crítica al Libro Blanco" LANTZEN 16.

O.C.D.E.: "Las políticas de fomento de las inversiones en la OCDE". Economía Industrial 232 ab. 1983 Uztail-Abuztua.

Olaberri, X. : "Una propuesta para la salida de la crisis vasca". Hitz laborala, 1983 Maiatza 6.

Pinar, A. eta Vazquez, J.R.: "Desarrollo regional y Reconversión Industrial". Economía Industrial 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

Rubio Alvarez, J.: "El plande reconversión textil". Economía Industrial, 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

U.G.T.: "UGT ante el Libro Blanco de la Reindustrialización". Economía Industrial, 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

Van Heesch, T.: "Política de reestructuración en la OCDE". Economía Industrial, 232 zb. 1983 Uztail-Abuztua.

## HIZTEGIA*

adostasun = acuerdo
agitu = suceder
aldagai = variable
aldarrikatu = declarar
alokairu-izozte = congelación salarial
altxor = tesoro
antolaera = organización
ariel = arbitrio
artekari = intermediario
atezu = tensión
atzipen = acceso
aurrekontu = presupuesto
baldintzapetu = condicionar
baliabide = recurso
baliokide = equivalente
bategite = fusión
berezilari = especialista
berme = garantía
berregituratu = reestructurar
berresleitu = reasignar
bidegarritasun = viabilidad
birdoiketa = reajuste
birmoldaketa = reconversión
birtaiutu = reordenar
burutu = realizar
desoreka = desequilibrio
ebatzi = resolver
egingarri = factible
egintza juridiko agiridun = acto jurídico documentado
egipide = gestión
egitarau = programa
egitasmo = proyecto
egitate = hecho
egongaiztasun = inestabilidad
egonkortasun = estabilidad
ekimen = iniciativa
ekin = activo (adj.)
ekintza hitzartua = acción concertada
ekitaldia = fase/ ejercicio
ekoizkin = producto
ekoizkortasun = productividad
ekoizle = productor
ekoizpen = producción
emaitza = resultado
emendakin = enmienda
emendio = crecimiento
engaiatu = comprometer(se)
enkante = subasta
enplegu-arauketa = regulación de empleo
eragiketa = operación
eraginkortasun = eficacia
erabide = procedimiento
eraginkor = eficiencia
eragintza = promoción
eraldakuntza = transformación
eraldatu = transformar
eralgipen = gasto
erantzunkizun = responsabilidad
erdietsi = lortu
erdiratu = centralizar
erizpide = criterio
erkidetu = asociarse
erpin = punta, vanguardia
errekardiratu = regatear
ertain = mediano, medio
eskuhartzaile = participativo
eskuhartze = participación
eskusartze = intervención
esleitu = asignar
estaldura = cobertura

(*) Hiztegitxo honetatik hitz gehienak, UZEIk kaleratutakoetatik atereak daude.

etendura* = suspensión
ezarkuntza = establecimiento
ezaskitasun = insuficiencia
ezikugarri = intangible
ezinobe = óptimo
galdakizun = exigencia
garapen = desarrollo
garapen-ardatz = polo de desarrollo
gardentasun = transparencia
gatazkatasun = conflictividad
gehiegitza = excedente
gehiengo = mayoría
geroratu = aplazar
gino = proporción
gordailu = depósito
harduru = acreedor
haustura = rescisión
hazkundea = crecimiento
hedatu = extender
higikortasun = movilidad
hilara = línea
hitzarmen = convenio
hobari = bonificación
hornitu = suministrar
ihardetsi = responder
ingara egin = afectar
ingurugiro = medio ambiente
iradoki = sugerir
iragarri = anunciar
iraitzi = despedir
iraungi = extinguir
irazkin = comentario
irazkindu = comentar
iruzur = fraude
isundu = multar
itun = pacto
itzulgarri = reintegrable
izapidatze = tramitación
izapidatu = tramitar
jaregin = liberar
jareintasun = liberalización
jaulkipen = emisión
jazarpen = oposición
jesapen = empréstito
kalteordain = indemnización
kari = causa
kontu-ikuskari = auditoria
korbon = dividendo
lagin = muestra
lankidetza = colaboración
leheneredu = prototipo
lehentasun = preferencia
lehiagarritasun= competitividad
lehiaketa = competencia
mailegu = préstamo
malgutasun = flexibilidad
mozkin = beneficio
ments = déficit
metapen = acumulación
mukertasun = resistencia
oinarri ezargarri = base imponible
ondare-eskualdaketa = transmisión patrimonial
ondu = elaborar
osagai = componente
osasunketa = saneamiento
permadura = esfuerzo
pizgarri = incentivo
sailkapen = clasificación
salo = proposición

(*) Nahiz eta liburuan, UZEIri jarraituz, "etendura" hitza erabili zenbat eta gogoeta gehiago egin honetaz, hainbat eta desegokiago iruditzen zait. Nire uste apalez, "etendura" ordez hobe litzateke "eskekitze" edo antzekoren bat erabiltzea, izan ere ugazaba eta langilearen arteko kontratu-erlazioa jarraitzen da, ez da moz ten, ez da ETEN egiten.

sid. osagabe = sid. no integral

sid. osatu = sid. integral

sorospen = subsidio

sustatu = promover, promocionar

talka-tratamendu = tratamiento de shock

tokiko... = ... local

ustiakuntza = explotación

xahutu = gastar, derrochar

zama = carga

zarrastelkeria = despilfarro

zatikatu = fraccionar

zeinkatu = identificar

zergarinketa = desgravación fiscal

zuntz = fibra

zurrun = rígido

zuzpertu = recuperar